Zu hemen zaude.
goiena A25

2024-11-22 EGUBAKOITZA / 1.058. ZENBAKIA / 24. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

# ERANTZUN KOLEKTIBOAREN PREMIAN

Eragile eta erakunde feministak bat datoz: indarkeria matxista kasuek gora egiten jarraitzen dute. Olatu negazionistari aurre egiteko eta indarkeria jasan duten emakumeei babesa adierazteko, mobilizazioak daude deituta astelehenerako / 2

**Artatutako indarkeria matxista kasuak Debagoienean: 209**

•

**Jarritako salaketak: 145**

•

**Ezarritako urruntze-aginduak: 50**

•

**18 eta 39 urte artekoak dira indarkeria matxista jasan duten emakumeen %50**

ITURRIA: BERGARAKO ERTZAIN-ETXEA.

2024KO URTARRILAREN 1ETIK URRIAREN 31RA ARTEKO DATUAK.

SINADURAK

MIKEL LEZAMIZ / 6
DJAMILA ZEREIBY / 10
PALOMA MARTINEZ PEREZ / 16
ARANTZA MIGUEL / 18
AINHOA PARDINA / 22
XABIER IGARTUA LOIDI / 29
ANDER ETXEBERRIA / 40

+ 

Goienakide egutegia 2025 Debagoiendarron egutegirik osatuena

AZKEN EGUNAK
BLACK FRIDAY
2MÓ 189€
lehen 229€
erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak
Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.
R.P.S. 91/20



multiópticas
943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE
943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA
www.multiopticas.com




Joan den urtean, Azaroaren 25ean Arrasaten egindako elkarretaratzea. GOIENA

# Bortxa matxista, etengabe gora

Aurten ere gora egin dute indarkeria matxista kasuek Debagoienean. Bizirauleen elkarteek diote arreta eskaintzeko orduan haien ahotsak kontuan hartu behar direla; pertsona bakoitzaren beharrei erreparatzea garrantzitsua dela diote adituek

**Jone Arruabarrena** DEBAGOIENA

Beste urte batez, gora egin dute berriro ere indarkeria matxista kasuek. Orokorra da joera; Euskal Herrian geroz eta kasu gehiago zenbatzen dira urtetik urtera, eta Debagoienean ere gorantz doa kopurua. Oraindik urtea bukatu ez den arren, bailaran genero indarkeriarekin eta etxeko indarkeriarekin lotutako 209 kasu artatu ditu Ertzaintzak, urriaren 31ra bitarte. 2023an, urtarriletik abendura, 202 izan ziren artatutako kasuak.

Herrikako datuei dagokienez, Arrasaten 49 izan dira artatu dituzten kasuak; Bergaran 47 izan dira, Aretxabaletan 13, Eskoriatzan 16 eta Oñatin 11. Debagoieneko gainontzeko herrietan artatutako kasuak 73 izan dira; herri txikien arteko datuen batuketa hori egiten da, seinalizaziorako arriskua ekiditeko.

Datuek ez dute ezustean hartu Guerreras elkarteko presidente Montse Garcia. Egunerako lanean bere begiekin ikusten du gorakada hori. 2019. urtean sortu zuen elkartea indarkeria matxistari biziraute lortu zuen emakume talde batek. "Terapia-talde batetik sortu genuen. Guztiak indarkeria matxistaren biktimak ginen, eta ikusten genuen bizirauleen beharrak betetzeko orduan hutsune bat zegoela", adierazi du Garciak.

**GEROZ ETA GEHIAGO DIRA INDARKERIA MATXISTA SALATZEN DUTEN NESKA GAZTEAK**

Orain, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei laguntzen diete elkartean, behar dutenean: epaiketetara joaten dira eurekin, zerbitzu sozialetara, psikologoarenean zita hartzen laguntzen diete... Garrantzitsua da, Garciaren esanetan, prozesu hori pertsona "epaitu gabe" egitea. Horrez gain, sentsibilizazio lana ere egiten dute. Garciak ere igartzen du datuetan islatzen den gorakada: "Gu hasi ginenean baino dezente okerrago dago egoera. Geroz eta indarkeria kasu gehiago daude, eta gauza askotan atzerapausoak ematen ari gara. Besteak beste, biktimentzako zerbitzu publikoak pribatizatzen ari dira. Azpikontratatutako enpresek kudeatzen dituzte orain, eta horien pentsaera da zenbat eta biktima gehiago izan euren irabaziak ere orduan eta handiagoak izango direla".

Indarkeria matxista jasan dutenen adinari dagokionez, %50ek 18-39 urte bitartean dituzte; eta %45ek, 40-59 urte bitartean. Hain zuzen, Garciak azpimarratu du geroz eta emakume gazteagoek jotzen dutela haiengana. "Emakume helduagoak ere etortzen dira, baina gehiago kostatzen zaie pausoa ematea", adierazi du Garciak. Bat dator Gemma Varona Munduko Biktimologia Elkarteko presidentea ere: "Geroz eta biktima gehiago dira neska gazteak. Berdintasunean hezi dituzten arren, belaunaldi bakoitzak egin behar duen borroka bat da indarkeria matxistarena". Arrasaten izango da Varona, Azaroaren 25ean, Goienagusi elkarteak gonbidatuta; indarkeria matxistaren inguruko hitzaldia egingo du.

### Beharrak

Indarkeria matxista jasan dutenen beharrei begiratuta, Varonak adierazi du kasuistikak asko direla, eta oso ezberdinak elkarren artean. Horregatik, emakume bakoitzaren ezaugarriak ezagutu eta horietara egokitzearen garrantzia azpimarratu du: "Ez da berdina indarkeria matxista pairatzen ari den emakume etorkin txinatar bat, komunitate itxiagokoa dena, edo emakume migratzaile bat baina gazteleraz dakiena. Ez da berdina indarkeria hori landa eremuan gertatzen denean edo desgaitasunen bat duen emakume batek pairatzen duenean. Kasua asko aldatzen da emakume horrek aurretik beste delituren bat jasan duenean ere, autoestimuan eragin negatiboa izaten baitu horrek, edo seme-alabak dituzten emakumeen kasuan".

Garciak, ordea, adierazi du ez dagoela haien beharrak asetzeko behar besteko baliabiderik. "Indarkeria matxistaren biktimentzako programetan zerbitzu psikologikoak daude, baina horietara heltzeko itxarote-zerrendak amaigabeak dira. Eta indarkeria bizi izan duen emakume batek behar duen lehenengo gauza laguntza psikologikoa da. Indarkeria matxistan espezializatutako psikologo gutxi daude, eta biktimak geroz eta gehiago dira". Uste du instituzioak saiatzen direla emakume horien beharrak asetzen, baina hutsune handia dagoela oraindik: "Ezinbesteko pieza bat falta da puzzlean: indarkeria pairatu duten emakumeen ahotsa entzutea". Varonak ere aitortu du baliabide asko emakume horien erreparaziora bideratu diren arren, "koordinazioa eta formakuntza" falta dela oraindik arlo askotan, baina sektoreko profesionalen balioa nabarmendu du.

**2024AN, 145 EMAKUMEK JARRI DUTE SALAKETA, ETA 50EK LORTU DUTE URRUNTZE-AGINDUA**

### Salatzea, aukerakoa

Salaketei begiratuz gero, genero indarkeriazko 209 kasu horietatik 145ek jarri zuten salaketa. Bestetik, 50 emakumek lortu dute erasotzailearengandik babesteko urruntze-agindua. Garciak adierazi du Guerreras elkartean salaketa jarri nahi dutenei eta jarri nahi ez dutenei laguntzen dietela, bereizketarik egin gabe.

"Salaketa juridikoa jartzea ezinbestekoa da, baina kontuan izan behar da, bestalde, prozesu osoa asko luzatzen duela horrek", adierazi du Varonak. Salaketa jarri nahi ez duten emakumeen

### Indarkeria matxista kasuak Debagoienean

| Herria | Kasuak |
|---|---|
| Arrasate | 49 |
| Bergara | 47 |
| Eskoriatza | 16 |
| Aretxabaleta | 13 |
| Oñati | 11 |
| Besteak | 73 |
| **GUZTIRA** | **209** |

OHARRA: URTARRILAREN 1ETIK URRIAREN 31RA ARTEKO DATUAK DIRA.
ITURRIA: BERGARAKO ERTZAIN ETXEA.

azalean jartzearen beharra ere nabarmendu du. "Pentsatu behar dugu norbera egoera horretan egongo balitz nola erreakzionatuko lukeen". Horrez gain, azaldu du faktore askok eragiten dutela salaketa jartzeko orduan. Batetik, esan du haien "biktima izaeraz kontziente ez diren emakumeak" asko direla, egoera normalizatu egin dutelako. "Baliteke, horrez gain, nora jo ez jakitea, edo, besterik gabe, gertatuko denaren beldur izatea; ez bakarrik errepresaliengatik, baita familiaren edo ingurukoen erreakzioagatik ere", gehitu du Varonak. Azkenik, adierazi du badaudela instituzioetan konfiantzarik ez duten emakumeak ere. "Ez dute uste polizia edo epaileak haiek babesteko gai izango direnik, edo ezagutzen dituzte eskatu arren instituzioek babestu ez dituzten beste emakume batzuen kasuak ere", azaldu du.

## Beharrak, eskubide

Indarkeria matxista jasan dutenek izaten dituzten bi behar garrantzitsu identifikatu ditu Varonak: babesa eta informazioa. Bi horiek, gaur egun, indarkeria matxista bizi duten emakumeek dituzten eskubideak direla esan du: "Biktima arriskuan dagoen egoeretan, ezinbestekoa da babesa. Horrez gain, bereziki garrantzitsua da emakumeari informazio argia eta egokia helaraztea: zer espero dezakeen prozesu horretatik, zer gertatuko den salatzen badute, zer motatako babesa eskatu dezaketen... Ez da berdina desgaitasunen bat duen pertsona bati azaltzea edo hizkuntza ondo menperatzen ez duen emakume etorkin bati, esaterako". Azkenik, sostengua izatea ere behar-beharrezkoa da, Varonaren ustez: "Prozesu osoan sostengua behar du biktimak, eta hori ere eskubide bezala jasota dago. Mota askotakoa izan daiteke: psikosoziala, juridikoa... Eta ezin dugu ahaztu erreparazioa ere. Biktimak gertatutakoa salatzen duen momentu berean hasi behar du erreparazioak".

## "GARRANTZITSUA DA EMAKUMEARI INFORMAZIO ARGIA ETA EGOKIA HELARAZTEA"



**GEMMA VARONA**
BIKTIMOLOGIAN ADITUA

## "MATXISMOAREN BIKTIMENTZAKO ZERBITZU PUBLIKOAK PRIBATIZATZEN ARI DIRA"



**MONTSE GARCIA**
GUERRERAS ELKARTEA

## Arreta Debagoienean

Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri du indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzeko bulego bat zabalduko duela Arrasaten urte amaieran. Babes psikologikoa eta juridikoa eskainiko die, besteak beste. Horrez gain, erabilgarri dago emakumeentzako arreta zerbitzuko telefonoa ere: 900 84 01 11.

## Azaroaren 25eko mobilizazioak

Debagoieneko herri gehienetan antolatu dituzte elkarretaratzeak eta manifestazioak Azaroaren 25earako, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka. Mobilizazioez gain, herri bakoitzean ekintzak egin dituzte azken asteetan zehar.

- **Arrasate:** 18:00etan, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, Itaiak deituta. 19:00etarako, berriz, Arrasateko Mugimendu Feministak deitu du bilkura, Seber Altube plazan.
- **Bergara:** 18:30erako antolatu dute protesta, Martxanterak talde feministak deituta. Bergarako San Martin plazatik irtengo da manifestazioa, eta Bergarako kaleak hartuko ditu.
- **Oñati:** 19:00etan, Sare Feministak deitutako elkarretaratzea izango da, plazan.
- **Aramaio:** 18:00etan bilduko dira protestarako, Bizente Goikoetxea plazan.
- **Elgeta:** 19:30erako deitu dute elkarretaratzea, Mendizaleen plazan.
- **Antzuola:** Andramanuelak talde feministak deitutako elkarretaratzea izango da, 19:00etan, plazan.
- **Eskoriatza:** 18:30ean egingo dute protesta, Fernando Eskoriatza plazan.
- **Leintz Gatzaga:** Ez da elkarretaratzerik egongo, baina 19:00etako Eskoriatzako elkarretaratzera batzeko autobusa antolatu dute. 18:10ean irtengo da Leintz Gatzagatik.
- **Aretxabaleta:** Herriko Plazan 18:30ean izango da elkarretaratzea, Atxabaltako Mugimendu Feministak deituta.



# "Gizarte berria eraikitzen ari gara, adostasunez"

**ALBERTO ALONSO** GOGORA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Uztailean izendatu zuten Alberto Alonso Gogorako zuzendari (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua). Bergarako Udaleko zinegotzia ere bada

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA

Uztailean, Justizia eta Giza Eskubideen sailburu Maria Jesus San Josek Gogora institutuko zuzendari izendatu zuen Alberto Alonso (Oñati, 1976). Historian lizentziatua da, legebiltzarkide ohia, eta, egun, PSE-EE alderdiko Bergarako Udaleko zinegotzia da.

**Zer moduzkoak izan dira lehen hilabeteak zuzendari karguan?**

Bueno, lehen hilabeteak biziak izaten dira; denbora hori lan guztietan izaten da bizia. Azken finean, langile berriak, edo lantalde berria, ezagutu behar da: bakoitzak zer egiten duen, zer ez duen egiten... Horretan ari gara, ezagutzen. Uste dut fase hori bukatzear dagoela. Hemendik aurrera ehuneko ehuna emateko moduan gaude.

**Zuzendaritza batzordea osatu zenean, ika-mika izan zen, Espainiako indar parapolizialen biktima Pilar Garaialde kanpoan uzteagatik; nola bizi izan zenuen hura?**

Kezkatuta bizi izan dut. Azken finean, gatazka hori Legebiltzarrean zegoen; haiek dituzte konpetentziak. Legeak dio Legebiltzarrak bost aditu aukeratuko dituela. Sei aurkeztu ziren, eta, beraz, batek matematikoki kanpoan gelditu behar zuen. Baina ika-mika hori Legebiltzarrean egon da. Kezkatuta nengoen Gogoraren izena agertu delako, eta ez positiboki. Horrek ez dio onik egiten Gogorari.

**Nola baloratzen dituzu Gogora jaio zenetik memoria demokratikoa babesteko eta transmititzeko emandako aurrerapausoak?**

Bederatzi urte izan dira eta lan handia egin da. Urte hauetan bi lege atera dira; azkenengoa, duela urte eta erdi atera zen Memoria Demokratikoko Legea. Lan hori Gogorak egin du, aholkulari. Alde batetik, uste dut hori oso positiboa izan dela. Bestalde, oinarriak jarri dira; adibidez, errepresio frankistan hildako guztien izenekin datu-banku bat egin da; frankismo osoan espetxeratutako preso guztien izenekin base bat egin-da. Uste dut lan egin dela. Agian, oraindik kuantitatiboki, kualitatiboan sartu gabe. Izenak bakarrik batu dira, nortzuk ziren, baina lan handia da eta uste dut oinarriak hor daudela.


Alberto Alonso, Gogora Institutuko zuzendaria, Arrasaten. GONTZAL BELATEGI

**"ORAIN ARTE, URTE ASKO EMAN DITUGU ELKARREN AURREAN: GUREAK ETA BESTEAK"**

**Zeintzuk izango dira lan-lerroak?**

Lanarekin jarraitzea. Hemendik aurrera ikerketa-plan bereziak egingo ditugu. Orokor bat egiten gabiltza, eta gero, urtero, hortik abiatuta, nolako ikerketak egin erabakiko dugu. Egun dugun lan-lerro handiena frankismoan preso egondakoen eskubideen urraketena da, eta hor jarraitu nahi dugu, horren inguruko ikerketa handiagoak eginez. Adibidez, ez da berdina 1937an gerran zeuden presoak edo 1941ean frankismoaren oinarriak jarrita zeudeneko presoak. Momentuak eta esperientziak ezberdinak dira, baita giza eskubideen urraketak; beraz, ezberdin ikertu beharko ditugu. Ezberdindu egin beharko ditugu garaika eta lurraldeka. Araban, adibidez, matxinatuek oinarri soziala zutelako irabazi zuten. Gipuzkoan gerra 1937an bukatu zen; Bizkaian, geroago. Denboran ere agertoki ezberdinak ditugu. Hori da ikerketarik handiena. Beste alde batetik, LGTBI kolektiboak frankismoan jasotako urraketak jorratu nahi ditugu, lehenengo frankismoan zein frankismo amaieran jasotako urraketak.

**Arrasaten, ordezkaritza duten alderdi guztiek osatutako Memoria eta Bizikidetza Mahaia dago martxan; zer erakusten du horrek?**

Gizarte berri bat eraikitzen ari garela, adostasunez. Orain arte, urte asko eman ditugu elkarren aurrean: gureak eta besteak. Gaur egun, horrelako mahaiak, adostasunez erabakitako inpultso guztiak, gizarte berri bat eraikitzen ari garen isla direla uste dut. Arrasatez gain, Bergaran eta beste herri batzuetan ere badaude, eta esango nuke eredu direla.


Asun Agiriano, saria eskuetan duela, eta Mariasun Landa. KUTXA FUNDAZIOA

## Asun Agirianori aitorpena 57. Donostia Literatura Sarietan

Arrasateko Udal Liburutegiko zuzendariak Ibilbidearen Saria jaso zuen, Donostiako Antzoki Zaharrean

**G.B.Z.** DEBAGOIENA

Zapatuan banatu ziren Kutxa Fundazioak antolatutako 57. Donostia Literatura Sariak. Bertan, Arrasateko Udal Liburutegiko zuzendari Asun Agirianok Ibilbidearen Saria jaso zuen, Euskal Editoreen Elkarteak, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak eta Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak osatutako epaimahaiaren erabakiz.

Mariasun Landa idazleak eman zion saria, Donostiako Antzoki Zaharrean egindako ekitaldian. "Aitorpen hau eta gehiago merezi dituela aldarrikatu nahi dut, haren lan isil eta emankorragatik", adierazi zuen Landak.

**Aitorpena sortzaile eta elkarteei**

"Ofizio hoberik" ezingo zuela aurkitu adierazi zuen Agirianok, eta sariak indarra ematen diola lanean jarraitzeko: "Sari honek sekulako indarra ematen dit lanean kementsu jarraitzeko". Jasotako txaloak eskaini zizkien baldintza prekarioetan dauden eta erakundeen aurrean "euren lana defendatu behar duten sortzaileei eta elkarteei".

## Arizmendiarrietaren Eguna ospatuko dute azaroaren 26an

Azaroaren 26an ospatuko dute Arizmendiarrietaren Eguna. "Haren irudia gogoan izateko eta beraren lanak gaur egun ere balioa izaten jarraitzen duela adierazteko antolatzen dugu eguna", adierazi du Lourdes Idoiagak, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko presidenteak.

Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburu Juan Ignacio Perez Iglesiasek *Kultura, oparotasuna eta demokrazia; zientzia bultzatzen duen hirukote bertutetsua* hitzaldia egingo du, Arizmendiarrietaren Eguna ospatzeko. Gazteleraz egingo du hitzaldia, eta Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan izango da, 18:30ean hasita.

## Enpresen transmisio eta jarraipenaz hausnartzen

Bailara Enpresa Elkarteak *Enpresen transmisioa eta jarraipena* jardunaldia egingo du azaroaren 28an, Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 16:00etan hasita. Aurrez eman behar da izena, *morobengoa@isea.eus* helbidera idatzita.

Negozioa transmititu zein enpresa baten erreleboa hartu nahi dutenei bideratuta egongo da jardunaldia. Hasteko, Bailararen aurkezpena egingo dute. Ostean, Gipuzkoako Merkataritza Ganberako Enpresa Jarraipeneko Zerbitzua aurkeztuko dute, eta, jarraian, *Geroa bermatuz* ekimena aurkeztuko dute. Kasu praktiko batekin emango diote amaiera.

**DATUETATIK TIRAKA**: SEXU TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK

# Ohikoenak izaten diren infekzioek gora egin dute

Sifilisa, klamidia, gonorrea eta 2 motako herpes sinplea gorantza bidean doaz Euskal Autonomia Erkidegoan. Ustea da horren arrazoia dela horiei beldurra galduz joan dela. Bestalde, GIBa egonkortuz joan da urteetan zehar eta hiesa nabarmen jaitsi da

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA

Azken urteetan, ohikoenak diren sexu-transmisiozko infekzioen goranzko joera kezkagarria gertatzen dabil euskal gizartean. Hori da, adibidez, sifilisaren, klamidiaren, gonorrearen eta 2 motatako herpes sinplearen kasua. Osakidetzak ateratako *Osasun publikoko zaintzaren emaitzen txostena 2023*-ren arabera, gaixotasun guztiek egin zuten gora 2017tik 2023ra bitartean.

Euskal Herriko Unibertsitateko Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saileko irakasle Miren Basarasen arabera, goranzko joera horren arrazoia infekzio horiei beldurra galtzea da: "Uste dut igoera horiek, gehienetan, gaixotasun horiei beldurra galdu diegulako gertatzen direla. Hor dauden gaixotasunak dira, baina arazo askorik ez dutela ematen uste dugu, eta ez ditugu horiek saihesteko nahikoa babes neurri hartzen. Kezkatzeko moduko zerbait da".

Basarasek gaineratu du emandako datuak ez direla benetakoak, eta kasu gehiago izan daitezkeela, sintomak agertzen ez diren kasuetan ez direlako begiratzen, nahiz eta infekzioa hor egon.

**Ondorioak eta sintomak**

Basarasen arabera, infekzioek hainbat kalte eragiten dituzte; bereziki, genitaletan. "Gonorreak eta klamidiak, esaterako, uretrako edo zerbixeko inflamazioa dakartzate, eta uretritisa edo zerbizitisa sortu. Sifilisaren kasuan, inflamatu egiten diren lesioak agertzen dira, garuen itxura hartzen dutenak. Batzuetan, gorputz osora zabaltzen dira, eta bestelako sintomak batzuk ere sortu. Herpes sinpleak, berriz, ezpainetan agertzen diren modukoak dira, baina, kasu horretan, genitaletan ditugu".

## EAE-ko datuak

| Sexu-transmisiozko infekzioak | 2017 | 2022 |
|---|---|---|
| Sifilisa | 207 | 284 |
| Klamidia | 1314 | 2260 |
| Gonorrea | 455 | 1416 |
| 2 motako herpes sinplea | 299 | 409 |

ITURRIA: OSASUN PUBLIKOKO ZAINTZAREN EMAITZEN TXOSTENA 2023, OSASUN SAILA

## GIBa eta hiesa ez dira berdinak

Infekzio entzutetsuenetako bat giza immunoeskasiaren birusa da. EAEn atzean geratu dira 1997an antzemandako 229 kasuak. 2010eko hamarkadan datuak egonkortzen joan ziren, 150 kasuren bueltan. "Penaz bizi dut hau. Badirudi hori normaltzat eman dugula" dio Joseba Errekaldek, Harribeltza elkarteko kideak. COVID-19aren eraginez datuak hobetu egin ziren –105 infekzio 2020an–, baina pandemia ostean goranzko joera gertatu da, lehengo datuekin parekatzera bidean –134 infekzio 2023an–.

Errekaldek dio GIBa ez dela nahastu behar hartutako immunoeskasiaren sindromearekin: "GIBaren zeregina gu defentsa gabe uztea da. Hor gaixotu egin daiteke pertsona, eta, behin gaixotuta, hiesdun bilakatu". Hiesaren datuak nabarmen hobetu dira, 94an 533 kasu atzematetik aurreko urtean 16 atzematera pasata.



## ZABALIK



MIKEL LEZAMIZ

# Industria Iraultza 5.0

Industriaren garapenak hainbat iraultza bizi izan ditu, historian zehar, XVIII. mendetik hona.

Lehen iraultza (1.0): lurrun-makinek ekarri zuten, eta ehungintzan garatu zen; eskulanetik makinekin produzitzera.

Bigarren iraultza (2.0): muntaia-lineak masiboki ekoizteko, telegrafoa eta telefonoa izan ziren modan.

Hirugarren iraultza (3.0): digitalizazioa, ordenagailuak eta automatizazioa Internetekin batera izan ziren eta izaten ari dira gure bizitza astindu dutenak, industriaren garapenerako.

Laugarren iraultza (4.0): robotika-sistemak, Internet eta *big data* –datu masiboen erabilera, prozesuak hobetzeko–, telefono mugikor adimendunak, 3D inpresioa eta abar.

Bosgarren iraultza (5.0): laugarrena hobetzea, teknologia berriak eta adimen artifiziala erabilita, pertsonak ahalduntzeko makinen eta pertsonen arteko hibridazioa lortuz, langileen eta makinen arteko elkarlana hobetuz, balio soziala handitzeko irabazien gainetik. Ongizate pertsonala eta anbientala irabazien gainetik jarriz. Estresa eta esfortzuak gutxitzea teknologia berriak erabiliz. Pertsonek eta ekologiak garrantzi handiagoa izango dute.

**UGAZABAK ETA KAPITAL-ENPRESAK EZ DIRA KONTURATU MUNDU BERRI BATEN AURREAN GAUDELA**

Trantsizio hori hiru esparrutan egiten ari da: pertsonen lana leuntzea eta erraztea, digitalizazioa eta planeta berdeagoa. Pertsonak eta planeta aurretik jarriz. Produktibitatea gehituz, talentua erakarriz eta enpresa erresilienteagoa eginez.

Baina Industria 5.0 horrek hezkuntza eta formakuntza handiagoa eskatzen du langileentzat, eta, lanpostu atseginagoak sortzeko, enpresek aldatu egin beharko dute, talentua mantendu nahi baldin badute eta berria erakarri.

Arazo nagusia da enpresen ugazabak eta kapital-enpresa asko ez direla oraindik konturatu mundu berri baten aurrean gaudela eta langileek, herrialde garatuetan, behintzat, pertsona baloratzea nahi dutela, oreka bat eskatuz pertsonengan, eta ongizatean inbertitzea, enpresari bere lana eta jakintza eman behar baldin badio. Gai honetan kooperatibetan aurretik goaz, oinarrizko balioetan pertsonaren eta gizartearen ongizatea balantza berean jartzen baitira emaitzekin, enpresa eta proiektu sostengarria egin nahi baldin badugu.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Lukurreriaren kontra

MIKEL ELORZA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/ZJL6Q

Familia, ondorengotza eta jabego pribatua dira gure egitura zibilen ardatz, eta horien gainean dago eraikia sistema, merkatua zutarri duela. Baina hala ere, lukurreria betidanik izan da gaitzetsia. Mailegu bategatik gehiegizko korrituak kobratzea, interes abusuzko eta desproportzionatuak kobratzea *bekatu* eta are delitu ere kontsideratu izan da. Eta ez gure jendartea berdinzalea izan delako, pobreak eta pobreagoak beti izan dira, ezpada pobreegiak izatea ere merkatuaren kontra doalako. Baina aspaldian libertatea berdintasunaren edo elkartasunaren antonimo gisa garatzen ari gara, osagai gisa garatu beharrean, eta askatasunaren printzipio ustel hau jendartea blaitzen ari den heinean (norberak nahi duena egiteko askatasun jainkotua, supremazismo indibiduala baino ez dena), askatasunari mugak jartzea bekatu mortala da, larriena, egin ezin dena.

Baina ahal da. Eta lukurreriaren aurkako neurriak –hala Espainian nola Frantzian legeak daude propio usura arautuz– dauden bezala, bestelako diru-praktika gehiegizko, abusuzko, desproportzionatuen aurka ere hartu beharko lirateke neurriak. Alokairuetan, adibidez.

Izan ere, ez al da lukurreria etxebizitza baten alokairuagatik 1.000 euroko errenta kobratzea? Diotenez ez, ez da lukurreria, merkatua da. Izan ere, MediaMarkt aroan bizi gara eta inportanteena da ergela ez izatea, eta 1.000 euro kobratu baditzakezu nolatan kobratuko dituzu 500 nahiz eta diru hori beharrezkoa ez duzun? Ergelarena egiten ariko zinateke! Eta bai, funts putreek eta jabe oso handiek-eta ergelarena planteatu ere ez dute egiten, negozioarena baizik... [...]

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.
**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube, Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

### Genero indarkeria: 20 urte igaro eta gero, hau

**ANDONI LARRAÑAGA**
BERGARA

Ertzaina izan naiz 30 urtean; horietatik asko, etxe- eta genero-indarkeriak eragindako biktimekin lanean.

Gogoratzen dut nola hasi ginen, 2003ko udazkenean, baldintza guztiz tamalgarrietan, gaur egun sinestezinak diruditen lege eta baldintzekin, eta zelako itxaropenarekin hartu genuen 2004/1 legea: Genero Indarkeriaren Biktimak Babesteko legea.

Nik uste nuen pare bat belaunalditan, 40-50 urtetan, genero indarkeriaren arazoa ia konponduta izango genuela –gizarte bezala, diot–. Hogei urte pasa dira eta gaur egungo nire iritzia beste hau da, ordea: ez gara ari –gizarte bezala, berriro ere– borroka hori irabazten. Ez goaz aurrera. Eta hori atzera joatea bezala da.

Gero eta kasu gehiago azaltzen dira, eta gero eta larriagoak. Erakundeetatik ematen den erantzuna nahiko ona da, nahiz eta beti egon zerbait hobetu beharra.

Biktimek ez dituzte beti aurkitzen beharko luketen harrera eta dagokien laguntza eta jarraipena. Erakundeek ez dute ez bihotzik ez enpatiarik, baina bertako langileek bai, eta langile horiek gehiegitan daude gainezka, nekatuta eta erreta.

Epaitegietako, abokatuen elkargoetako, ertzain-etxeetako, gizarte zerbitzuetako, Osakidetzako, ikastetxeetako eta abarreko langileek nekez egin dezakete gehiago eta hobeto. Langile eta bitarteko gehiago behar dira.

Baina hori arazoaren alde bat besterik ez da. Hau da, nola aurre egin agertzen diren kasuei.

Nire ustez, arazoak beste alde garrantzitsu bat dauka: kasu gehiago ez gertatzea lortzea; edo askoz gutxiago, behintzat. Nola? Gizartean mentalitate aldaketa bat eraginez, gizonezkoen eta emakumezkoen artean legezko eta benetako eskubide berdintasuna lortuz eta edonori errespetua zor zaiola zabalduz. Eta hor hankamotz gabiltzala uste dut.

Erakundeetatik egiten den ia guztia emakumeei zuzenduta dago eta beharrezkoa da. Horrek gizartearen erdi bati bakarrik eragiten dio. Eta beste erdiari? Ba, dirudienez, gizartearen beste erdiaren mentalitatean aldaketa eraginkorra lortzeko ez da askorik egiten. Edo, zoritxarrez, gutxi egiten da ondo.

Gizonezko gehiegik gauza bera diote; bereziki, gazteek: erasotuak sentitzen direla. Hasteko, erruduntzat hartzen dituztela, edo ustezko errugabeak. Besterik gabe, gizonezkoak izateagatik. Hori egia bada, ez dugu aldaketarik lortuko. Errudunak gizonezkoen ezta %1 ere ez dira. Gehiegi, denak ezagutzen badituzu, baina oso gutxi gizarte oso batentzat.

Gizartearen erdi horretan aliatuak lortu beharrean, etsaiak edo jarrera *pasota* duten gizonezkoak sortzen bagabiltza, ez goaz inora, eta, are gutxiago, bideojoko biolentoak eta pornoa hain gertu daudela kontuan hartuta.

Biktimek hasieratik jaso behar dute beharrezkoa duten laguntza eta babesa, eta erasotzaileek, epaituak izan ostean, dagozkien zigorrak.

%1 baino gutxiago dira. Ezin dute irabazi. Hobeto egin dezakegu. Hobeto egin behar dugu.

### Lantokietan aske izateko, hemen erabaki!

**ANA SEBAL AGIRREGABIRIA**
LAB SINDIKATUA
BERGARA

Lantokietako indarkeria matxista ezkutuan dagoen errealitatea da: lanik gabe geratzeko mehatxua beti dago horren atzean, eta, beraz, indarkeria ez da behar bezala salatzen edo adierazten. Mehatxuak eta zigorrak askotarikoak dira: kaleratzeak, ordutegi-aldaketak, kontziliazio-neurririk ez onartzea, lanpostuz inoiz ez aldatzea, lekualdatzeak, lana edukiz hustea, emakumeen lana gutxiestea*... Indarkeria matxista neurri eta aurpegi desberdinetako zigorren sistema oso bat da; sistema heteropatriarkal kapitalistaren egiturazkoa, eta tresna, emakumeak menpean edukitzeko*.

Lan-munduan gertatzen den indarkeriatzat hartzen da sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edo sexu-orientazioagatiko, identitateagatiko edo genero-adierazpenagatiko jazarpena; hau da, kultura patriarkalaren biziraupen-mekanismoek hartzen dituzten formak.

-Azken urtean, 22.000 emakume* inguruk jasan dute sexu-jazarpena lan-esparruan, Emakundek argitaratutako *Emakumeen aurkako indarkeriak EAEn duen eraginari buruzko datuak* inkestako datuen arabera –kasu batzuetan, lankideengandik; beste batzuetan, nagusiarengandik–.

-Sexu-jazarpena jasan duten 5 emakumetik* batek lan-eremuan jasan du.

-Hala ere, horietako askok (%72,4) ez dute enpresan salatu, ondorioen beldur direlako.

Eta non daude erakundeak egoera horren aurrean? Gertatzen den indarkeria hori agerian ez jartzea, tresna eraginkorrik ez jartzea, indarkeria hori ezkutatzea da. Izan ere, ez dago datu horiei buruzko erregistrorik, ez zaie jarraipenik egiten, ez dira agertzen indarkeria matxistari buruzko inkesta orokorretan...

Enpresek, administrazioak eta lan-ikuskaritzak ez dute errealitate horri heltzeko borondaterik eta jarrerarik. Datuak argiak dira: ez dago mekanismo edo tresna eraginkorrik egoera horiek salatzeko.

Erakundeei, eta, zehazki, lan-ikuskaritzari, indarkeria matxistari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko eskatzen die LABek. Esaten dugu jarrera, uste eta indarkeria matxista guztiei aurre egin nahi diegula lantokietan aske izan nahi dugula aldarrikatzen dugunean, eta azpimarratu nahi dugu borroka honetan sindikalismotik fronte guztietan jarraituko dugula.

### Dan-ba-ka!

**JON FERNANDEZ**
EIBAR

A ze oparia den Danbaka Musika Lehiaketa musikariendako eta musikazaleendako. Eta a ze antolakuntza dagoen horren guztiaren atzean. Itzela.

Inbidia puntua ere izan nuen: izango ote dugu egunean batean Eibarren halakorik? Taldeak ez dira falta, ezta musikazaleak ere.

Zorionak Goienari, hain produktu duin eta zirraragarria egitearren.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## TXOKOTIK ZABALERA

**UNAI GAZTELUMENDI**





Udalako hainbat bizilagun, goiko aparkalekuan, autobus geltokian, GOIENArekin asteon egindako hitzorduan. E.A.B.



Hainbat auto, Udala auzoan, bide bazterrean aparkatuta. UDALAKO BIZILAGUNAK

## Autoak, bide bazterrean aparkatuta

Udala auzoak bisitari asko hartzen ditu urte osoan, izan mendira joateko zein goiko bi jatetxeetara joateko. Horrek trafiko handia sortzen du inguru hartan, eta, gainera, aparkaleku faltagatik, bide bazterrean aparkatzen dituzte autoak, eta eragozpenak sortu.

# Soluzio errealak eskatu dituzte

Udala auzoko bizilagunek "konponbide estrukturalak" eskatu dituzte, "auzoak jasaten duen autoen masifikazioagatik"; auzo-alkaterik ez dutenez, bizilagun talde bat elkartu da, dituzten kexak Udal Gobernuari helarazteaz gain, hainbat eskaera egiteko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Gauza jakina da azkenaldi luzean Udala auzoa jasaten ari den autoen masifikazioa; nagusiki, udan baina, oro har, urte osoan. Urteak joan urteak etorri, "geroz eta larriagoa den arazo" bilakatzen ari da hainbat auzotarrentzat, eta, ondorioz, "konponbide estrukturalak" eskatu dizkiote Arrasateko Udal Gobernuari. "Urtebete daramagu auzo-alkate barik, Arrasateko Udalak hala erabaki duelako eta adostasunik lortzen ez dugulako. Ondorioz, auzotarrok talde bat sortu dugu, gure eskakizunak egiteko", azaldu du Mirari Plazaolak, Udalako auzotarrak.

Haien salaketetako bat da duela 17 urte egin zutela auzoa urbanizatzeko plana, eta oraindik ez dutela gauzatu. "Familia bakoitzak 4.000 euro ordaindu genituen eta oraindik ez dugu soluzio errealik ikusten. Aparkalekuak eta autobus geltokia margotu zituzten, baina hori adabaki bat besterik ez da, ez du egoera errotik konpontzen. Guk gura duguna da auzoak jasaten duen auto masifikazioa gutxitzea", azaldu du Koldo Zubiak, bizilagunetako batek.

Autoek auzoan hainbat arazo sortzen dituztela diote: "Berdeguneen okupazioa, mendi bideen sarbideen okupazioa, baserriko lanak askatasunez egiteko ezintasuna, nekazaritzako makineria erabiltzeko zailtasunak, etxebizitzetarako sarbideak oztopatzea, errepidearen okupazioaren ondorioz sortutako arriskuak eta abar". Testuinguru horretan, urriaren 25ean, Udala beheko auzoan auto batek auzokide bat harrapatu zuela deitoratu dute.

Autobus geltokiari dagokionez, zera dio Zubiak: "Geltokia margotu digute lurrean, baina aparkalekuak oso gertu daude, eta, autobusa hor badago, ez dago pasatzeko lekurik. Izan ere, badago kartel bat aparkatzea debekatzen duena autobus zerbitzua dagoenean. Baina zerbitzurik ez dagoenean ere, autobus pribatuak etortzen dira eta hor aparkatzen dute".

Aparkalekuan ez ezik, etxe atarietan ere izaten dituzte arazoak, autoek "edozein lekutan" aparkatzen baitute. "Guk traktoreak ditugu, eta, batzuetan, kamioiak ere etortzen zaizkigu etxera. Beraz, autoak etxe atarietan aparkatzen badizkigute, arazo handiak izaten ditugu etxean sartu eta irteteko. Uste dugu hemen bizi garenontzat espazio bat bermatu beharko litzatekeela, aparkalekuak molestatzen ez duen leku batean eginda. Azken batean, hona datozenak eguna pasatzera datoz, baina gu hemen bizi gara. Ez dugu eskatzen aparkalekuak kentzea, baizik eta gure espazioa errespetatzea eta lasai bizi ahal izatea", adierazi du Zubiak.

**Udal Gobernuarekin haserre**

Auzotarrek "haserre eta minduta" daudela azpimarratu dute, "Udal Gobernuak auzoarekiko duen goitik beherako harreman eta jarrera pasiboagatik", eta zera gaineratu dute: "Udala auzoa landa eremua eta natura gunea da eta Udalatx babestutako eremu definitzen duzue, eta ez dugu ulertzen zein arrazoi dauden tarteko auzoko egoeraren aurrean soluzio estrukturalak ez inplementatzeko. Ez dugu beste urte bat pasa nahi egoera honetan. Konponbideak behar

SEXU-TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK

'DATUETATIK TIRAKA' SAIOAN

AZAROAREN 22AN, EGUBAKOITZA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN.

TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena“ Zu hemen zaude.





Udalako auzotarrak, azaroaren 5eko osoko bilkuran. E.A.B.

## Azaroko osoko bilkuran izan ziren

Azaroaren 5eko ohiko osoko bilkuran izan ziren Udalako auzotarrak, haien kexak eta ezinegona adierazten, eta Aitor Murgoitiok hartu zuen berba, bizilagunen izenean. Nabarmendu zuenez, ez dute etsiko auzoan duten egoera konpondu arte.

ditugu lehenbailehen. Izan ere, honek ez du bizikidetzan laguntzen, eta auzoaren, udaltzainen eta Udalaren arteko tentsioa handitzea besterik ez dakar", aldarrikatu dute.

### Udal Gobernua lanean ari da

Udal Gobernuak dio dagoeneko esleitu dituela goiko auzoan autoentzako aparkaleku gehigarri bat egiteko proiektua idatzi ahal izateko aurretiazko lanak. Zehazki, proiektua idazteko beharrezkoak diren azterketak egitea da esleitu dutena, azterketa topografikoa eta abar. "Ari gara lanean. Diru kantitate esanguratsuak egongo dira proiektu hori gauzatzeko, eta, Gobernu Planean daukagun moduan, datorren urtean gauzatzera goaz", adierazi du Kepa Urteagak, Arrasateko Udaleko Obrak, Mantentzea eta Zerbitzuak Saileko zinegotziak. Hala, 2025eko udal aurrekontuan proiektua idazteko eta obrak egiteko partida bat jasoko dute. "Helburua da, behin proiektua idatzita eta haren aurrekontua zehaztuta, datorren urte amaieran obrak abiaraztea". Hori dela eta, Udal Gobernuak 2026rako aurreikusten du "Udala auzoko aparkalekuaren afera desblokeatzea".

**UDAL GOBERNUAK DIO DATORREN URTE AMAIERAN HASIKO DIRELA GOIKO AUZOA URBANIZATZEN**

### "Informazio zehatza" gura dute

Horren aurrean, auzotarrek proiektuaren gaineko "informazio zehatza" edukitzea eskatu dute, baita "konponbide estrukturalak" ere. "Hori guztia exekutatzen den bitartean, neurri konkretuak behar ditugu, estrukturalak izango direnak. Udako asteburuetan autobusak jartzea ondo dago, baina, horretaz haratago, auzoa babes barik geratzen da urteko beste egun askotako masifikazio egoeretan", gaitzetsi du Eider Murgoitiok, Udalako bizilagunak.

Era berean, neurri horiek Mugikortasun Planean txertatzea ere eskatu dute Udalako bizilagunek. "Beldur gara Mugikortasun Planak Udalako egungo egoera aintzat hartu ezean soluziorik ez ote den etorriko".

### Aldundiarekin negoziatzen

Azkenik, Udalara doan errepideak ere konponketa beharra du, baina Gipuzkoako Foru Aldundiarena da gaur egun. "Guk Udalabide proiektua aurkeztu genuen eta hori Aldundiaren mahai gainean dago. Komunikatu digutenez, hainbat konponketaren truke jabetza hori eskuz aldatzeko prest egongo litzateke, baina oraindik negoziatzen ari gara. Egiari zor, uste dugu negoziaketak bide onetik doazela, baina ezin dugu ezer ziurrik esan", bukatu du Urteagak.

## 17 Emakume kalea da jada

Ekitaldi xume batekin jarri dute kaleari izen berria ematen dion plaka. 1969an Auzo Lagun enpresa sortu zuten hamazazpi emakumeei egiten die aitortza izenak, "frankismo garaian emakumeen ekintzailetza, ahalduntzea eta eskubideak borrokatu izanagatik". Esker onez jaso dute omenaldia horietako bik: Maria Dolores Albisuak eta Mertxe Mogilinckik.



GOIENA



# Zalduspek botoen %74,2 jaso ditu herri galdeketan

4.268 herritarrek hartu dute parte autobus geltokiaren kokapenari buruzko herri galdeketan; hau da, hautesle erroldaren %21,86k. Emaitzari dagokionez, botoa eman dutenen %74,2k Zalduspeko kokapena aukeratu dute, eta %25,8k, aldiz, Laubidekoa



Astelehenean zenbatu zituzten botoak, osoko bilkuren aretoan. JONE ARRUABARRENA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Astelehenean ireki zituzten autobus geltokiaren kokapena erabakitzeko astebetez BAZen izan diren hautetsontziak. Alderdi guztiek ordezkaritza duten Hirigintza batzorde berezia deitu zuten horretarako, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

4.268 arrasatearrek parte hartu dute geltokiaren kokapena aukeratzeko galdetegian; hautesle erroldaren %21,86k, hain zuzen. Botoei erreparatuta, 3.159 jaso ditu Zalduspek eta 1.102, aldiz, Laubidek. Halaber, bi boto zuri eta bost baliogabe izan dira.

Udal Gobernuak esker mezuak izan ditu botoa eman duten herritar guztientzat. "Prozesua garbia izan da eta hausnarketa eta debatea sustatzeko balio izan du", dio Garazi Etxeberriak, Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasun zinegotziak.

Gutxieneko bi baldintza zeuden galdeketa "politikoki loteslea" izateko: %30eko gutxieneko parte-hartzea eta bi aukeren artean %10eko aldea egotea. Azken hori

**GELTOKIA ZALDUSPEN EGITEKO, HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA ALDATU BEHARKO DA**

bete bada ere, lehen baldintzak ez du gutxieneko langa gainditu. "Zortzi puntu eskasengatik ez da gutxieneko parte-hartzea bete", nabarmendu du Etxeberriak.

Ondorioz, erabakia udalbatzan ordezkaritza duten alderdi guztien artean hartuko dutela azaldu dute. "Positiboki baloratzen dugu alderdi guztiak kokapen beraren alde agertu izana eta herritarren aldetik ere gehiengoz kokapen hori babestea".

### Orain, proiektua bideratzera

Beraz, erabakitzat jo dute geltokiaren kokapena. "Behin kokapena erabakita, proiektua bideratzea izango da hurrengo urratsa. Geltokiaren eraikin duina eraikitzeko proiektua bideratzen hasi behar dugu orain. Horretarako, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatu egin behar da, lehenik eta behin, eta, ondoren, proiektuarekin hasi. Prozesua luzea izango da, eta baliteke bi edo hiru urteko epea behar izatea autobus geltoki berria eraikitzen hasteko", adierazi dute udal ordezkariek.

### Jeltzaleak eta sozialistak, pozik

EAJk nabarmendu du emaitza horrek haien erabakia berresten duela. "Zalduspe da autobus geltokirako kokapen onena, herritarrei eta udalerriari onura gehien eskaintzen dien lekua delako. Kontsulta honek legitimatzen du guk 2019an hartu genuen erabakia, EH Bilduk Laubide proiektua alternatiba gisa bultzatu zuenean. Orain, herritarrek gehiengoz babestu dute Zalduspe, eta urte hauetan guk defendatutako jarrera sendotu".

Arrasateko PSE-EE, era berean, pozik dago galdeketak utzitako emaitzarekin, eta 2015a ezkero Zalduspeko aukera babestu dutela gaineratu dute: "Gure udalerrirako aukerarik onena da. Jasangarriena, irisgarriena eta, hiri-integrazioaren ikuspegitik, onena. Azken batean, herritarren beharrak betetzen dituen irtenbide modernoa da".

Udal Gobernuak "desinformazioa ekiditeko" eskatu dio oposizioari (Ikus *Goiena.eus*).


DEBAGOIENEKO
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.


NIRE USTEZ



**DJAMILA ZEREIBY**

## Integrazioarekin daukagun erronka

Frustrazioa eta tristura eragiten dizkidate IMME elkarteak, oro har, izan ohi dituen zailtasunek. Kolektibo horren parte naizen heinean, kultura eta tradizio ezberdinen arteko elkarrizketa eraikitzaileak sustatzen ditugu, baina trabak besterik ez dugu aurkitzen. Emakume guztien inklusioa eta ongizatea baino ez dugu nahi, zubiak eraikiz eta enpatia eta errespetua sustatuz.

Nire desira zera da: aniztasun kulturala funtsezko balio gisa aitortzea, gure komunitatea indartzen duen balio gisa. Izan ere, desberdintasunak ezin daitezke banaketaren arrazoi izan, ikasketarako erreminta baizik. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da eragile guztien ulermena, konpromisoa eta babesa.

Integrazioa ez da emakume musulmanon helburua bakarrik, baizik eta guztiondako onura bat. Izan ere, batuta dagoen komunitate bat indartsuagoa da. Beraz, inklusioa oinarri, elkarrizketa irekiak izateko espazioak sortu behar ditugu, etorkizun bateratua sortzeko. Eskerrik asko, aldez aurretik, borroka horren parte zareten guztiei. Integrazioa elkarren eskutik egiten den bidea da eta ziur naiz lortuko dugula.

A25

# Indarkeria matxistari "gaitzespen irmoa"

"Emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka" dago Arrasateko Udala. Gainera, jakinarazi dute diskurtso horien aurrean, eta behin betiko desagertzeko asmoz, "hainbat konpromiso" hartuko dituztela

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan, Arrasateko Udalak "gaitzespen irmoa" adierazi du "indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean", eta mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin "lan egiten jarraitzeko konpromisoa" berretsi du. Aurten, arreta jarri nahi izan dute "emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan", eta adierazi "ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen direla". Gainera, "mutil eta gizon gazteengan eta, bereziki, eremu digitalean" hazten ari den "joera neomatxista" ere salatu gura izan dute. Hala, Udaletik azaldu dute emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten dietela "gizarteak egiturazko arazo bat duela", eta, horrekin lotuta, Udalak zenbait konpromiso hartuko dituela jakinarazi du; besteak beste, "herrian euste-horma kolektiboa aktibatzea, gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea eta Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko".



Gladys Fernandez, Eva Abuin, Johanna Sanchez eta Maitane Muñoz. ARRASATEKO UDALA

Era berean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan, Arrasaten egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak –12:00etan, Herriko Plazan, Ikamak eta Gazte feministak deituta, eta 19:00etan Seber Altuben, mugimendu feministak deituta–.

**Beste hainbat ekintza**

Azaroaren 28an, *Casarse por papeles es verdadero amor* antzerki kabareta izango da Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan hasita, eta hilaren 30ean, berriz, tailer bat egingo dute Emakume Txokoan, 10:00etatik 13:00etara bitartean, "indarkeria matxistaz gogoeta egiteko eta elkarrekin eztabaidatzeko aukera" emango duena: *Indarkeria Matxista: defentsa eta salaketa aukerak*.

## Zapore gazi-gozoarekin bukatu du garbiketa Erreka Batzordeak

"Lagun asko" batu eta "zabor ugari" atera arren, "puntu beltzak" daudela adierazi du batzordeak

**J.M.M.** ARRASATE

Oro har, urriaren 19an egindako erreka garbiketa ontzat jo du Arrasateko Erreka Batzordeak. "Lagun asko batu ginen eta zabor ugari atera genuen denon artean errekatik. Gainera, herrien artean antolatzeko izan dugun gaitasuna azpimarratu nahi dugu; izan ere, Debagoieneko herri gehienetan ekintza arrakastaz gauzatu ahal izan dugu, denok egun berean errekara begira jarrita. Horrez gainera, egitarau bateratua antolatu dugu, askotariko hitzaldi, irteera eta ekimenekin", nabarmendu dute.



Erreka garbitzen, Arrasaten. GOIENA

Hala ere, balorazio positiboak baditu alde ilunak ere, batzordekoek esan dutenez: "Azken urteetako esperientziatik, esan dezakegu Arrasaten oraindik ere badaudela zabor asko pilatzen diren erreka zatiak, puntu beltzak deritzegunak", eta egoera konpontzeko baliabideak jartzeko eskatu diote Arrasateko Udalari; esaterako, "errekara zabor gutxiago jausteko sareak jar ditzala ahal den eremuetan, eta haren ardura duten establezimenduekin hitz egin dezala".

## Bi hitzaldi egingo ditu AmaiDolua elkarteak urtea bukatu aurretik

Urte amaierara bitartean bi hitzaldi gehiago egingo dituela iragarri du AmaiDolua elkarteak: alde batetik, azaroaren 26an, 18:00etan hasita, Manex Beristainek Mirari Sagarzazurekin batera kaleratutako azken liburuaren aurkezpena egingo du: *Azken galdera amari*. Helduei zein haurrei zuzendutako aurkezpen hitzaldia da, eta Kulturateko areto nagusian egingo dute. Elkartetik adierazi dutenez, "haurrak gurasoekin etortzea komeni" da. Bestalde, jakinarazi dute Gabonetako hitzaldia ere egingo dutela. Abenduaren 17an izango da, 18:00etan hasita, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, eta *Etxean norbait falta denean* izenburupean gauzatuko dute. Elkarteko lehendakari Maite Urzain izango da hizlaria, eta hitzaldiaren ostean ekintza musikatu bat egingo dutela iragarri du AmaiDolua elkarteak.



# 20 urteren ostean, 'El huésped del sevillano'

Bi hamarkada igaro eta gero, Amaia antzokiko oholtza gainean 'El huésped del sevillano' zarzuela antzeztuko dute ostera ere. Eta orduan egondako antzezle gutxi batzuk lanean izango dira asteburuan. Gaurko sarrera guztiak agortuta daude (20:00)

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Dena dago gertu asteburuan Izaskun Murgia Elkarte Liriko lagunek Jacinto Guerreroren *El huésped del sevillano* zarzuela antzez dezaten. Apirilean hasi ziren lana prestatzen, eta, obran parte hartzen duten lagun gehienek hutsetik hasi behar izan bazuten ere, gutxi batzuek *freskatze* lana egin dute, 2004an ere obra hori eskaini zuten-eta oholtza berean. Mikel Izurrategi bakarlaria da euretako bat: "Hogei urte ez dira alferrik pasatzen; obra ez dakit aldatu den, baina gu bai [Barre]. Gainera, nire pertsonaia oso dinamikoa da, asko mugitzen da, eta konturatzen naiz nekatuago amaitzen dudala emanaldia. Baina orduko ilusioarekin jarraitzen dugu".



Eguaztenean egin zuten azken entseguko irudia. J.MURUA

**Antzokia bete egingo da**

Duela bi hamarkada gertatu zen moduan, asteburuan bete egingo da Amaia antzokia –aste barruan sarrera gutxi batzuk geratzen ziren–. "Eskertuta egon behar dugu, ikustekoa da-eta jendeak zelan erantzuten duen. Egia da publiko nagusiak ez duela kalerik egiten; haiek fidelak dira. Baina jende gaztea ere etortzen da, eta poztekoa da. Egia da Arrasaten beti egon dela zarzuelarako joera; lehenago ere egon zen beste talde bat, eta kultura hori barneratuta daukate herritarrek".

**Entseguak, oso ondo**

Emanaldiko musika zuzendari Cristina Cubillok eguazteneko entseguan –egin duten azkena– nabarmendu zuen apiriletik hona egin dituzten entseguak oso ondo joan direla. "Koruak lan polita egin du eta bakarlariak ere ikusgarri daude, sekulako lana egin dute. Sopranoendako eta tenorrendako lan zorrotza eskatzen du obra horrek, eta teknikoki zaila dela esango nuke. Gainontzeko musikariendako ez da zarzuelarik zailena, baina lan ona egin dute denek. Batzuetan, zailtasuna egoten da eszenan gertatzen den hori musikarekin bateratzen".

**GAURKO SARRERAK AGORTUTA DAUDE; GUTXI GERATZEN DIRA BIHARKO ETA ETZIKO (19:30)**



**CRISTINA CUBILLO**
MUSIKA-ZUZENDARIA

"Apirilean hasi ginen obra prestatzen, eta entseguak ondo joan dira. Koruak lan handia egin du, eta bakarlariak ikusgarri daudela esango nuke"



**MARIA IZAGA AGIRRE**
BAKARLARIA

"Obra horrek ikuslea Toledora eramaten du; hango hostal batean ezaguna den ostalari batek hiriko pasarteak kontatzen ditu".



**MIKEL IZURRATEGI**
BAKARLARIA

"Duela hogei urte ere obra hori antzeztu genuen Arrasaten, eta igarri egiten dut denbora aurrera doala. Baina ilusioz gabiltza, eta hori da garrantzitsuena".

# "Zapore gozoaz hasi nahi dugu Euskaraldia, hilaren 29an"

**UXUE SANPEDRO** EUSKARALDIAREN DINAMIZATZAILEA
Datorren egubakoitzeko ekitaldia prestatzen dabil

**X.U. Arrasate**

Euskal ikasketak amaitu berri, Uxue Sanpedro (Arrasate, 2003) dabil Arrasateko Euskaraldia dinamizatzen. Hilaren 29an Seber Altuben egingo duten Gozaldian jarri du arreta.



Uxue Sanpedro.

**Zer moduz dinamizatzaile lanetan?**

Oso gustura; ilusio handiz nabil. Orain arte, hainbat herri mugimendutan ibili naiz, eta hau ere lan oso herrikoia da; jende asko ari naiz ezagutzen. Pozik nabil.

**2025eko maiatzaren 15etik 25era izango da laugarren Euskaraldia, baina datorren egubakoitzean hasiko zarete motorrak berotzen, hilaren 29an.**

Halaxe da. Gozaldia Eguna prestatzen ari gara. Euskal Herriko gainontzeko herrietan azaroaren 30ean ospatuko dute egun hori, baina guk Gozaldia egubakoitzera aurreratzea erabaki dugu, zapatuan bestela ere Arrasaten gauza mordoa egongo direlako.

**Zer zabiltzate prestatzen datorren egubakoitzerako?**

Gozaldia izena duenez, pentsatu dugu egubakoitz arratsaldea zapore gozoz hastea; gozoekin lotu dugu izena. Hala, herriko hainbat gozogile gonbidatu ditugu Seber Altuben egingo dugun ekitaldira. 17:00etan hasita, Goxo Goxuakoak egongo dira, Errastikoko gozogileak ere bai, eta Saharako pastak ere jarriko ditugu salgai. Hala, prezio sinboliko batean, bi euroren truke, gozoak jateko aukera izango da, eta edateko sagar-zukua jarriko dugu. Asmoa da postuak 17:00etan irekitzea, eta, horrekin batera, Txatxilipurdiko lagunak izango dira haurrekin eta gurasoekin jolasean. Behin jendea Seber Altubera gerturatuta, 18:00etan ekitaldia hasiko dugu, eta ordu erdi inguru iraungo du.

**Zein da ekitaldiaren helburua?**

Euskaraldiaren Batzordea martxan jartzea, eragileekin harremantzea, herriko hamaikakoa aurkeztea... Euskaraldia bera girotzen hasteko helburua izango du. Bertso eskolako bertsolariekin hasiko dugu ekitaldia, eta herriko hamaikakoa osatuko duten lagunak aurkeztuko ditugu. Gero, Anixe Uribarrenek pare bat abesti joko ditu; gainera, hura da hamaikakoa osatuko duten lagunetako bat. Herritarrak Seber Altubera joatera animatu nahi ditugu.

## Gabonetan teknifikazio saioak egingo ditu Ointxe!-k

Ointxe! klubak teknifikazio saioak antolatu ditu Gabonetarako. "Jokalarien prestakuntza hobetu eta osatzeko asmoz, denboraldian entrenamenduetan horren ohikoak ez diren zereginak planifikatu eta garatuko ditugu, eta horregatik uste dugu gure proposamena aukera ona dela saskibaloian jokatzeko trebetasun guztiak eskuratzen jarraitzeko, baina jokalariaren psikomotrizitatea eta alderdi psikologikoa ahaztu gabe", adierazi dute klubeko ordezkariek.

Teknifikazio saioak 2016 eta 2009. urte artean jaiotako jokalariei zuzenduta egongo dira –Musakolan, 09:30-13:00–, eta lau txanda izango dira. Izena emateko epea zabalik dago eta prezioa 35 euro da txanda bakoitzeko –20 eurotan egun solteetan izena emateko aukera–. Informazio gehiago, 653 01 48 60 telefono-zenbakian.

# Ziorla Fest egingo dute asteburu honetan

Aurtengo edizioa publiko zabalago bati zuzendutakoa izango da: estilo aldetik eskaintza handiagoa izango da, eta adin guztietako auzotarrek musika entzuteko aukera izan dezaten nahi izan dute, helduentzako zein gaztetxoentzako eskaintzarekin

**Jone Arruabarrena** ARRASATE

Aurten ere, azaroaren 22tik 24ra egingo dute Musakolan Ziorla Fest festibala. 2019an hasi ziren festibala antolatzen, Jone Arizabaleta Musakolako auzo-alkateak azaldu duenez: "Musakolan ekintza kultural bat egin nahi zuten festibalaren sortzaileek, eta, bide batez, auzokideen bizitza suspertu: bertakoek Musakolan bizitza egiteko aukera zabaldu". Pertsona helduei zuzendutako festibala izan ohi da, punk-rock erako musikarekin. Aurten, ordea, publiko zabalago batengana jo nahi izan dute, Arizabaletak azaldu duenez: "Adin guztietako pertsonentzat musika ekitaldiren bat bermatzen saiatu gara". Horrez gain, askotariko musika ere sartu nahi izan dute. "Gustu musikalak zein pertsonak zabalak dira; koloreak beste daude. Aurten, guztientzako zerbait ekarri gura izan dugu".

Bide horretatik, egubakoitzean bingo musikalarekin hasiko dute festibala, 18:00etan, Musakolako jubilatuen egoitzan. Gaztetxoenengana heltzeko asmoz, DJ Goiko eroango dute egun berean, 19:00etan, San Isidro plazako karpara, eta ordu berean Glutenbakuak taldea izango da Jei Juliwer tabernan. 20:30ean, berriz, GUSB taldea arituko da La Rebe eta Iluna taberna artean. Arizabaletak adierazi du nahita jarri dituztela kontzertuak auzoko leku ezberdinetan dauden tabernetan, festibala "auzo osora" zabaltzeko. Zapatuan 12:00etan hasiko dute eguna gaiteroek, eta 13:30ean izango da lehen kontzertua, Dear Flakutxoren eskutik, Beberly tabernan. Zentzu Okerra taldea arituko da, 17:30ean, Ziorla tabernan, eta Fito Skins, 18:30ean, Txinaton. Eguna bukatzeko, 19:00etan hasita, hainbat kontzertu izango dira San Isidro plazako karpan: K-po, Anixe, Emeka, Alarma Morea, Bixentak eta Trumans.

## 'Bareback' erakusketa dago ikusgai Kulturaten

Harriak Bira 2024 ekimenaren barruan, *Bareback* erakusketa izango da Kulturateko klaustroan. Arantza Elejabeitiaren, Xara Aguirreren eta Idoia Leacheren lan artistikoak hilabetez bisitatu ahalko dira bertan, astelehenetik zapatura, 17:30etik 20:00etara. Inaugurazio ekitaldia gaur egingo dute, hilak 22, 18:30ean, Jangeue kolektiboaren kontzertu eta guzti. Elkarlana *Harriak* arte garaikide programaren baitan kokatzen da, eta Alazne Zubizarreta arrasatearra arduratu da erakusketaren bitartekaritzaz. 2016a ezkero dago martxan eta Eremuak-en eta EAEko hainbat kultur etxeren lankidetzari esker gauzatzen da, gorabidean doazen artistei eta bitartekariei plaza eskaintzeko helburuarekin. Hiri paisaiak, marrazki eta objektuak eta eskulturak nahasten ditu elkarlanean egindako erakusketak.

## Arrasate Musikalek girotuko du Santa Zezilia Eguna

Aurten ere, Arrasate Musikalek musikaz beteko ditu kaleak Santa Zezilia Egunean, gaur, azaroak 22. Hain zuzen, gaiteroek eta Banda Gazteko kideek kalejira egingo dutela iragarri dute. Gazteak hasiko dira, 17:30ean, kalejirarekin, eta ordubete geroago, 18:30ean, batuko zaizkie Arrasate Musikaleko gaiteroak.



**Iazko emanaldia.** ARRASATE MUSIKAL



# Egutegiak baditu argazki irabazleak

Guztira 64 argazki jaso ditu aurten Udalak antolatutako argazki lehiaketak; 2025eko egutegian joango dira onenak eta abendu hasieran banatuko dituzte



*Atxak* izeneko argazki hori da lehiaketako irabazle nagusia; egutegiko azalean joango da. ASIER CASTELLANO VELASCO



Neguko sariaren irabazlea. NAIARA GOROSTOLA ARRIETA



Udaberriko sariaren garailea. IÑAKI LASAGA GUTIERREZ



Udako saria eskuratu duen argazkia. AITOR ARRUTI TENA



Udazkeneko saria jaso du horrek. JULENE LOPEZ LOPEZ DE URALDE

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO

Dagoeneko herrian errotuta dagoen lehiaketa da Aramaioko egutegian joango diren argazkiak aukeratzeko egiten dena. Udalak antolatzen du, eta harrera "oso ona" izaten duela adierazi du Amaia Pavon zinegotziak.

**Parte-hartzea**

Aurten, 2025eko egutegia osatzeko 64 argazki jaso dituzte, eta Udala pozik dago: "64 argazkik ematen dute aukeraketa ona egiteko".

Aramaioarrek eta herrikoak ez direnek har dezakete parte, baina baldintzetako bat da Aramaion ateratako argazkiak izan behar dutela guztiek: "Urte baldintzarik ere ez dago; beraz, argazkiek ez dute zertan aurten ateratakoak izan, baina herrian ateratakoak izan behar dute, eta herriko egoerak islatzen dituztenak". Aurreko urteetatik hona badago desberdintasun bat; izan ere, oraingoan, pertsonen irudi gehiago jaso dituzte, eta, hain justu ere, hobesten dute egutegia parajez osatutakoa bakarrik ez izatea eta herriko ekintzak ere agertzea argazkietan. Hauxe gaineratu du Pavonek: "Batzuk lehenengo planoak dira, eta jai-giroa islatzen duen San Juan sua agertzen da beste argazki batean. Uztailerako, herriko jaietako argazki bat aukeratu dugu, eta oso errepikatuak izaten diren Aramaioko parajeak ere izaten ditugu".

**Aurtengo irabazleak**

Hilabete bakoitzak argazki bat jasotzen du eta azalean joaten da argazki irabazlea; beraz, guztira hamahiru argazkirekin osatzen da. Eta, sari nagusiaz gain, urtaro bakoitzak ere badu irabazle bat; hala, guztira bost izaten dira saridunak lehiaketan.

Sari nagusia Asier Castellano Velascok ateratako *Atxak* argazkiak eraman du. Castellano aretxabaletarra da izatez, baina badaramatza hiru urte Aramaion bizitzen. Aurretik ere parte hartu izan du lehiaketa horretan, eta urtaroetako sari bat eskuratu zuen behin. Hala ere, aurten lehenengoz jaso du argazki nagusiaren saria: "Oso pozik nago sariarekin. Maiatzean-edo ateratako argazkia da. Paseoan Orixol aldera joan ginen, mendi buelta bat ematera, eta kolore politak ikusi genituen. [Maialen] Vallina igo zen *Sua* txakurrarekin harri artera, eta nik beste aldetik atera nien argazkia; inprobisatua izan zen", adierazi du. Argazki lehiaketa martxan jarri zela ikusi zuenean, aurrez aterata zeukan argazki hura etorri zitzaion burura, eta bidaltzea erabaki zuen.

Lau urtaroetan, berriz, hauek izan dira saridunak: neguko saria Naiara Gorostola Arrietaren *Neguko eguzkitan* argazkiak eskuratu du; udaberriko saria Iñaki Lasaga Gutierrezen *Akerra sutan* argazkiak lortu du; udako onena, berriz, Aitor Arruti Tenaren *Etxean* izan da; eta Julene Lopez Lopez de Uraldek jaso du udazkeneko saria, *Zeruaren baretasuna* argazkiarekin. Horiekin eta aukeratu dituzten beste batzuekin osatuko dute aurtengo egutegia.

**Informazio esanguratsuarekin**

Egutegiaren ezaugarrietako bat da nabarmenduta joaten direla

**EGUTEGIA OSATZEN DUTEN ARGAZKI GUZTIAK ARAMAION ATERATAKOAK IZATEA DA BALDINTZA**

Aramaiorendako esanguratsuak diren egun guztiak. "Egutegian ez du jartzen San Migel Eguna noiz den, baina bai Gantzagan noiz ospatzen diren San Migel jaiak. Aramaioko jaiak noiz diren ere jasotzen da, auzoz auzoko jaiegunak markatuta daude, Jubilatuen Eguneko azoka, Lorabarri Astea noiz den… Aramaiorendako data esanguratsuak direnak markatuta daude", adierazi du Pavon zinegotziak. Horrez gain, tenporen gaineko informazioa ere ematen du egutegiak, baita zabor-bilketak noiz izaten diren ere. Beraz, Aramaiorendako pentsatutako egutegia da.

Eta, horretaz guztiaz gain, azalean, argazki irabazlearekin batera, Bertso Eskolakoek egindako bertso bat jartzen da. Bertan jasotzen dituzte urtean zehar

**HERRIARENDAKO ESANGURATSUAK DIREN DATAK NABARMENTZEN DITUZTE EGUTEGIAN**

eurendako esanguratsuak izan diren momentu aipagarrienak.

**Abendu hasieran etxeetan**

Egutegia dagoeneko bidali dute inprimategira, eta, jaso bezain laster, urtero moduan, aguazilak etxez etxe banatuko ditu. Hala, aramaioarrek aukera izango dute, beste urte batez, herrian bertan egindako argazkiekin osatutako egutegia 2025ean ere etxean bistara izateko. Gainera, herriarendako garrantzitsuak diren datak nabarmenduta.



**Kultura etxean aste osoan ikusgai dagoen erakusketa.** IGONE OSINAGA

# Afrika gertutik ezagutzeko aukera

Afrika Miniaturan izeneko Gasteizko elkarte soziokulturalak antolatuta, hainbat ekintza egon dira astean zehar herrian, hango kultura, ohiturak eta bestelakoak ezagutzeko. Haurrendako jolasak egon dira, esaterako, eta erakusketa zabalik dago

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO
Afrika Miniaturan elkarte soziokulturala gobernuz kanpoko erakunde bat da, immigrazioari buruzko gaiei eta horrek dakartzan zailtasunez eztabaidatzeko eta Afrikako kontinenteari buruzko mitoei aurre egiteko sortu zena. Aste honetan, eurek antolatutako hainbat ekintza izan dira Aramaion, hango kultura eta ohiturak aramaioarrekin partekatzeko helburuarekin.

**Erakusketa, gaur arte**
Aste osoan izan da zabalik Afrikako oihalei eta objektuei buruzko erakusketa, kultura etxean. Gaur ere, egubakoitza, bisitatzeko aukera egongo da, 17:30etik 19:00etara bitartean.

Hauxe adierazi du Afrika Miniaturan elkarteko koordinatzaile Christian Mangak: "Afrikako oihalei buruzko erakusketan, Afrikako moda hainbat eratara erabil daitekeela erakusten dugu. Eta bertan dauden askotariko oihal koloretsuak hainbat euskarritan erabil daitezkeela ikus daiteke: zapatetan, poltsetan, osagarrietan... Ikusgai dauden oihalak, gainera, kontinenteko hainbat zonatakoak dira: mendebaldekoak, iparraldekoak, erdigunekoak...".

**Haurrendako jolasak**
Eguaztenean, ludotekan, Afrikako jokoak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten gaztetxoenek. Bertan, hainbat joko erakutsi zizkieten haurrei. Horietako bat da *Mancala* izenekoa; Kenyako joko garrantzitsuenetako bat. Afrikako hegaztiak ezagutzeko balio izan zuen hegaztien jolasa ere egin zuten. Baita *Mamba* eta *Awalé* izenekoak ere. "Medio oso gutxirekin hazi izan gara Afrikan, eta polita da gure haurtzaroko jokoak hemengo umeei erakustea. Erakusten diegu nola bizi diren hango umeak eta zein gutxirekin diren pozik. Jokoetan haurrek kuriositatea erakusten dute, eta erakargarriak egiten zaizkie Afrikako jolasak", esan du elkarteko koordinatzaileak.

**JATORRIARI GARRANTZIA KENDU ETA GUZTIEN ARTEKO BERDINTASUNA ALDARRIKATZEN DUTE**

**Sentsibilizatzea helburu**
Arabako emakume afrikarrei buruzko solasaldi bat ere egin dute, eta Mangak adierazi du azpimarratu nahi dutela berdintasunari buruz hitz egitean esparru guztietara zabaldu behar dela: "Ez bakarrik gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasunera. Kanpotik etorritakoen eta hemengoen artean berdintasuna egon behar da, besteak beste. Jatorria ez da garrantzitsua".

Sukaldaritza tailer bat egitekoak ere baziren gaur, baina bertan behera gelditu da, ez delako gutxieneko herritar kopurua apuntatu.

A25

## Hausnarketa bultzatu nahi dute indarkeria matxistaren kontra

Iturzuri Emakume Elkarteak antolatu du, Udalarekin batera, Azaroaren 25aren bueltako egitaraua

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO
Joan den asteburuan izan zen *Pronoia* clown ikuskizunarekin hasi zituzten Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltako ekitaldiak herrian. Aurten, Iturzuri Emakume Elkarteak antolatu ditu, Udalarekin batera.

Bihar, zapatua, beste ikuskizun bat izango da, 19:00etan: *Mattalingo alaba*. Saturrarango espetxean diktadura frankistan preso egondako emakumeak omentzeko ikuskizuna.

Domekan, zineforuma izango da: Afrikako zinemen jaialdiko *Our father, The Devil* emango dute, kultura etxean, 19:00etan.

Azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute, Bizente Goikoetxea plazan, 18:00etan. Eta abenduaren 2an, June Fernandezen *Aingeruak eta neskameak* liburuaren aurkezpena egingo dute, kultura etxean, 18:00etan.

Hausnarketa bultzatu nahi dute, indarkeria matxista "oso presente" dagoela iritzita.



HERIBERTO ARRIOLABENGOA

## Amaitu da pilota txapelketa

San Martin pilota txapelketaren hamargarren aldiari bukaera polita eman diote. Oinatz Bailez aramaioarrak Legutioko Mattin Agirrerekin batera osatutako bikoteak, gainera, irabazi egin zuen alebin B kimuak kategorian. Jendetsuak izan ziren herrian jokatutako finalak, eta antolatzaileak pozik daude aurtengoak eman duenarekin.

### 'Minimach' animazioa emango dute, herriko haurrendako

*Haziaraba in the mapping* jaialdiaren barruan, azkeneko ekintza izango da domeka honetan. *Minimach* animazio-zinema emango dute, kultura etxean, 17:00etan. 2 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutakoa da. *Stop motion* animazioa da; 3D-ko marrazki bizidunak eta film labur irudiztatuak daude istorio poetiko horren barruan.

### Santa Zezilia kontzertua izango da domeka eguerdian

Bizente Goikoetxea abesbatzak Santa Zezilia kontzertua eskainiko du etzi, domeka, Ibarrako elizan, 12:00etako mezaren ostean.

Gaur, egubakoitza, ospatzen da Santa Zezilia Eguna, musikarien eguna, eta aitzakia horrekin egingo dute emanaldia. Aurten, gainera, Bizente Goikoetxearen *Ave verum* kantua abestuko dute, besteak beste.







Aretxabaletako Sarek antolatutako hainbat ekintza. GOIENA

# 'Gari etxera' zikloa itxiko du Sarek, bost urte beteta

Gari Garcia Arrietaren etxeratze-prozesua bultzatzeko helburuarekin 2019an abian jarritako dinamikaren emaitzarekin pozik dago Aretxabaletako Sare; balorazioaren berri eman eta beste fase bati ekiteko agerraldi jendetsua deitu du azaroaren 30erako

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Agerraldi jendetsua deitu du Aretxabaletako Sarek azaroaren 30erako, bost urteotako balorazioaren berri eman eta "alboan" izan dituzten herritarrak eskertzeko; Iturrigorri pilotalekuan elkartuko dira, 12:30ean.

**Hirugarren gradua eskuratuta**

*Gari Atxabaltara* dinamikari –aurrerago *Gari etxera* izango zena– 2019an ekin zion Aretxabaletako Sarek, herriko askotariko eragile eta norbanakoen babesarekin. "Gari Garciaren etxeratze-prozesua bultzatzea eta konponbideari gure aletxoa jartzea ziren helburuak", adierazi du Sareko kide Txarli Garciak. Bost urte "oso gorabeheratsuak" izan direla gogorarazi du. 2020an, adibidez, pandemia iritsi zen: "Guztiontzat okertu bazen egoera, pentsa espetxeetan zeudenentzat; esaterako, telefono deirik gabe geratu ziren preso guztiak. Eta Gari orduan Valentzian zegoen, lehen graduan". 2020aren bukaeran lekualdatu zuten Zaballara (Araba): "Hura izan zen Euskal Herriratzen lehenengoetakoa".

Konponbidearen bidean aurrerapauso asko eman direla urteotan dio Garciak: "2022an, 40 urteren ostean, sakabanaketa bukatu zen, guztion lanari esker". Orduan, beste fase batera egin zuten jauzi: "Etxeratze-prozesua" bultzatzea. "Oztopoz betetako bide bat zela ikusi genuen eta gure aldarrikapen nagusia izan zen euskal presoei aplika ziezaietela gainerako presoei aplikatzen zieten legea; hau da, espetxe politika arrunta".

Gari, Zaballara iritsi zenetik lau urte beteta, bigarren gradutik hirugarrenera pasatu da: "Gaur egun, zigorra betetzen jarraitzen du, legeak ahalbideratzen duen beste modalitate batean: espetxera lotara joanda". Horregatik, zikloari amaiera emango diote: "Aretxabaletan presorik ez da izango aurrerantzean, baina ezin dugu ahaztu 100 preso baino gehiago geratzen direla, baldintza guztiak beteta, graduaren progresioa emateke. Hortaz, dinamika orokorrera pasatuko gara eta denak etxeratzea eskatuko dugu".

**AZAROAREN 30EAN ITURRIGORRI PILOTALEKUAN ELKARTZERA DEITU DITUZTE HERRITARRAK**

**Eskertza ekitaldia**

Azaroaren 30erako deitutako ekitaldian bost urteotako ibilbidearen balorazioaren berri emango dute. Eta gonbidatu gura dituzte urte horietan zein aurretik alboan izandako herritarrak: "Haiekin konpartitu gura dugu, argazki erraldoia atera eta mokadu bat jan elkarrekin. Oso babestuta sentitu gara, adostasun soziala zabala izan da bide honetan, eta eskertu egin gura ditugu".

## Azaroaren 25ean jarriko dituzte salgai neguko bonuak, Arkupen

875 bonu-pakete aterako ditu Udalak, bakoitza 50 euroko balioduna, abenduaren 31ra bitartean erabiltzeko

**M.A.** ARETXABALETA

Aretxarteko 48 bat establezimendutan gastatzeko 875 bonu-pakete aterako ditu Udalak, eta astelehenetik aurrera eskuratu ahal izango dira, Arkupen. Aretxarteko kideak arduratuko dira salmentaz, eta honako ordutegi hau izango dute: astelehenean, 09:30etik 15:00etara; martitzenean, 15:00etatik 19:00etara; eta eguaztenean, 09:30etik 15:00etara.

Bonu-pakete bakoitzak 50 euroko balioa izango du eta erosleak 30 euro ordainduko ditu. 16 urtetik gorako aretxabaletarrek eskuratu ahal izango dituzte, bakoitzak pakete bakarra, eta, horretarako, nortasun agiria erakutsi beharko dute.

Aurtengo bigarren bonu-kanpaina da, eta deialdi bakoitzean 17.500 euro bideratu ditu Udalak horretara, Aretxarterekin daukan hitzarmenaren bidez. Udalak jakinarazi du kanpainari esker 43.750 eurotik gora gastatuko direla herriko komertzioetan.



NIRE USTEZ

**PALOMA MARTINEZ PEREZ**

## Gizonentzako erronka

Emakumeoi asko kostatu zaigu genero indarkeria jasan izan genuela, dugula edo jasango dugula onartzea. Baina dagoeneko nahiko arrunt bihurtu da lagunen artean edo emakume talde batek horren inguruan berba egitea. Areago, mikromatxismoak identifikatzeko gai gara dagoeneko. Beraz, identifikatuta daukagu genero indarkeriaren arazoa, izendatuta, eta badakigu horren kontra gaudela. Aupa gu!

Eta gizonak? Kontu honekin zein puntutan daude? Ni ez naiz gizona, baina inguruan ditudanak urrun daude genero indarkeria burutu zutela, dutela edo burutuko dutela onartzeko. Bati baino gehiagori min egingo dio esaldi horrek. Dena dela, denok dakigun bezala, arazo bat konpontzeko lehenengo urratsa beti izango da horren onarpena. Hori dela eta, nire ikuspuntutik, gizonek onartu behar dute gizona izateagatik genero indarkeria burutzeko aukera edota arriskua dutela. Horrekin, buruan eta beraien arteko elkarrizketetan maskulinitateari bide berriak zabalduko lizkiekete. Guk gure feminitatearekin egiten ari garen bezala.

A25

## Elkarretaratzearekin bat egiteko dei egin diete herritarrei

*Emakumeen aurkako indarkeria gabeko bizitzen alde* leloarekin elkarretaratzea deitu du Atxabaltako Mugimendu Feministak Azaroren 25erako; 18:30ean izango da, Herriko Plazan. Udalak bat egin du horrekin, eta herritarrak ere hara gonbidatu ditu.

Udalak, gainera, adierazpen instituzional bidez bere "gaitzespenik irmoena" azaldu du indarkeria matxista guztien aurrean, eta honako konpromiso hauek hartu ditu: emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo ezerezten duen edozein erreakzio matxistaren aurrean euste-horma kolektiboa aktibatzea; gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak; eta eskola-komunitateari zuzendutako prestakuntza-prozesuak indartzea. "Denon ardura da, egunero zereginetatik hasiz", gaineratu dute.

# "Inork ez zuen igarri jokoari lotuta nengoela"

**JOSU VIANA** LUDOPATA OHIA

Zazpi urte baino gehiago egin zituen jokoari lotuta, eta zor handiak pilatu zituen; putzu hartatik ateratzea lortu zuen, eta orain, horren berri ematen dihardu

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Josu Vianak (Zumarraga, 1989) jokoaren erruz bizi izandako infernuaren berri eman zuen martitzenean, Udaleko Prebentzio Sailak antolatuta. Jokoaren loturatik askatzea lortu zuen, zazpi urte pasaren ostean, eta orain, beste batzuei laguntzea du helburu.

**Ludopatiak bizitza hankaz gora jartzen duela esaten diezu gazteei zein nerabeen gurasoei; zurea ere hala jarri zuen?**

Bai; 18 urterekin sartu nintzen jokoan, konturatu ere egin barik: lehenengo, astean behin jokatuta apustuen makina batean; gero, birritan; eta, jakin ere egin barik, lotuta nengoen. Eta, noski, horrekin arazoak iritsi ziren: zorrak, gezurrak, lapurretak gertukoei, antsietatea... Jokoaren ondorioz zor handiak pilatu nituen, min handia egin nien maite ninduten senideei eta lagunei, eta haietako batzuk galdu egin ditut.

**Horregatik, beste batzuei lagundu nahi diezu orain?**

Bai; behin mundu horretatik ateratzen hasi nintzenean, beste batzuei lagundu nahi izan diet. Gurasoei bideratutako hitzaldiekin ekin nion bide horri, baina orain, gazteekin prebentzio lanak egiten dihardut gehiago.

**Jokoa, adikzioa izanda ere, beste batzuk baino gutxiago lantzen da?**

Substantzien –alkohola, drogak…– kontsumoaren gainean informazioa ematen da gaztetatik, eta jokoaren inguruan ez dago hainbeste. Oso erraz sartzen dira gazteak; 15 edo 16 urterekin apustuak egiten hasten dira, kirol-apustuak, esaterako, inongo arazo barik, nahiz eta legeak ez baimendu 18 urte arte, eta, konturatu orduko, guztiz engantxatuta daude.

**Zelan antzeman daiteke arazoren bat duela pertsona batek?**

Jokatu ezkutuan egiten da, eta oso zaila da ingurukoak konturatzea. Nire kasuan, inork ez zuen jakin, neuk esan arte, eta zazpi urte baino gehiago egon nintzen horri lotuta. Diru arazoa agertzen denean antzeman daiteke; lehenago edo geroago, dirurik gabe geratzen zara, eta eskatzen edo lapurtzen hasi.


Josu Viana, Arkupen. M.A.

**Eta zelan lagundu arazoa duen bati?**

Garrantzitsua da jakitea zein puntura arte den dibertsioa eta noiz hasten den arazo izaten; edo uneren batean deskontrola baldin badugu hori bideratzeko zer egin.

**Aholkurik emango zenuke?**

Nire gomendioa hauxe da: edozein arazoren aurrean, kontatu gertatzen zaiguna. Nik 30 urte izan arte dena gordetzen nuen eta konturatu nintzen egunetik egunera nire bizitza okertzen zihoala. Aldiz, edozein arazoren aurrean, gogorra izanda ere, kontatzen badugu gertatzen zaiguna eta laguntza eskatzen badugu, beti dago irtenbidea.

**Hortaz, garrantzitsua da komunikazioa lantzea?**

Bai; tamalez, askotan, ez dugu denborarik hartzen gure ingurukoekin egoteko, zer moduz dauden galdetzeko eta konfiantza giroa indartzeko.


Ikasleak jokoaren arriskua erakusten joko baten bidez. M.A.

## LEINNeko ikasleen lanketa

Mondragon Unibertsitateko LEINN graduko ikasleek ludopatiaren gaineko saioa bideratu zuten, Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta. Unax Etxebarriak, Danel Gonzalezek eta Ariel Garciak jokoaren arriskuez ohartarazi zuten eta prebentziorako gako batzuk eman zituzten.

# Narrazioak aurkeztu beharko dira Karmele Igartua bekara

Azaroaren 30a izango da lanak aurkezteko azken eguna; irabazleak 2.500 euroko diru-saria jasoko du

**M.A.** ARETXABALETA
Karmele Igartua sorkuntza bekaren XIV. edizioa deitu dute Bergarako Idazle Eskolak eta Aretxabaletako Udalak.

Sariketa 16 urtetik gorakoei bideratu diete eta parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du; narrazio luze bakarra edo narrazio-bilduma izan liteke, gaia librea izanik. Lanak originala izan behar du, argitaratu gabea eta euskaraz idatzia; ez dute itzulpenik onartuko.

Posta arruntez udaletxera –Otalora kalea 1– edo posta elektronikoz –*kultura@aretxabaleta.eus*– bidali ahal izango dira. Azken eguna azaroaren 30a da.

**Saria, 2.500 euro**

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du; eskola horretako ordezkariekin eta literatura ingurukoen artean aukeraturiko kideekin osatuko dute. Erabakia 2024ko abenduaren 21a baino lehen jakinaraziko dute. Irabazleak 2.500 euroko diru-saria jasoko du; saria eman gabe gera daiteke, epaimahaiak hala erabakiz gero.

## Arratoi kopurua murrizteko lanean dihardu Udalak

Arratoi kopurua ugaritu egin dela jakinaraziz hainbat kexa jaso ditu Udalak, eta horren aurkako lanei ekin die azken astean. Tranpa gehiago jarri dituztela adierazi dute, baita amuak ere, estolderia-sarean eta lorategi batzuetan. Izurriterik egon ez dadin, gainera, bi hilabetean behin tratamendu orokorrak eta bestelako tratamendu espezifikoak egingo dituzte, beharrezkotzat jotzen diren eremuetan.

"Espero dugu ahalik eta lasterren nabarituko direla egindako tratamenduen ondorioak", gaineratu du Udalak, eta "edozein aldaketari adi" egongo dira udal zerbitzuak.

## Elikadura jarrera osasuntsuen gaineko hitzaldia eguaztenean

Mireia Centeno psikologo eta psikopedagogoak elikadura jarrera osasuntsuen gainean jardungo du azaroaren 27an, 18:00etan, Arkupen. Gurasoen eta hezitzaileen formakuntzan jardun ostean, osasun psikologo lanetan dihardu Centenok, hezkuntzan. Elikadura nahasteen prebentzioa landuko du, baita lodifobiaren eragina ere.

## Liñeraren 'Lohi gorria' antzezlana Arkupen, zapatuan

Javier Liñerak idatzitako *Barro rojo* antzezlanaren euskarazko bertsioa, *Lohi gorria,* eroango du hogei urteko ibilbidea duen Gasteizko Ekoma Teatroa konpainiak zapatuan, 19:30ean, Arkupeko Zaraia aretoko oholtzara –sarrera, 5 euro–. Izan ere, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren baitan estreinatu zuten lana, atzo, eguena.

Historia errealetan oinarritutako fikziozko antzezlana da; Liñerak berak zuzendu du eta Aitor Perez du protagonista. Gizon homosexual baten bidaia kontatuko du haren iloba Amelia transformistak; bi pertsonaien eta haien istorioen arteko bidaia izango da.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Jai bikoitza, ardoa dastatuz eta herri-giroan

Atxorrotx Kultura Elkartekoen urteroko zita izango da zapatuan; izan ere, ardo dastaketa izango da. Bestetik, herriko kuadrilla gazte batek antolatutako eta herri osora irekitako Telmo Jaia izango da, egun osoko programazioarekin

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Zapatuan, ardo dastaketa izango da, batetik, eta, bestetik, Telmo Jaia prestatu dute, herrian giroa izan dadin. Ardo dastaketari dagokionez, 18:30ean hasiko da, eta muntatuta dago hitzordurako karpa Fernando Eskoriatza plazan. Lau postu jarriko dituzte, eta horietan zenbait ardo mota probatzeko aukera izango dute herritarrek. Telmo Jaia, berriz, 12:45ean hasiko da, eta goizaldera arte izango dira ekintzak.



Fernando Eskoriatza plazan karpa muntatuta. IMANOL BELOKI

### Txartela, bi eurotan

Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek egunerako eramango dituzten ardo bereziei laguntzeko, Kroketxeako pintxo bereziak ere prestatuko dituzte. Eskoriatzako txistulariak ere izango dira, urtero moduan, hitzordua girotzen, eta ohiko formatua mantenduko dutela azaldu du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak: "Ardo eta pintxo berezi bakoitzak bi euroko kostua izango du, baina horiek eskuratzeko urteroko sistema erabiliko dugu; hau da, txartel bakoitzak bi euro balioko du, baita pintxo berezi bakoitzak ere. Pintxo berezi horiek bi kroketa dira, urdaiazpiko iberikoarena eta muskuilu beatearena, eta guztira 350 inguru izango dira salgai".

### Telmo Jaiaren laugarren aldia

Telmo Jaia ere ospatuko dute, zapatuan, ardo dastaketari itzalik egin gabe eta batak bestearen hitzorduetan parte hartzea ahalbidetuz. Laugarren urtez antolatu dute egun osoko festa, eta aurreikuspen onekin daude antolatzaileak. Pandemiaren testuinguruan sortu zuen lagun talde batek Telmo Jaia, eskoriatzarrak parrandan Aretxabaletara edota Arrasatera joaten zirela ikusita, herrian geratzeko eta herri-giroa pizteko aitzakiarekin. Lehenengo edizioko arrakastaren ostean, urtero azaroan egitea erabaki zuten, eta aurten ere hala egingo dute. "Aurreko edizioetan arrakasta dezente izan du. 2021ean egin genuen lehenengo aldiz, COVID-19aren ostean Eskoriatza hilda zegoelako, eta aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzeko asmoz. Ematen duenez, egutegiko beste jai bat gehiago bihurtu da; izan ere, jendeak kalean motibatuta galdetzen digu ea aurten noiz izango den Telmo Jaia", azaldu dute antolatzaileek. Gaineratu dutenez, asmoa ahalik eta jende gehien batzea da, eta beste momentu batzuetan elkartuko ez liratekeenak batzea. "Gainera, aurten ardo dastaketa egunarekin kointziditzen du, eta, horrela, arratsaldeko egitarauarekin, publiko zabalagoari hurbiltzea espero dugu".

**12:45EAN HASIKO DA TELMO JAIA, ETA 18:30EAN EMANGO DIOTE HASIERA ARDO DASTAKETARI**

### Musika eta jokoak, bereziki

12:45ean, lehen txupinazoarekin ekingo diote egunari. Telmoren jaitsiera ere egongo da, eta eguneko lehenengo kontzertua 18:30ean izango da, Kontzejupean, Leire eta Dorleta eskoriatzarren eskutik. Argazki kolektiboa aterako dute 20:45ean, eta gauerako ere hitzordu ugari prestatu dituzte. 22:00etan, esaterako, Aretxabaletako Glutenbakuak taldearen kontzertua izango da, eta 23:30ean, berriz, Eskoriatzako Kremallera taldearen emanaldia izango da. Hala ere, festak goizaldera arte iraungo du, eta, horretarako, 01:00etan brindis herrikoia egingo dute, 01:20an baso-jokoa… 06:00etan egingo duten gosari herrikoira arte.

### Domekan, bakarrizketak

Bi hitzordu horiez gain, domekan, euskarazko bakarrizketak izango dira entzungai, 19:00etan, karpan. Ander Malbadi, Asier Kortabarria eta Esti Curiel arituko dira oholtza gainean, bertaratuei barrea eragiteko asmoz.

A25

## Elkarretaratze isila, indarkeria matxista jasan dutenei entzuteko

18:30ean egingo dute Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguneko elkarretaratzea, Fernando Eskoriatza plazan

**I.B.** ESKORIATZA

Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izanda, "astelehenean denok plazara" joateko dei egin dute Eskoriatzako mugimendu feministako kideek: "Etxean zein kalean libre eta seguru bizi nahi dugulako".

Eskoriatzako udal ordezkariek ere bat egin eta aho batez onartu zuten urriko osoko bilkuran Azaroaren 25eko adierazpena, eta zenbait konpromiso batzen dituen mozioa ikusgai jarri dute udal webgunean. Horrekin batera, asteleheneko elkarretaratzera joateko dei egiten diete herritarrei.

*Eskola, erasorik gabeko espazioa. Tratu onen aldeko eskola!* izenpean, zenbait ekintza egingo dituzte, bestalde, Luis Ezeizakoek. Azaroaren 25aren harira lanketa egingo dute ikasgeletan, kartel lehiaketa bat egingo dute, eta astelehenean, 12:15ean, patioan, Eskolako Komunitateak ikasleek egindako kartelak jarriko ditu.



NIRE USTEZ

**ARANTZA MIGUEL** ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK TALDEKO KIDEA

## Bai gizon-aliatuei

Indarkeria matxista mota asko daude –besteak beste, birtualean nahiz presentzialean: jazarpena, manipulazioa, umiliazioa, iraina, mehatxuak eta, okerrena, erailketa–. Iaz, batez beste, astean emakume bat baino gehiago hil zuten Estatuan.

Errealitate horrekin, olatu negazionista azaleratzen ari da, indarkeria matxista ukatzeko helburuarekin. Iritzi publikoan eragin nahi dute, maskulinitate toxikoa, emakume ahaldunduarekiko etsaitasuna eta feminismoaren aurkako jarrera zabalduz. Oso aktiboa da, mezu inplizituz beteta, biktimak gutxietsiz, eta berdintasun-politiken aurrerapenen aurka. Baina ukatu ezin den arazo bat badago, zergatik sentitzen dira gizon asko iraindutа? Olatu negazionistarekin batera, aliatuen olatua ere sortu da. Espazioak beste gizon batzuekin partekatzeko prest dauden gizonak: problematika ulertzen dutenak eta dramaren ikusle huts izan nahi ez dutenak. Konponbidearen parte izan nahi dutenak. Dinamika toxikoak detektatzeko eta desberdintasunari aurre egiteko baliabideak izateko trebatzen dira, lagun taldeetatik, lanean… Ez bazara konponbidea, arazoa zara.

## Termiten kalteak

Frontoiko gimnasioaren zoruan termita asko daudela-eta, egokitze lanak hasi dituzte asteon. Lurra aldatu, sarrerako eskaileran eskubanda jarri eta lokala margotuko dute, besteak beste. Aurreikuspenen arabera, sei aste inguru iraungo dute obrek, eta hango ekintzak frontoira, kiroldegira edo Ibarraundira lekualdatu dituzte.



MIKEL LUENGO

# Kantu bazkarirako txartelak, astelehenean

Euskararen Eguna azaroaren 30ean ospatuko da, eta, horren harira, kantu bazkarirako txartelak astelehenean bakarrik egongo dira salgai, azaroaren 25ean. Manuel Muñoz kiroldegian eta Inkernu tabernan egongo da txartelak erosteko aukera

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu izan da, baina aurten martitzena izango denez, ospakizun eguna aurreratu eta azaroaren 30erako egitaraua prestatu du Eskoriatzako Udalak.

Hankamotx bertso-eskolako gaztetxoek emango diote hasiera egunari, 13:00etan egingo duten saioarekin. Aritz Irigoien irakaslearekin batera prestatu duten bertso sorta eskainiko dute, Fernando Eskoriatza plazako karpan. Segidan, Euskararen Eguneko ekitaldi baten baino gehiagotan Eskoriatzan ikuskizuna ematen izan diren Tio Teronen Semeak taldeko dantzariek hartuko dute protagonismoa. Hain zuzen ere, *Haurreskolari* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Bertan, ikasitakoa desikasten saiatuko dira, ikusleen eskutik, ikasketa prozesu berri bat umorez eraikitzeko asmoz.



**Iaz, kantu bazkarian.** I.SORIANO

### Txartelak, egun bakarrean

Goizeko ekitaldiak amaitutakoan, 15:00etan, karpan egingo da kantu bazkaria, eta Udalak jakinarazi du astelehenean soilik jarriko dituztela salgai txartelak, Manuel Muñoz kiroldegian eta Inkernu tabernan. 15 urtera artekoentzat hamalau eurotan egongo dira salgai eta 16 urtetik gorakoentzat, hamasei eurotan.

Kantu bazkaria izango da, eta, horrenbestez, bazkalostea musikaz girotuko dute Leire eta Dorleta musikari eskoriatzarrek. Kantuaz gain, dantzara animatuko dituzte bazkaltzera joandako herritarrak. Hauxe izango da menua: patatak errioxar erara, oilasko-izterra saltsan eta pastela, ogia eta edaria barne.

### Musika kontzertuak

Bazkalosteko musika saioari segida emanez, 20:00etan, Oñatiko Hamarratz erromeria taldearen kontzertua izango da, eta, 22:00etan, berriz, Gasteizko Pineapple Sweets DJek punk, oi! eta new wave musika estiloz betetako kantuekin girotuko dute Inkernu taberna, horrela amaiera emanez egunari.



**Haurrak, liburutegiko bertso-antzerkian.** IMANOL SORIANO

## Haurrentzako bertso-antzerki saioa, umorea bidelagun izanda

Joan den domekan 'Alpistegiak' ikuskizuna izan zen, Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta

**Imanol Beloki** GATZAGA

*Alpistegiak* haurrentzako bertso-antzerki ikuskizuna izan zen domeka arratsaldean Leintz Gatzagako liburutegian, haurren gozamenerako.

Debagoieneko Antzerki Plataformaren hirugarren Karoi Antzerki Jaialdia dela-eta, DAPek inprobisazio tailerrak, ikusle klubak, mahai-inguruak, antzezlanak eta beste hainbat ekimen antolatzen ari da azaroan zehar, eta Leintz Gatzagan ere hartu zuten tartea bertso-antzerkia eskaintzeko. Herriko haur ugari batu ziren bertan; horietako asko, Leintz Gatzagako Antzerki Taldeko ikasleak.

### Osasunaz, umorez

Alaia Martinen gidoia du ikuskizunak, eta Amancay Gaztañagak zuzendu du; aktore lanetan, berriz, Malen Basterretxea eta Uxue Alkorta aritu ziren. Hala, *Alpistegiak* antzerkiaren funtsezko helburua osasunaz duten ideia zabaltzea da. Umorearen bitartez gorputzak bakarrik ez, sentimenduek, harremanek, ohiturek eta maila sozialak osasunean zenbaterainoko eragina duten erakustea zen asmoa.

### Antzerki taldea martxan

Ikusitakoa ikasteko aprobetxatu zuten, gainera, Gatzagako liburutegiko ikuskizunera joan ziren askok. Izan ere, Leintz Gatzagako Antzerki Taldeko kideek badakite zer den ikus-entzuleen aurrean antzeztea. Uda aurretik, herritarren aurrean egindako *Medikuaren kontsultan* izeneko esketxarekin eman zioten ikasturteari amaiera, eta, ikasturte berriarekin, martxan daude teknika eta gauza berriak lantzen, Eider Sanz Gatzagako Antzerki Taldeko irakaslearen gidaritzapean.



EH BILDU ESKORIATZA

## Ander Goikoetxearen bisita

*Utopian gara aske, zutunik* lelopean, EH Bilduren III. Kongresuko Oinarrizko Ponentzia gertutik ezagutzeko, Ander Goikoetxea Gasteizko legebiltzarkidea izan da asteon Eskoriatzan. Kultura etxean izan zen saioa, martitzenean, eta bi gai nagusi izan zituzten hizpide: EH Bilduren ildo politiko orokorra eta antolaketa eta funtzionamendua.

## Santa Zezilia Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza

*Musikaren Eguna, atara musika plazara* lelopean, zenbait ekintza antolatu dituzte Musikaren Nazioarteko Egunerako, Santa Zezilia ospatzeko. Urtero moduan, Beheko Errota Musika Eskolako ikasleen saioa izango da, 17:30ean. Lehenbizi, banda txikikoak arituko dira, eta, gero, musika eskolako koruaren saioa izango da.

Txokolate-jana egingo dute gero, eta nork bere edalontzia eraman beharko du. Horrekin batera, 19:00etan, *Dantza band* ikuskizuna izango da, Eskoriatzako Bandaren eskutik, eta 21:00etan Inkernu tabernan, berriz, Oñatiko Larru Beltzak taldearen punk-rock kontzertua izango da.

## Leintz Argik argi mozketa programatu du astelehenerako

Azaroaren 25ean, astelehena, Leintz Gatzagako argindar instalakuntzaren kalitate eta fidagarritasuna hobetzeko aldizkako argi mozketak egingo dituela jakinarazi du Leintz Argik, ohar bidez.

Argi mozketak herri osoan eragingo duela azaldu dute Leintz Argiko teknikariek, eta esku-hartzea 10:00etatik 14:00ak bitartean izango dela jakinarazi nahi izan diete gatzagarrei. Moztutako argindar potentzia 875 kVAkoa izango da, eta egin beharreko lan guztiak amaitzen dituztenean, ohi bezala, hornidura aldez aurretik jakinarazi gabe berrezarriko dutela jakinarazi dute, inongo abisu barik.

Leintz Argiko teknikarien esku-hartzeak irauten duen bitartean aparatu elektronikoak deskonektatzea eta igogailuak ez erabiltzea gomendatu dute, badaezpada.

# Berdintasuna sustatzeko, Hezkidetza Programa

Bergarako Udalak, herriko ikastetxeek eta Emagin elkarteak elkarlanean jarriko dute martxan hiru urtean garatuko den Hezkidetza Programa; ikastetxeetan lantzeaz gain, herritarrek ere izango dute aukera antolatutako jardueretan parte hartzeko

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Bergarako Udalak, herriko ikastetxeek eta formakuntza eta ikerketa feminista sustatzen dituen Emagin elkarteak harreman parekideak, hezkuntza afektibo-sexuala eta tratu onak sustatzea helburu dituen Hezkidetza Programa aurkeztu dute asteon. Bergaran halako programa bat sortu den lehen aldia da eta hiru urtean garatzeko asmoa dute. Proiektua aurrera ateratzeko aurrekontua 45.000 eurokoa da.

Bergarako Udalaren III. Berdintasun Planaren barruan kokatzen da eta bat egiten du emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko neurriekin. Bergarako alkateorde Ainhoa Letek asteleheneko aurkezpenean azaldu zuenez, urteetan zehar eman dituzte tailerrak eta formakuntzak ikastetxeetan, "modu oso konkretuan". Hala, Hezkidetza Programarekin proposatu dutena izan da jarduera horiek osatzea: "Alde batetik, adinak zabaldu egiten dira; Lanbide Heziketako eskolak ere batu dira, eurek eskatuta, eta hezkuntza ez-formala ere txertatu dugu, denok garelako gizartearen parte. Orain arte, formakuntza horiek hezkuntza formalera mugatu izan dira, eta, horiekin, hezkuntza formala, ez-formala eta herria bera inplikatu nahi ditugu".

Berdintasuneko harremanak eraikitzeko helburuarekin sortu dutela adierazi du Letek, "osasuntsuak eta errespetuzkoak izango diren harremanak sortzeko eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte bateranzko pausoak emateko", besteak beste, berdintasunaren aldeko ikuspegia hezkuntzan txertatzeko.




Udaleko, Emagineko eta herriko ikastetxeetako ordezkariak, astelehenean. I.A.A.

**BERDINTASUN SAILAK PROGRAMAN "AKTIBOKI" PARTE HARTZEKO DEI EGIN DIE HERRITARREI**

### Hiru urteko ibilbidea

Hezkidetza Programa prozesu iraunkorra izango da eta hiru urteko ibilbidea izango du. Herrian pedagogia feministaz jardutea izango du ardatz, Emagineko kide Ainara Lasaren esanetan, "herriko pertsona, gazte, heldu, guraso, irakasle eta bestelakoak modu parekideagoan Bergaran bizi eta hazi daitezen. Bergararren artean izaten diren hartu-emanek tratu ona eta errespetua izan dezaten oinarri. Bergara izan ez dadin indarkeria matxista erreproduzituko eta eragingo duen herri bat". Horretarako, prebentzioa, sentsibilizazioa eta formakuntza izango dira lan-tresna.

### Sei ekintzatan banatuta

Hezkidetza Programa garatzeko, Bergarako ikastetxe guztietan egingo dute, LH-5etik hasi eta goi-mailako zikloetaraino. "Esku-hartzeak ugariak izango dira. Imajina dezazuen, urtero, ikasturteka, 250 formakuntza ordu baino gehiago egingo ditugu ikasleekin", adierazi zuen Lasak. Gurasoekin ere, ikastetxeka, aurreikusten dira ikasturte hasieran eta bukaeran formakuntza espezifikoak. Irakasleekin ere egingo dituzte tailerrak, tratu onean, indarkeria matxistan eta hezkidetzan oinarrituta.

Hezkuntza ez-formaleko eragileekin eta teknikariekin ere egingo dute lan. Hala, komunitate osoaren inplikazioa ere izango dute. Programak herriko eragileekin lankidetza bultzatzen du, mugimendu feministekin eta berdintasunaren aldeko taldeekin elkarlanean, sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak antolatuta. Era berean, aholkularitza eta arreta zerbitzua ere eskainiko dute, Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatuta, eta aholkularitza eta protokoloak aktibatuko dira, beharrezkoa denean indarkeria matxistari aurre egiteko.

Bergarako Udalak adierazi du proiektua aurrera eramateko herritar guztien "konpromisoa eta parte-hartzea" ezinbestekoak direla. Horregatik, Berdintasun Sailak dei egin die herritarrei ekimenean "aktiboki" parte hartzeko.

A25

## Indarkeria matxistaren kontrako aldarriak, ekintzen bidez

Azaroaren 25erako elkarretaratzea eta manifestazioa deitu dituzte; hilaren 27rako, berriz, tailerra antolatu dute

**I.A.A.** BERGARA

12:00etan, San Martin plazan, emakume helduekiko indarkeriaren kontrako elkarretaratzea egingo dute, Duintasuna elkarteak antolatuta. 18:30ean, berriz, *Isiltasuna apurtu! antolakuntza feminista danon arduria* lelopean manifestazioa egingo dute, herriko plazan hasita, Martxanterek eta Oñeztuakek deituta. Era berean, asteburuko zinema emanaldian *Soy Nevenka* filma emango dute, hilaren 24an eta 25ean, 19:30ean, Seminarixoan.

Azaroaren 27rako, *Indarkeria matxista: identifikatzen al dugu gizonok?* tailerra antolatu du Udalak. UNEDen izango da, 17:30etik 19:30era. Izena emateko: *berdintasuna@bergara.eus*; telefonoa: 943 77 91 45; eta Whatsapp edo Telegram: 688 811 760.

Bestalde, Itaiak adierazi du A25erako ez duela ekintzarik antolatu Bergaran, egitaraua Arrasaten izango dela.

## Udalaren eta langileen arteko negoziazioak, "bide onetik"

Irailean hasi ziren udal langileak euren lan baldintzak hobetzeko bost aldarrikapen egiten. Urrian zehar hainbat bilera egin dituzte Udal Gobernuarekin, eta bost puntuetan aurrerapenak izan direla azaldu dute asteon. Adierazi dute bi aldeek konpromisoak hartu dituztela.

Laburtuz, marko negoziatzailearen bermerako neurriak hartu dira; lanpostuen balorazio orokorraren korapiloak "askatu" dira eta aurrera begirako urratsak zehaztu eta adostu dira; belaunaldi erreleboa eta ezagutza transferitzeko planaren azterketa egiten ari da; Lan Hitzarmena negoziatzeko egutegia adosteko konpromisoa hartu dute, eta kontratazio-politikak eta enplegu-planak azterketa sakonagoa egitea eskatzen du. Azken puntu horri dagokionez, "denbora hartu eta elkarrizketa prozesu pausatuagoa" behar dutela adostu dute.

## OHARRAK

### Eguaztenak Oxirondon: haziak

Eguaztenak Oxirondon dinamikaren baitan, datorren eguaztenean, 17:30ean, haziei buruzko tailerra emango du Alekako kide Marta Barbak, eta landareen haziak nola gorde azalduko du. Gainera, haziekin egindako errezeta bat dastatzeko aukera egongo da.

### Eduardo Txillidari buruzko hitzaldia

Aurten 100 urte bete dira Eduardo Txillida jaio zela, eta, Goienagusik eta UNEDek antolatuta, *Chillida, 100 urte. Eskultore amets-forjatzailea* hitzaldia egingo du Chillida Leku museoko Ikerketa eta Hezkuntza Saileko zuzendari Nausica Sanchezek, azaroaren 27an, Seminarixoan, 10:00etan.

### Hitzaldia: 'Tortura eta inpunitatea'

*Itziarren seme-alabak torturari begira* ekimenaren baitan, Gure Arterak eta Olaso Dorrea Fundazioak antolatuta, hitzaldia egingo dute Iratxe Urizarrek eta Agus Herranek azaroaren 28an, Olaso Dorrean, 19:00etan. Hitzaldian, Behatokiaren egitasmoa azalduko dute. Herranek azalduko ditu nondik norakoak, eta, ondoren, Urizarrek torturaren errealitateaz eta "Estatuaren inpunitateaz" hitz egingo du.

# Urtarrilean hasiko dituzte Barrenkaleko lanak

Irisgarritasuna hobetzea dute helburu Barrenkale berriro urbanizatzeko lanek; maila berean geratuko dira bi aldeetako 1,20 metroko espaloiak eta errepidea –Artekale kaleak duen itxura berarekin–, eta azpiegitura sarea berritu egingo dute

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
Barrenkalea berriro urbanizatzeko lizitazio proiektua martxan, martitzenean aurkeztu zuen Bergarako Udalak proiektua, Barrenkaleko merkatarien, tabernarien eta bizilagunen aurrean. Bergarako alkate Gorka Artolak aurreratu duenez, "segurtasun handia ematen duten eta Bergara ondo ezagutzen duten" bi enpresa aurkeztu dira, eta abenduaren amaieran jakinaraziko dute zein enpresari esleitu zaizkion lanak. Aurreikuspenen arabera, urtarrilaren amaieran hasiko dituzte obrak. 1.600.570,26 euroko exekuzio-aurrekontua du –BEZa barne– eta hamar hilabeteko epea dago. Une oro bermatuko dute irisgarritasuna.

**Irisgarritasuna hobetzeko**

2017an BEB Arkitektoak SL enpresak idatzitako proiektua berrikusi, eta hobekuntzak eta aldaketak egin dizkiote. Barrenkalea koskarik gabeko kale bihurtuko dute: espaloiak eta errepidea uniformeak izango dira. 1,20 metroko baldosazko espaloia izango du alde banatan, eta errepidean galtzada-harria jarriko dute. Udalak jakinarazi duenez, galtzada-harriaren gaiak zalantzak sortu ditu bizilagunen artean, Artekalean gorabeheraren bat edo beste sortu duelako. Horregatik, "gaizki egindako gauzetatik ikasi" dutela nabarmendu dute, eta, Barrenkaleko galtzada-harriak berreskuratutakoan, moztu egingo dituzte.

Halaber, hasierako proiektuan kareharrizko galtzada-harriak jasota badaude ere, beste aukera bat da granitoa erabiltzea, baina aurrerago ikusiko dute zein erabili. Artolak gehitu du bistara Artekalearen itxura hartuko duela Barrenkaleak, baina materiala Konbenio kalearen estilokoa izango dela.

Azpiegiturei dagokienez, instalazio guztiak berrituko dira, eta, besteak beste, ur-sare bikoitza egingo dute eta argiteria berrituko dute.

**Herritarren eskura**

Udal Gobernuak Barrenkaleko etxebizitzei akta notariala jasotzeko eskaintza egin die. Era berean, badute asmoa enpresaren eta Udalaren arteko bitartekaria izendatzeko. Horrez gain, baloratu dute, herritarrei begira, obren bueltako arreta bulegoa jartzea.


**Barrenkalea, eguazten goizean.** I.A.A.

## Martxan da Danobatgroup-en Euskararen Eguneko lehiaketa

Galdera zuzen erantzuten dutenen artean bi lagunendako dastatze-menua zozketatuko dute, Belaustegi baserrirako

**I.A.A.** BERGARA
*Euskaraz izango gara* leloa mantenduz, beste urte batez, Danobatgroup kooperatibak lehiaketa antolatu du, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta, orokorrean, gizarte osoari zuzenduta dago lehiaketa. Abenduaren 3ra arte dago lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena ematen dutenen artean Belaustegi Baserrian bi pertsonarendako dastatze-menua zozkatuko dute.

Honako lotura honetan hartu daiteke parte: *https://labur.eus/qZSDG*.

Danobatgroup taldeak euskararekin duen konpromisoa berretsi nahi izan du gizarte osoari bideratutako lehiaketa horrekin: "Izan ere, euskaraz izango da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan…".

## Jay Industrial Cubertera erosi du Lacor Ibili taldeak

Galiziako Jay Industrial Cubertera enpresa erosi du Bergarako Lacor Ibili taldeak, eta, era horretan, helburu dute 100 milioi euroko negozioa erdiestea, berrehun pertsonako lantaldearekin. Adierazi dutenez, "altzairu herdoilgaitzezko eta zilarrezko mahai-tresnen fabrikatzaile espainiar bakarra" da Jay Industrial Cubertera, eta elkarrekin jardutea dute helburu bi konpainiek, lantalde zabalagoarekin negozioa handitzeko, besteak beste. Erosketa horrekin, 10.000 metro karratu handituko dira Lacor Ibiliren instalazioak, eta "errendimendu betean" jarraituko dutela jakinarazi dute Lacor Ibili taldeko arduradunek.

## Muhurtuko bunkerrera irteera egingo dute bihar

*Angiozar 1939. Egiaren bila* lantaldeak Muhurtuko bunkerrera irteera antolatu du. Azaldu dutenez, Muhurtu gainean bunker egonkor bat egon zen, eta zazpi hilabetez egon ziren Errepublikaren aurka altxatu ziren matxinatuak. Horregatik, mendi txangoa egingo dute, aurrera eraman nahi dituzten ekintzen berri emateko.

Goizeko bederatzietan aterako dira, Angiozarko plazatik; goizeko hamarretan, berriz, Goimendi auzoko San Migel Monte ermitatik. Goizeko hamaiketan, trintxeraren inguruko auzolan proiektuaren berri emango dute. 14:00etan, baba-jana egingo dute, Pagomendi elkartean.



# "Ez nuen uste txapel hau hain azkar etorriko zenik"

**PAULO AZPIAZU** HARRI-JASOTZAILEA

Ez zen haren asmoa harri-jasotzailea izatea, baina entrenatzen hasi eta hiru urtera irabazi du Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa; haren ustez, txapelik garrantzitsuena

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Azaroaren 16an Abadiñon jokatu zen Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa irabazi zuen Paulo Azpiazuk (Bergara, 1996). 125 kiloko koadroa 31 aldiz altxatu zuen; 125 kiloko kopa, 30 aldiz; 112,5eko kuboa, 18 aldiz; eta 100 kiloko bola, 29 aldiz. Azken sei urteetan garaile izan den Mikel Lopetegi *Urra*-k ez zuen jokatu, min hartuta zegoelako, eta bergararra zen faborito.



Azpiazu, harria altxatzen, Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketan. IBON ERRAZU URIA

**Pronostikoa beteta, gustura?**

Faboritoa nintzen, baina zertxobait hobetoxeago egiteko asmoa neukan. Gaizki ez nuen egin, baina buruan zenbaki batzuk nituen. Adibidez, kuboan kale egin nuen. 20 altxaldi egitea zen asmoa eta 18 egin nituen. Nahiko kurioso aritu nintzen.

**Guztira 12.550 kilo jaso zenituen 12 minutuan; erraza izan al da errekuperatzea?**

Norberaren araberakoa da. Nik dena oso zehatz eramaten dut: janaria, otorduak... Txapelketaren hurrengo egunean, goizean, harri-jasotze erakustaldi batean izan nintzen. Astelehenean pisuak altxatzen aritu nintzen. Orduan, ni ondo nago.

**2021ean hasi zinen entrenatzen: 2022ko eta 2023ko txapeldunordea zara; orain, irabazle. Emaitzak espero zenituen?**

Egia esan, ez, ez bainator harri mundutik. Pisuak altxatzen hasi nintzen duela urte asko, baina nire asmoa zen kulturista izatea edo beste kirol batean zentratzea; ez harri-jasotzailea izatea. Duela hiru urte, ordea, Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.*a ezagutu nuen. Harria probatzera joan nintzen, eta esan zidan ezaugarriak nituela harri-jasotze munduan aritzeko. Motibatu egin ninduen. Nik ere ez dut akatsik egin, baina ez nuen uste.

**Txapel horrekin, azken bi urteetako arantza kendu duzu?**

Bai, bueno... Hiru urte harri-jasotzen ibiltzea ez da asko. Normalean, harri-jasotzaileak 15-20 urterekin hasten dira, ume-umetatik. Nire asmoa ez da inoiz izan harri-jasotzailea izatea, baina orain hasi zait buruan sartzen txapelak irabazteko aukerak ditudala. Hasiera batean, nire helburua zen txapelketa batera joan, ahalik eta ondoen egin eta ikastea. Poliki-poliki hasi nintzen. Bigarrena, bigarrena... Orain, *Urra*-k ezin izan du parte hartu eta lehena izan naiz. Oso pertsona konpetitiboa naiz, baina ez nuen uste txapel hori hain azkar etorriko zenik.

**"BURUARI BUELTAK EMATEN ARI NAIZ DATORREN URTEAN HARRI HANDIETARA SALTO EGITEKO"**

**Iazko txapelketan deshidratatuta eta kordea galduta atera zintuzten plazatik; berriro errepikatzeko beldurra zenuen? Faborito izatearen presioa ere bazenuen.**

Txapelketak askotariko lekuetan izaten dira. Batzuetan, plazan; beste batzuetan, frontoian, probalekuan... Horrek asko aldatzen du, harriak berberak izan arren giroa asko aldatzen delako. Iaz, Gernikako plazan egin genuen. Sekulako beroa egiten zuen, eta ospitalean amaitu nuen. Aurten, sentsazio nahasketa izan dut, eta ez nuen egoera bera bizi nahi.

**Harri mota eta txapelketa guztietatik zein dituzu gustukoen?**

Garrantzitsuena Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa da niretzat. Gero, Gipuzkoako Txapelketa; Igeldoko Harriak ere izen handia dauka. Nire harririk gustukoena edo hasieratik harreman hobea izan dudana, berriz, bola da.

**Harri txikiekin aritzen zara; ikusiko zaitugu harri handiekin?**

Bakoitzak genetika eta gorpuzkera bat dauzka. Nire gorputza harri txikien eta handien tartean dago. Klubaren araberakoa ere bada. Buruari bueltak ematen ari naiz datorren urtean harri handietara salto egiteko.

**Hurrengo helburua zein da?**

Orain, Bengoako Txapelketa daukagu. Xabier Aranburu *Guzta*-rekin osatuko dut bikotea, eta hori kurioso egin nahiko nuke. Eta Iraetako Errota Harria urtarrilean izango da.



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

## Higa bueltan da!

Gogoan daukat 2018ko Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Topaketa (HIGA) historiko hura. Zenbat hizkuntza berri, zenbat kultura berri... Eta zenbat lagun berri! Esango nuke momentu hark nire bizitzan bi etapa bereizi zituela. Mundua deskubritu nuen sentsazioa neukan. Indarra eman zidan hizkuntza gutxituen aldeko borrokan jarraitzeko. Begiak itxi eta HIGA hartara itzultzen naiz, baina sei urte baino gehiago pasa da jada.

Zortez, 2023an beste HIGA bat bizitzeko aukera izan nuen, eta, kasu hartan, beste perspektiba batetik! Nola deskribatu bost urte lehenago egindako lagunetako batzuekin hurrengo HIGA antolatzeko lanetan aritzeko plazera? Eta berriro ere: zenbat esperientzia berri, zenbat lagun berri! Hitzez azaldu ezinezko esperientzia hura ere. Urtebete baino gehiago pasa da jada. Begiak itxi eta urteek alde egiten dute. Tira, berriro itxiko ditut begiak orduan; izan ere, badator hurrengo HIGA! Berriro ere esperientzia paregabe hori bizitzeko aukera egongo da 2025ean, eta, horretarako, izen ematea zabalik dago! Nork utziko lioke horrelako opari bati ihes egiten? Nik ez, behintzat.

## Boulder topaketa egingo dute Labegaraietan bihar

Bihar, 16:00etan hasita, 16 urtetik gorakoei zuzendutako boulder topaketa egingo dute Labegaraieta kiroldegiko rokodromoan, Bergarako Udalak eta Pol-Pol mendi taldeak antolatuta. Parte hartzeko, izena eman beharko da, egun berean, aurrez, 15:30ean. Antolatzaileek 19:30erako amaitzea espero dute. 20:00 aldera, luntxa izango da.



Labegaraietako rokodromoa. GOIENA



NEKANE MUÑOZ

## Kontxako Bandera helburu

Eguazten iluntzean, *Traineras. Pasión por el remo* dokumentala eman zuten Seminarixoan, ZinemaOn zineklubaren eskutik. Emanaldiaren ostean, solasaldia egin zuten ikus-entzunezkoko protagonista nagusietako bat den Izaro Lestayo getariarrarekin, eta ondoan izan zuen Nerea Agirrezabal arraunlari bergarararra.



Bandakideen agurra, 2023ko Santa Zeziliaren omenezko kontzertuan. GOIENA

# Zaindaria omenduko dute, kontzertu berezia eginda

Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia emango du bandak domekan (12:30); eguraldia ona bada, kalejira egingo dute (11:30) eta emanaldia plazan izango da, bestela, San Pedro elizan. 70 urtez bandakide izan den Joxe Ramon Lazkano agurtu egingo dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Musikarien zaindariaren omenezko kalejira eta kontzertua egin nahi ditu bandak domekan. Eguraldia lagun badute, kalejiran irtengo dira 11:30ean eta 12:30ean plazan joko dute. Euri edota hotz arriskua badago, San Pedro elizan joko dute. "Frontoian obretan daude eta ezingo dugu bertan jo; eskerrik asko parrokiari, beti bezala, laguntzearren", dio bandako zuzendari Enrike Txurrukak; domeka goizean hartuko dute erabakia.

**Lazkano, 70 urte bandan**

Santa Zeziliaren omenezkoa izanik, banda "beti" saiatzen da kontzertu berezia prestatzen. Oraingoan, gainera, uztailean azken kontzertua eman zuen Joxe Ramon Lazkano saxofoi-joleari agur berezia egingo diote: "2019an Alfredorekin [Gonzalez Chirlaque] batera erretiratu zirenen artean zegoen Joxe Ramon ere, baina aste pare batera itzuli egin zen, musika faltan igartzen zuela eta! Orain, adarra jotzen diogu, ea oraingoan benetan izango den edo ez... 13 urterekin hasi zen, eta 83 urterekin utziko du. 70 urte bandan jotzen! Saxofoien familiako guztiak jo ditu, txikienetik handienera: sopranoa, altua, tenorra eta, azkenik, urte gehien, baritonoarekin. Beti alai, beti konprometituta, denontzat eredu. Belaunaldien arteko balioak ederki transmititu dizkigu. Harekin jotzeko ohorea izan dugun guztiongan erein du musikarekiko maitasunaren hazia. Bandan jotzen jarraituko du semeak, eta musika ikasten dauzka ilobak ere".

Bost pieza joko dituzte: Valentziako hondamendia bizi izan dutenekin keinu bat izateko, Pedro Sosaren *Lo cant del Valencia;* Jesus Guridiren *El caserío;* Pablo Sorozabalen *La isla de las perlas;* Rossano Galanteren *Mount Everest;* eta, azkenik, Enrike Txurrukak berak egin dituen Hertzainak rock taldearen zenbait kanturen moldaketa.

**Alai Berri eta txistulariak**

Bestalde, Santa Zeziliaren omenezko emanaldi bereziak egingo dituzte Alai Berri abesbatzak eta Txistulari Bandak. Alai Berrikoak kalejiran irtengo dira gaur, 18:30ean, eta txistularien kalejira, berriz, domekan izango da, 11:30ean –12:30ean kontzertua emango dute udaletxean–.

## 2019an zen erretiratzekoa, baina ezin

2019ko ekainaren 9ko kontzertua izan zen azkena ordura arte 32 urtez banda zuzendu zuen Alfredo Gonzalez Chirlaquerentzat. Agur hura baliatu zuten erretiratzera zihoazen beste bandakide batzuk ere omentzeko; tartean, Joxe Ramon Lazkano. Hala ere, gutxira itzuli zen Lazkano bandara, eta aurtengo uztailean eman zuen azken kontzertua; domekan "aipamen txiki bat" egingo diote.



Lazkano –loreekin–, 2019an bandakide batzuek jasotako omenaldian. GOIENA

## Organo erromantiko berritua entzuteko kontzertu berezia

San Pedro elizako Stoltz Freres organo erromantikoa berritu osteko lehen kontzertua egingo du 2008a ezkero organo-jole titularra den Aitor Oleak, abenduaren 8an (18:00). Atzo egin zuten prentsa agerraldia kontzertu berezia iragartzeko, eta, organoa estreinatzeko kontzertu ofizialaz gain, beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte: abenduaren 5ean, hitzaldia egongo da organoaren zaharberritzeaz arduratu diren Michel Jurine eta Artez enpresako ordezkarien eskutik; eta abenduaren 8an bertan, kanpai-jotzaileen erakustaldia (11:00) eta organoa bedeinkatzeko meza izango dituzte (12:30). Sarrera doakoa izango da.

## Amodiozko Gutunak: izena emateko aukera, urtarrilaren 7ra arte

Zabalik dago izena emateko aukera Jardunek antolatzen dituen Amodiozko Gutunen eta Esaldien lehiaketetan. 2009an edo lehenago jaiotako edozeinek eman dezake izena, urtarrilaren 7a baino lehen: *amodiozkogutunak@gmail.com,* 605 71 214 69 edo *jardun.eus*. Gutunen lehiaketak bost sari izango ditu: sari nagusia, 500 eurokoa; bigarren saria, 250 eurokoa; bergarar onenarendako saria, 150 eurokoa; 1998an edo geroago jaiotakoen onena, 150 euro; lehen aldiz parte hartzen dutenen arteko onena, 100 euro. Gutun berak ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu. Esaldi onena egiten duenak, berriz, 100 euroko saria jasoko du.

## Presidente Indio, Zikin eta Tatxers, kartzela zaharrean, gaur

"*Zuk zeuk egin* filosofia oinarri eta musikaren merkantilizazioaren aurka" sortutako Oztoporik Ez! kolektiboak jaialdia antolatu du gaurko, hilak 22, kartzela zaharrean: Presidente Indio, Zikin eta Tatxers. Presidente Indiok hiperpunka eskainiko du, "argiendako punka, bihotzarendako hardcorea". Lekeitioko Zikin bigarren lanarekin dator, "hardcore punk, post-punk, death-rock eta ukitu rockerren nahasketa pertsonalarekin". Amaitzeko, Iruñeko Tatxers "pop talde bibotedunak" joko du. 21:30ean irekiko dituzte ateak eta kontzertuak 22:30ean hasiko dira; sarreraren prezioa zortzi euro da, eta egunean bertan erosi ahalko dira.

## Azaroa Gaztainatan: Fermin Balentzia gaur, Txuringon (20:00)

Osintxuko Azaroa Gaztainatan ekimenaren barruan, Fermin Balentzia (Getze, 1948) bakarlari nafarraren kontzertua antolatu dute gaurko, hilak 22, Txuringo tabernan (20:00). Kantu-poteoa ere egin behar zuten, baina aurreago egingo dute, eta Balentziaren emanaldia bakarrik antolatu dute gaurko. Bestalde, azaroaren 24rako, auzoko erretiratuen bazkaria antolatu dute, Txuringon (14:30), eta, ekimena amaitzeko, azaroaren 30ean, Irene, Markel eta Maddi hirukotearen musika emanaldia izango dute –Txuringo tabernan, 19:30ean–. Bergarako Udalaren eta Soraluce enpresaren laguntza jaso dute ekintzok antolatzeko.



# Indartsu da Meaka-Irimo, ekarpenak egiteko asmoz

Urtebeteren ondoren, taldea "handitu" egin nahi duten arren, plataformakoek aurrera jarraitzea erabaki dute. Hainbat ekintza antolatu dituzte datozen hiru hilabeteetarako, eta abenduaren 18an izango da lehena: Amaia Perez Orozcoren hitzaldia

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Meaka-Irimo herri plataformaren ibilbideak urtebete egin du, eta lanean jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute taldekideek: "Indartsu", gainera. "Denbora ez baita alferrik pasatzen, eta talde honek, egindako bidean, aukerak sortu ditu energiaren ertzetan arakatzeko, eta jasotako ezagutzan, zalantza berriak azaltzearekin batera, indarra ere aurkitu dugu". Bada, orain arteko indar horri eutsiz, ekarpenak egiteko asmoa dute datozen hilabeteetan ere: "Ahaztu gabe mehatxu horrek –batik bat, Trekutz parke eolikoarenak, Antzuolako kasuan– kalean ere izan behar duen presentzia".




*Trekutz parke eolikoa* proiektuaren aurkako pankarta bat. GOIENA

Hori dela eta, abenduaren 18an, eguaztena, izango da lehenengo ekintza: Amaia Perez Orozcok, ekonomialari feministak eta Nazioarteko Ekonomian eta Garapenean doktoreak, hitzaldia egingo du. Abenduaren 23an, berriz, astelehena, elkarretaratzea egingo dute, Eusko Jaurlaritzaren atarian, Gasteizen, Trekutz parke eolikoaren proiektuarekin ez daudela ados aldarrikatzeko. Horrez gain, abenduaren 26an, San Esteban Eguna dela-eta, erakusmahaia jarriko dute. Eta abenduaren 31rako, berriz, irteera antolatu dute Irimora, iaz egin bezala.

**PLATAFORMAKOEN HITZETAN, EGINIKO BIDEAN, ENERGIAREN ERTZETAN ARAKATU AHAL IZAN DUTE**

**Urtarriletik aurrera, gehiago**

Datorren urterako ekintza batzuk ere programatuta dituzte. Esate baterako, urtarrilaren 29an, *Vidas irrenovables* dokumentalaren emanaldia izango da, eta, ondoren, Francisco J. Vaquero zuzendariarekin solasaldia. Otsailaren erdialdean, berriz, data zehaztu gabe dagoen arren, Fernando Valladaresen hitzaldia izango da, CSIC Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko ikerlari eta unibertsitateko irakaslearena: hain zuzen ere, azaldu dutenez, Biologian doktorea da, eta biodibertsitateak klima aldaketan duen rola ikertu du: "Gizakion jarduerak ekosisteman duen eragina".

## Mobilizazioa Eusko Jaurlaritzan

Jaurlaritzak, plataformaren arabera, ez du Trekutz parke eolikoaren xehetasunik eman oraindik, baina azaldu dute, "komunikabideen arabera", Cilda Energy enpresak urte bukaerara arteko epea hartu duela zer egin erabakitzeko. Bitartean, mobilizatzen jarraituko dute, hilaren 19an Eusko Jaurlaritzaren atarian, Gasteizen, egin bezala.




Martitzenean Eusko Jaurlaritzaren atarian eginiko elkarretaratzea. MEAKA-IRIMO

## GOIENA aldizkaria etxean jasotzeko, eskaera egin behar da

Antzuolarrek hilabete dute eskaera egiteko, eta ezinbestekoa da, aldizkaria jasotzen jarraitu nahi badute

**A.R.K.** ANTZUOLA

GOIENA aldizkaria aurrerantzean ere etxean jaso nahi izanez gero, eskaria egin beharko dute antzuolarrek. Horretarako, bost bide jarri ditu eskura Goiena Komunikazio Taldeak: Whatsapp edo Telegram bidez, 688 69 00 07 telefonoa; posta elektronikoz, *harpidetza@goiena.eus* helbidea; telefonoz, 943 25 05 05 zenbakia; eta eskaera-orria beteta, udaletxean edo online.




*Goiena* aldizkariaren ale batzuk. GOIENA

Eskaera egiterakoan, izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, jaiotza-data, telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta helbidea aipatu behar dira, eta hilabeteko epemuga zehaztu dute: abendua erdialdera arte, gutxi gorabehera. Goienakide direnek, ordea, ez dute eskaerarik egin beharko: "Orain arte bezala, GOIENA eta *Puntua* aldizkariak jasoko dituzte egubakoitzero, orain eta baita hilabete barru ere".

**Zerbitzua "hobetzeko"**

Goienaren asmoa "ekologian" urratsak egitea da, aldizkaria nahi duenari eskaintzea eta datuak eguneratzea.

A25

### 'Lotsa aldez aldatuko dugu' izango du lelo elkarretaratzeak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da astelehenean, azaroaren 25ean, eta, urtero legez, elkarretaratzea egingo dute Antzuolan: Andramanuelak emakume taldeak antolatuta, Udalarekin batera, arratsaldeko zazpietan izango da, *Lotsa aldez aldatuko dugu* lelopean.

Hala ere, izango da egitekorik aurretik, etzi, hilaren 24an, Nagore Aranburu aktore euskal herritarra protagonista duen *Querer* seriearen azken bi kapituluak proiektatuko baitira gaztetxean –guztira, lau atal dira–, arratsaldeko seietan hasita: hain zuzen ere, joan den domekan, hilaren 17an, proiektatu zituzten lehen biak, eta, horrenbestez, amaitu egingo dute seriea ikusten.

### Hamabost dortsal zozkatuko dituzte A8M lasterketarako

2025eko otsailaren 22an, zapatua, izango da hurrengo Antzuolako 8 Miliak lasterketa, eta antolatzaileek hamabost dortsal zozkatuko dituzte herritarren artean: helduen lasterketarako hamar izango dira eta gazteenerako, berriz, bost. Hala, interesa duen herritar orok mezu bat bidali behar du *antzuolako8m@gmail.con* helbidera: izen-abizenak, jaiotza-data eta telefono-zenbakia jarri behar dira. Zozketa abenduaren 11n egingo dute, 19:00etan, eta egun hori izango da, hain zuzen ere, parte hartzeko azkenekoa, goizeko hamarrak arte.

Dortsalik lortzen ez dutenek abenduaren 21etik aurrera izango dute bat eskuratzeko aukera, orduan zabalduko baitute izen-emate ofiziala, *herrikrosa.eus* webgunean: 09:00etan irekiko dute epea, baina azken urteetan ordu gutxian agortu dira dortsalak.

# Herriko bertso eskolako bederatzi kide, oholtzara

Kaleko bertso eskolaren eskutik, herri mailako bertsolari txapelketa jokatuko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Bertsolariak hiruko hiru taldetan banatuko dituzte, eta hainbat ariketa egiten beharko dituzte, "umoretik eta ondo pasatuz"



Txapelketan parte hartuko duteneko batzuk. JON MATA

**Mireia Bikuña Madrid** ANTZUOLA

Herri mailako bertsolari txapelketa jokatuko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean, Kaleko bertso eskolaren eskutik. Herriko bederatzi bertsolari igoko dira oholtzara: Iñaki Gurrutxaga *Gurru*, Txomin Alberdi, Aritz Kortabarria, Olatz Abasolo, Alazne Jauregi, Jon Mata, Iñaki Aldazabal, Ibai Zabalo *Faran* eta Ion Lizarazu *Ionli.* Hiruko hiru taldetan banatuko dituzte, eta, banaka kantatuko duten arren, puntuazioa taldearendako izango da. "Asmoa da bertso saio umoretsua egitea. Hau da, bertso saioetan gai sakonak lantzen diren mito hori apurtu gurako genuke. Alegia, umoretik eta ondo pasatuz bertso txukunak egin daitezkeela erakutsi gura dugu", esan du bertso eskolako eta txapelketako partaide Jon Matak.

Hasierako eta bukaerako agurraz gain, bederatzi ariketa egin beharko dituzte: oinak emanda bertsoak osatzea, Ganbara formatuan; koplaka ofizioak; zortziko txikian ofizioak kantatzea; azken aurreko puntua emanda bertsoa osatzea; errima berean, puntuka, oinak bukatu arte bertsoa osatzea; *Oinak asmatzera* ariketa; tribiala; *Pertsonaia asmatzera* ariketa; eta puntu erantzunak, Ganbara formatuan.

Iraia Gabilondo izango da gai-jartzailea, eta bertsolariei erronka botako diena.

### Herritarrei gonbita

Urretxuko eta Zumarragako bertso eskolek *Martxoan bertsoa* taldekako txapelketa egiten dute urtero. Antzuolako bertso eskolako kide batzuk egon ziren saioetako bat ikusten aurtengo txapelketan, eta han sortu zen herrian halako bat egitearen ideia. "Asko gustatu zitzaigun proposamena: alde batetik, bertso saioek transmititzen duten seriotasunetik harago, beste saio mota batzuk egin daitezkeelako; eta, beste alde batetik, inoiz jendaurrean bertsotan egin ez dutenendako aukera ezin hobea delako. Txapelketan jardungo dugunetako batzuk ibili izan gara jendaurrean kantuan; baina beste batzuendako lehen aldia izango da. Beraz, egun berezia izango da; lagunen babesean kantatzekoa, baina, publikoaren aurrean", esan du.

**BATZUEK LEHEN ALDIZ KANTATUKO DUTE JENDAURREAN; BESTE BATZUEK BADUTE ESKARMENTUA**

Kaleko bertso eskolaren su txikian egosi duten hori oholtza gainean erakusteko ordua heldu zaie txapelketan parte hartuko dute bederatziei. Bada, haien lana epaitzen egongo direnez gain, herritarren babesa ere "oso garrantzitsua" dela uste dute antolatzaileek. "Gaztetxean elkartuko gara, eta gurako genuke herritarrak ere bertan egotea. Txapelketa hasi baino lehenago zabalduko dituzte ateak. Beraz, herritarrak eta bertsozaleak gonbidatu gura ditugu, herriko lehen txapelketaz goza dezaten. Ondo pasako dute".

### Bertsogintzan eragiteko

Zaletasunean eragin guran sortu zen Kaleko bertso eskola, duela bi urte; herriko bertso zaletasunean eta bertsolaritzan eragitea, alegia. Hain zuzen ere, hasierako asmo horretan sakontzen jarraitzeko aukera ematen du herri mailako txapelketak. "Bertsogintza nahiko geldi zegoen Antzuolan, eta taldetxo bat hasi ginen elkartzen, formatu formalik gabe, bertsotan lasai jarduteko. Baina helburu nagusia zen, eta oraindik ere bada, garai batean gure herrian zegoen bertsogintzari bultzada ematea. Bertsotan egin gura dutenei aukera ematea, eta bertsoak entzun gura dutenei ere bai", azaldu dute.

Hortaz, bertso eskolan lehen urratsak egin gura dituenak zabalik ditu ateak. Eguaztenetan elkartzen dira, gaztetxean, 19:00etan. Ez dute gutxieneko mailarik eskatzen, eta ez dago adin mugarik. Gaur egun, 20 eta 50 urte arteko zazpi bat lagun elkartzen dira. "Etorri guregana. Ez izan beldurrik. Kantuan egin gura duenak edo bertsopaperetan jardun gura duenak. Guztiek dute lekua".

## Santa Zeziliaren omenez, txistulariak eta txaranga

Gaur, azaroak 22, Santa Zezilia Eguna da. Musikarien zaindaria, alegia. Hala, herriko hainbat musikari kalera irtengo dira, eguna ospatze aldera. Alde batetik, Alboradak txistulari taldeak kalejira egingo du, 19:00etan, Herriko Plazatik hasita. Askotariko piezak joko dituzte kalerik kale.

Beste alde batetik, Beti Gorri txarangak ere girotuko ditu kaleak. 19:30ean irtengo dira, kultura etxetik, eta ordubeteko kalejira egingo dute. Herria goitik behera zeharkatuko dute, eta taberna batzuen aurrean geratuko dira pieza batzuk, geldi, jotzeko. Zurrategin bukatuko dute emanaldia.

## Patxi Olabarriak bere azken liburua aurkeztuko du 26an

*Gipuzkoako armarria, gure historiaren ispilu* izenburuko liburua aurkeztuko du Patxi Olabarriak, hilaren 26an, Olaran etxeko beheko aretoan, 18:30ean. Ekitaldi irekia da, interesa duten herritar guztiendako.

Beste behin, armarriak hartu ditu hizpide Olabarriak. Kasu horretan, Gipuzkoako armarria. "Gipuzkoako armarri bihurtuko zen lehenengo zigiluan, XV. mendeko gipuzkoarrek gure herriaren historia kontatu nahi izan zuten. Eta bertan, haien nafar sustraiak agertzen ziren. Baina hori ez zen Gaztelaren gustukoa, eta kanoiak ezarri zituzten, euskaldunon arteko zatiketa indartzeko", dio egileak.

## Berriztagarrien gaineko bi saio praktiko eta ireki

Azaroaren 28an eta abenduaren 10ean egingo dituzte bi saioak, Energia Argitu programaren baitan. Azarokoa norbere etxebizitzarako berokuntza sistemarik egokiena zein den ezagutzeko tailerra da; eta abendukoa, etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren inguruan informatzeko tailerra.

Bi tailerretako edozeinetan parte hartzeko izena eman behar da, aurrez: 505 75 76 87 telefonoan edo *energiabulegoa@gipuzkoa.eus* helbidean.

Energia Argitu programaren helburua da energiaren kontsumoaren murrizketa lortzeko tresnak askotariko sektoreen esku jartzea.

## GORA ETA BEHERA



### Trenbide zaharrean banku bat ipini dute, atsedenerako

Bada hilabete baino gehiago trenbidean banku bat jarri dutela, eta herritar batek erabakia txalotu du: "Ez dakit nori dagokion ardura, baina paseoan gabiltzanok eskertu egiten dugu".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# "Heriotzak arlo asko ditu, eta ez ditugu lantzen"

Tanatologoa eta 'Hil arte bizi' egitasmoko bultzatzailea da Nere Erkiaga. Heriotzaren aurrean hobeto kokatu gaitezkeela defendatzen du: "Mina ez da desagertzen, mina bera izango da, baina ez gara hain gizagabeak izango, hain ezgauzak"

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA
Herri liburutegia BiblioHotz zikloa egiten ari da eta aste honetan Nere Erkiagaren txanda izan da. Elgetako hitzaldia egin aurretik, GOIENAk egindako galderei erantzunez, Erkiagak esan du heriotza tabu "itzela" dela oraindik ere gizartean, eta horrek zeharo baldintzatzen duela jendearen kokapena haren aurrean. "Gutxi hitz egiten da pazienteen eskubideen inguruan, aurretiazko borondateen dokumentua egiteko eskubideaz, zaintza aringarriak jasotzeko eskubideaz, eutanasiaz...".

Ondasunen kudeaketa, testamentua, heriotzaren aurreko ikara, bizi-legatua... gai potoloak dira, baina heldu beharrekoak, eta ez dakigu nola, Erkiagaren iritziz. "Berezko baliabideak ditugu heriotzak sortzen dituen hutsuneei eta kezkei erantzuna emateko, baina ez ditugu garatzen. Gure gizartean heriotzari ematen zaion trataerak deusez-


Nere Erkiaga tanatologoa. IMANOL SORIANO

tatu egiten gaitu. Gai horren inguruan gizarte mailan ditugun ezintasunek kalte handia eragiten digute, txotxongilo bihurtzeraino". Norberaren heriotzaren aurrean zein gertukoen heriotzaren eta doluaren aurrean

**"HERIOTZAREN INGURUAN DITUGUN EZINTASUNEK KALTE HANDIA EGITEN DIGUTE"**

egoteko gaitasunaren inguruan ari da Erkiaga. "Heriotzaren aurrean hobeto kokatzeak ez du mina kentzen, baina ez gara hain gizagabeak izango, hain ezgauzak". Gako interesgarri asko eman ditu adituak.

**Hurrengoa, ipuin saioa**
BiblioHotz zikloari amaiera emateko, ipuin kontaketa saioa egingo du Bego Alabazanek: *Azken bisitaria* izeneko saioa egingo du, liburutegian, hilaren 29an, 19:00etan.


Alberto Agirreazaldegi, aurkezpena egiten, liburutegian. L.Z.L.

## Elgetako errituak duela 50 bat urte

Heriotza-errituen inguruan aritu zen Alberto Agirreazaldegi aurreko astean. Gauza asko aipatu zituen: auzo hurrenen egitekoak, argizaiolak –Elgetan hiru puntakoak–, hil-kanpaiak –gizonendako zazpi eta emakumeendako bost–, familiaren egona arintzeko gaubeilak, etxe bakoitza zegokion hilobiarekin lotzeko ezarrita zeuden andabideen garrantzia, hilkutxa elizaraino bizkar gainean eramaten zuten andariak, bidegurutze ia guztietan errezatzen ziren errespontsuak eta egiten ziren erreketak, hileta kategoriak –lehen mailakoak, bigarrenekoak eta hirugarrenekoak–, elizan egoten ziren sepulturak –zenbakiak ikus daitezke oraindik ere Elgetako elizan–, horien gainean egoten ziren luto-bankuak, oihalak eta argiak, meza-dirua, zorpetzerainoko hileta-bazkariak eta ondra-janak... la guztiz desagertuta dauden errituez aritu zen.

A25

# Indarkeria matxisten aurrean erantzun kolektiborako deia

Amantalak talde feministak umeendako tailerra egingo du gaur; asteleheneko elkarretaratzea 19:30ean izango da

**L.Z.L.** ELGETA
Emakumeen kontrako indarkeria fisikoak zein fisikotik igarotzen ez diren eta askotarikoak diren beste indarkeria mota guztiak salatuko dituzte egunotan Elgetan ere. "Ekintzak gaur bertan hasiko dira", azaldu dute Amantalak talde feministakoek. "Sentsibilizazio eta eskulan tailerra egingo dugu ludoteka atarian. Umeei zuzendutako tailerra izango da, baina helduak ere etor daitezke, noski", esan dute. Ludoteka zerbitzuak 16:00etan zabaltzen ditu ateak, eta ordu horren bueltan hasiko da tailerra.

**Elkarretaratzea astelehenean**
Astelehena da aurten Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Elgetako elkarretaratzea 19:30erako deitu dute, Udalak eta Amantalak talde feministak. Kontzentrazioa Mendizaleen plazan egingo dute.



Iaz Elgetan egindako manifestazioa. L.Z.L.

2003a ezkero, indarkeria matxistak 124 emakumeren eta hamabi umeren heriotza eragin du Euskal Herrian. Datuak ez dira itxaropentsuak; komisarietan eta arreta zentroetan artatzen diren kasuak gero eta gehiago dira, eta indarkeria motak askotarikoak. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko arreta zerbitzua urteko 365 egunetan eta egunean 24 orduz dago erabilgarri. Telefono-zenbakia hau da: 900 84 01 11.

## Menopausian nola elikatu ikasteko tailerra, hastear

*Nola aurre egin etapa berri honi ikuspuntu feminista batetik* izenburupean antolatu du tailerra Elgetako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Mireia Alberdi dietista eta nutrizionista bergararrak gidatuko du tailerra eta menopausian egoki elikatzeko gomendioak emango ditu. Bina orduko hiru saioko tailerra izango da. Saioak azaroaren 27an eta abenduaren 4an eta 11n izango dira, 18:00etatik 20:00etara, udaletxeko areto nagusian.

Zabalik da izena emateko epea. Interesatuek udal zerbitzuetara jo behar dute, udaletxeko harrerara joanda, *udala@elgeta.eus* helbidera idatzita edo 626 52 72 12 telefonora deituta.

# Valentzian dira Elgetan bildutako produktuak

Astebeteko epean jasotakoak autoan sartu, eta eguaztenean egin zuen Valentziarako bidea Iratxe Bravok. Aitziber Jaio elorriarra lagun, bost egun egingo ditu Tagoro animalia-zentroan. Egoerak kaotikoa izaten jarraitzen duela diote

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Tagoro zentroan harrera oso ona egin dietela adierazi du Iratxe Bravok Valentziatik. "Ez genekien oso ondo zein izango zen egoera, eta berandu iritsi ginen gauean. Hala eta guztiz ere, afaria eta logela eman zizkiguten", esan du Bravok. Biharamun goizean, burdinazko kontainer bat margotzen jarri zituzten. "Zelaiak harriz eta lokatzez beteta daude, lursailak mugatzen zituzten hormak jausita daude, eta animaliendako burdinazko kontainer handiak jarri dituzte. Gorriak dira eta bero handia pilatzen da. Zuriz margotzen ari gara, tenperatura hainbeste ez igotzeko".

Langabezian dago Jaio eta jaiegunak ditu Bravok. "Hemen badago zer egina, eta, aukera dugunez, bertan geldituko gara bost egunez, ahal dugun neurrian laguntzeko. Gaur arratsaldeko plana da zelaietan dauden harriak kentzea, animaliak kanpora atera ahal izateko. Lagun kuadrilla handia da etortzekoa, eta gu ere gehitu egingo gara".



Aitziber Jaio eta Iratxe Bravo, Valentziako Tagoro zentroan, eguen goizean. I.B.

### Tagoro zentroan oso eskertuta

Valentziara abiatu aurretik, Tagoro zentroko arduradunekin kontaktuan zeuden Jaio eta Bravo. "Oso ondo hartu gaituzte, eta ekarri dugun materiala behar dute. Animalia zaurituak erreskatatzen jarraitzen dute hemen; izan ere, milaka animalia hilda daude zelaietan. Ikusi dugu zaldi bat hainbat egunetan triparaino lokatzetan sartuta egon dena... Lanik ez da falta hemen".

> "ZELAIAK HARRIZ BETETA DAUDE, ETA KENTZEKO DAUDEN HILDAKO ANIMALIAK ASKO DIRA"

### Bilketarekin jarraituko dute

Egoera zein den bertatik bertara ikusi ondoren, Tagoro zentroan zein materiala behar duten zehatzago jakingo dute Bravok eta Jaiok. "Elkartasun bilketarekin jarraitzeko asmoa dugu. Uste dugu hori izango dela aurrerantzean laguntzeko modurik eraginkorrena: materiala batzea eta bidaltzea". Bilketa moduak antolatu bezain pronto emango dute horren berri.

## Janaria, botikak eta garbiketa-produktuak

Astebete eskasean auto bat goraino betetzeko beste material batu du Iratxe Bravok Elgetan. "Batu ditugu animaliendako janaria eta botikak, bi ur-ponpa, garbiketa-lanetarako erratzak, palak, eskularruak eta trapuak... Jendeak ondo erantzun du", esan du. Valentziako Tagoro zentroan da dagoeneko materiala. Atzo goizean deskargatu zuten.



Elgetan batutako materiala Tagoro zentroan deskargatzen, eguenean. I.B.



Inma Rafael eta Eder Yuguero kantuan. BIOK

# Folk, rock eta pop kantu ezagunen bertsioak joko dituzte

Inma Rafaelek eta Eder Yuguerok osatzen dute Biok taldea; Ozkarbi elkartean abestuko dute, gaur, 19:30ean

**L.Z.L.** ELGETA

"Pandemian hasi ginen elkarrekin abesten. Ederrek perkusioa jotzen du hainbat taldetan, eta ni abesbatzetan eta ahots taldeetan ibili izan naiz beti. Pandemian, ordea, gure errepertorioa egiten hasi ginen. Ordutik, pop-rock-folk bertsio akustikoak egiten ditugu, bi ahotsetara. Gure bertsioak dira. Ahotsei garrantzi handia ematen diegu", azaltzen du Inma Rafaelek.

### Kontzertu intimoa

Ozkarbiko kontzertua gitarrarekin eta kaxoiarekin egingo dute. "Kontzertu intimoa izango da. Kanturen batean edo bestean baxua ere erabiliko dugu, baina bi ahotsek izango dute protagonismo nagusia".

Zer-nolako errepertorioa eskainiko duten galdetuta, The Beatles, Bob Dylan, The Cranberries, Dolly Parton, Adele, Izaro, Tahures Zurdos, Morgan, Zea Mays, Gari, Itoiz eta Hertzainak aipatu ditu Rafaelek. "Ingelesezko folk eta pop taldeen bertsioak egiten hasi ginen, baina azken hilabeteetan euskarazko kantuak ere sartu ditugu gure errepertorioan", gehitu du.

### Ozkarbin jotzearekin pozik

Eskertuta daude Ozkarbi elkarteak kontzertua emateko egindako proposamenarekin. "Oso pozik hartu genuen eskaintza. Urte eta erdi inguru da Elgetara bizi izatera etorri ginela, eta harrera oso ona egin digute bai gurasooi bai umeei. Lagun taldea ere osatu dugu, eta lagun horietako hainbat daude orain Ozkarbi elkarteko zuzendaritzan. Proposamen horrekin, egia esan, herriko parte garela sentitzen dugu". Kontzertua 19:30ean hasiko da Ozkarbi elkarteko beheko solairuan. Sarrera doan da.

## OHARRAK

### 'Gu ere kontulari', gaur, liburutegian

Maren, Xabat, Maren, Libe, Aiur eta Mara izango dira kontalariak. Saioa 18:30ean hasiko da.

### Mendi irteera eta baba-jana domekan

Kantsatzeke Mendi Taldeak antolatuta, mendi irteera eta urteroko baba-jana egingo dituzte domekan. Taldea 08:00etan irtengo da, plazatik. Bazkaria Ozkarbi elkartean izango da.

### Baserriko plastiko bilketa martitzenean

Debagoieneko Mankomunitateak baserriko plastiko bilketa zerbitzua emango du martitzenean. Aurrez egin behar da eskaera: 943 76 25 47.

# Larraña, askoren harrera-gune

Asilo eskatzaileak Espainiako programan sartu bitartean laguntza emateko larrialdi zerbitzua eskaintzen du Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko Larrañako zentroak hasieratik, 2018tik. Egungo egoera, baina, ez da lehengo bera, eta duten lana ere ez

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Oñatin edo inguruko herriren batean bizitzen jarraitu gura zutela eta alokairuko etxebizitza baten bila zebiltzala esateko mezua zabaldu zuen, duela pare bat aste pasa, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko Larraña zentroan bizi zen Palestinako familia batek, eta programan jarraituz gero Galiziara joan beste aukerarik ez zutela gaineratu. Askorengana heldu zen mezua. Ez zuten etxebizitzarik lortu eta Ourensera joan ziren. Larrañako zentroan ere dei asko jaso zituzten familia horren egoerak kezka sortuta, zentroaren funtzionamenduaz galdezka.

### Harrera zentroa

2018ko urriaren 15ean zabaldu zuten Larrañako zentroa, eta ordutik zerbitzu bera ematen dutela azaldu du bertako zuzendari Nerea Maiztegik: "Pertsona bat hona etorri eta asilo eskaera gauzatzeko egoeran egonda, bi arlo ezberdinekin egiten du topo: juridikoa, batetik –eskaera bera egiteko eskatzen den dokumentazioak, epeak, baldintzak...–; eta harrerakoa, bestetik –programa estatalean sartu aurretik eskaintzen den laguntza–, eta Larraña hor kokatzen da: harrera emateko larrialdiko zerbitzua, alegia".

Maiztegik azaldu duenez, "Espainiaren eskumena da" asilo eskaeraren tramitazioa eta Espainia osoko programa baten barruan sartzen dira eskaera egiten dutenak. "Horrek esan gura du Espainiako Estatuko edozein tokitara lekualdatu ditzaketela. Badakite Espainiako Ministerioaren erantzun baten zain daudela, ez badute, behintzat, bizitza autonomoa izateko bidea aurkitzen dei hori jaso aurretik. Erantzun hori, beraz, Espainiako edozein tokitatik heldu daiteke; adibidez, Galiziatik. Eta gerta daiteke etxe batera joatea, familia horri egokitu moduan, edo zentro batera joatea; badaude, adibidez, 150 plaza dituzten zentroak. Hemendik joan dira, adibidez, Madrilgoetara edo Sevillakoetara".

### Aldaketak hasieratik hona

Programa horretan sartzeko, baina, eskaera formalizatu behar dute, lehenengo, kanpotik datozenek, eta hori poliziaren bitartez egiten da. Autonomia bakoitzak tramitatzeko modu bat du eta Euskal Autonomia Erkidegoan desberdina da lurralde bakoitzean. Behin poliziarekin hitz egitea lortu, elkarrizketa-data jarri eta eskaera programako arduradunengana iritsita, hark bidaliko ditu batera edo bestera, plazen eta eskatzaileen profilen arabera –ez da berdina, esaterako, pertsona bakarra izatea edo familia bat–. Familia horrek, adibidez, aldekoa jaso du eta hemen baino laguntza gehiago izango ditu, Maiztegiren esanetan, baita lan eta etxebizitza teknikariak ere, programa utzi aurretik lan eta etxebizitza bilatzen laguntzeko, "etxebizitza hori beste batendako izango da gero eta".

Bitarteko harrera zerbitzua, laguntza, eskaintzen diete Larrañak eta halako zentroek. Zerbitzu bera ematen dute zabaldu zutenetik, baina hasiera hartatik hona gauzak asko aldatu direla dio Maiztegik: "Itxaronaldia luzatu egin da. Egun, batez beste, zortzi bat hilabete egiten dituzte hemen; bizpahiru, lehen urteetan. Horrek ekarri du lan egiteko gure modua aldatu beharra ere. Adibidez, gaur egun, gaztelerako eskolak ez ezik, formakuntzari lotutakoak ere eskaintzen dira. Bestetik, hasiera batean, Afrika iparraldekoak ziren etortzen ziren gehienak, gizonezkoak eta bakarrik. Egun, familiak ere asko etortzen dira eta, normalean, 20-25 nazionalitatetako jendea egoten da beteta dugunean, orain bezala".

### 20-25 nazionalitate

Ehun lagunendako tokia dago Larrañan eta gela bakoitzak bere komuna du. "Tolosakoa, adibidez, txikiagoa da, baina gela literadunak dituzte. Hemen intimitaterako lekutxo bat badute. Egun, 27 bat familia eta 23 norbanako daude, gutxi gorabehera; gizon zein emakume".

Maiztegi oso eskertuta dago, era berean, Larrañan dauden boluntarioekin. "Jende asko pasatzen da hemendik; egoiliarrak ez dira batere egonkorrak, baina bai boluntario taldea, eta hori sekulakoa da. Gaztelera eskolak ematen dituztenak daude, mintzapraktika talde bi egin dituzte, joskintza talde bat ere badago, lehen sorospenak erakusten dien lagun bat, mendi buelta bat egiteko edo kirola egiteko gonbidapenarekin etortzen den gazte bat, domeka goizetan herriko txokoak erakusteko gertu egoten den emakume bat, baratzeko lanak erakustea gura dien gizon bat... Ikaragarriak dira".

Joan den urteko datuei begiratuta, Venezuelako, Kolonbiako eta Marokoko jatorria zuten 2023an Espainiara heldutako etorkin gehienek. Alemaniaren eta Frantziaren atzetik, gehien jaso zituen Europako lurraldea izan zen Espainia. Larrañan ere badira herrialde haietakoak.

**"EGOILIARRAK EZ DIRA EGONKORRAK HEMEN, BAINA BAI BOLUNTARIOAK, ETA HORI SEKULAKOA DA"**

## Material bilketa 30ean

Larrañako egoitzan dauden errefuxiatuei laguntzeko, material bilketa solidarioa antolatu du Aloña Mendik, 75. urteurrenaren barruan. Azaroaren 30ean izango da, plazan, 11:00etatik 14:00etara, eta hauxe batuko dute: oinetakoak –41. zenbakitik gorakoak–, helduendako txamarrak, prakak eta kirol-jertseak edo izerdi-jertseak.

Amaieran, urte hasieran martxan jarritako *merchandising* kanpainatik jasotako ekarpenaren txekea entregatuko diete Hotz Oñatiko ordezkariei.



**Yaghmour familia, San Lorentzo auzoan.** O.E.G.

## Palestina, Oñati, Ourense

Duela bederatzi hilabete heldu ziren Oñatira, Palestinatik, Nader eta Tamara Yaghmour senar-emazteak, hiru seme-alaba eta haien amama bat; sei lagun eta zazpigarrena bidean. Haurdun iritsi zen Tamara Oñatira eta hemen jaio zen familiako gazteena. Oñatira heldu aurretik, Jordania, Albania, Madril eta Bilbo zapaldu zituzten, Palestina utzi ostean; otsailaren 9an iritsi ziren Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko Larrañako zentrora.

Hona iritsi eta bederatzi hilabetera, dei bat jaso zuten, Ourensera (Galizia) lekualdatu behar zituztela abisatzeko. "Guk ez genuen hemendik joan nahi. Seme-alabak hemengo eskolara joan dira, euskara ikasi dute ulertzeko eta hitz egiteko moduan eta lagunak ere egin dituzte. Saiatu gara alokairuan etxebizitza bat topatzen Oñatin edo inguruko herriren batean, hemen gelditu gura genuelako, eta horregatik idatzi genuen mezua, baina ez da posible izan. Zaila da etxebizitza bat alokatzea; bai, behintzat, kanpokoa baldin bazara. Ourensen pisu bat izango dugula esan digute, eta hori ondo dago, baina guk gurako genuke hemen gelditu, han berriz ingurua eta jendea ezagutzen hasi beharko dugu eta. Pena dugu, oso gustura bizi izan gara Oñatin", zioen Nader Yaghmour-ek azaroaren 11n, Galiziarako bidea hartu bezperako iluntzean.

### Euren bizimodua berreskuratu gura

Gerra da Yaghmour familiaren arrazoia Palestina uzteko. Medikua dela azaldu du Naderrek, han bazuela lana eta ondo bizi zirela. Hemengo bizimodua ere gustatu zaio, baina harena berreskuratu gurako luke: "Ikusten dut jendea lasai bizi dela, ondo, baina kanpotik gatozenendako zailagoa da bizimodua hemen. Ditudan Medikuntzako ikasketak eta ofizio horretan dudan esperientzia hemengo eskakizunetara baliozkotzen saiatu behar dut orain".

# "Ez gara nerabeak babesten ari"

**PAKITA MATEOS HERNANDEZ** AGIPADEKO PREBENTZIO ZERBITZUKO ARDURADUNA

Substantziekiko adikzioetan aditua da, eta, egun, substantzia bakoak ditu jomugan. Arlo digitalean nerabeen bidelagun izateko tailerra gidatuko du, gurasoendako

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

DBH-1 eta DBH-2 mailetako ikasleen gurasoendako tailerra antolatu du Oñatiko Udalak, Agipad elkartearekin. Gurasoek seme-alabei nola lagundu landuko dute, haiek, poliki-poliki, emantzipazio digitala eskuratu arte. Lau saio ditu tailerrak; abenduaren 4an da lehena, eta izena hilaren 29a aurretik eman behar da: *ongizatea@onati.eus* edo 943 03 77 00.



Pakita Mateos Hernandez. AGIPAD

**Zer esan gura du emantzipazio digitalak?**

Familiek euren seme-alabei arlo digitalarekin zerikusia duen guztia arduraz erabiltzen laguntzea da tailer horren helburua, eta, horretarako, familiekin esku hartzea da asmoa. Hau da, jakitea zein den erabilera-adin egokia, eduki egokiak... harik eta gaztetxoek eurek gailu digitalak modu autonomoan egoki erabiltzen ikasten duten arte.

**Zergatik ikusten duzu eragin beharra dagoela?**

28 urte daramatzat adikzioen prebentzioan lanean, eta drogen kontsumoen aurrean prebentzioaren arloan egin den lana zekarkidan burura gai horrek. Gai horretan, pantailei ezetz esateko edo gura duten beste erabiltzeko joerak daude. Drogen kontsumoan ikusi genuen inoiz ezer ez kontsumitzeko mezuak ez zuela emaitza onik lortu askotan; ezta besteak ere, noski. Horregatik, hemen ere, substantzien kontsumoan bezala, erdibideko bidea topatu behar da. Helduok onartu behar dugu pantailak dituen gizarte batean bizi garela eta nerabeendako sozializazioarekin zerikusia duen guztian garrantzi handia duela. Seme-alabak sozializazioan haztea gure ardura da, eta horretan ere lagundu egin behar diegu. Uste dugu arlo horretan babesgabetasun handia dagoela.

**Adikzioa sor dezakete gailu digitalek?**

Badaude ikerketak hori baieztatzen dutenak, eta, alde batetik, adikzio izan daitezkeela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, erabilera jakin batzuek beste era bateko zailtasunak sor ditzakete, eta ez, nahitaez, mendekotasuna. Adibidez, sare sozialen gehiegizko esposizioa, transmititzen diren balioak, onak edo txarrak ez diren informazioak baina gaztetxoen adinean ulertezinak direnak... Gertatzen dena da ez garela ari nerabeak babesten, ez politika arlotik, ezta familietatik ere. Kasu batzuetan, ezjakintasunagatik; eta gehienetan, erosotasunagatik. Izan ere, gu ere sareen munduan murgilduta gaude, eta, askotan, harrapatuta.

## "NERABE BATZUEK ZENTZUZ DARABILTE PANTAILA; JAKIN BEHAR DA BESTEEK ZERGATIK EZ"

**Horren kontziente gara gurasook?**

Arduratuta bagaude, baina pentsatzen dugu gure erabilera ezin dela arazo bihurtu. Sareetako gure erabilerak zerikusi handia du seme-alabengan.

**Ze adin zaindu behar da, bereziki?**

12-13 urterekin gaztetxoak aldatzen hasten dira eta aldaketa horiek nabaritu egiten dira familian. Batzuetan, orduan hasten dira pantaila ordu gehiagoz kontsumitzen, eta askorendako errazagoa da esatea lagun digital mordoa dituztela benetako bat baino. Birsozializatzeko garaia delako aukeratu dugu adin hori.

**Zer landuko duzue saioetan?**

Lehenengo saioa familiei eskainiko diegu, eta, gero, sare sozialek nerabeendako zer dakarten aztertuko dugu. Zer den hortik lortzen dutena eta zeri uko egingo lioketen gauzak aldatuta, helduok ulertzen ez ditugun gauza asko daude eta. Komunikazioaz, arauez eta mugaz hitz egingo dugu. Bertaratzen direnek gogoeta egin dezaten saiatuko gara. Lehenik eta behin, gurasoek zein unetan dauden jakin behar dute. Arazoa ez da nerabeen mugikorra. Nerabe askok zentzuz erabiltzen dituzte pantailak, baina jakin behar dugu beste batzuek zergatik ez dituzten horrela erabiltzen.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA LOIDI

## Jabetza eskriturak besapean

Horrela esan ohi da. Modernitatearen eta teknologia aurrerapenen garaiotan, guztiaren jabe izan gaitezkeela eta dena kontrola dezakegula sinestarazi digute. Inozo galantak gu.

Antzinako esaera da: *Erreka eskriturak besapean dituela etorriko da.* Izan ere, mendeetan zehar, orografian aldaketak naturaren esku egon direnean, urak bere bidea egin du, punta guztietatik abiatu eta errekasto, erreka zein ibai nagusitik pasata, itsasora iritsi arte. Zoritxarrez, uholdeak inguruan ikusten ditugunean ohartzen gara naturaren indarraz. Duela hilabete gutxi, Donostiako alkatea haserre zen, Urumea inguruan etxebizitzak eraikitzeko debekua jaso zuelako. Valentzian ere ikusi dugu: ibaien arroetan etxebizitzak, merkataritza-guneak, garajeak… eraikitzeko baimenak arazo gabe emateagatik zeintzuk diren ondorioak.

Gurera etorrita, orografia ezberdin baten bizi arren, basogintza ustiatze eredu ezberdinen ondorioez gutxi sakontzen dugu. Klima aldaketaren ondorioak begi bistan ditugu. Gaizki gabiltza itsu jokatuz naturak ikustarazteko zain bagaude.

## Film laburren IkusHI! lehiaketarako beste deialdi bat egin dute

Udaleko Euskara Departamentuak berriro zabaldu du film laburren IkusHI! lehiaketarako deialdia, gazteen artean euskara eta hitanoa sustatzeko helburuarekin. Oñatiko Laburmetrai Rallyarekin eta Ingo Xonau! taldearekin batera antolatu du, eta DBH-3, DBH-4 eta batxilergoko herriko ikasleendako da.

Hain erakargarriak egiten zaizkien teknologia berriak erabiliz euskaraz sortutako ikus-entzunezkoak ekoitzi eta halakoen kontsumoa bultzatu nahi dute lehiaketa horrekin. Iraileko deialdia ez zen aurrera atera, eta beste bat egin dute orain. Abenduaren 5a aurretik eman behar da izena, taldeka, gaztelekuan.

## Argia moztuko dute martitzenean, sareko hobekuntzak egiteko

Argindarraren sarean hobekuntzak egin behar dituzte, eta, hori dela eta, argia moztuko dute martitzenean, azaroak 26, goizean, herriko hainbat ataritan, Oñargik jakinarazi duenez. Hauetan kenduko dute: Otadui zuhaiztiko 13an, 15ean, 17an, 70ean eta 20tik 56rako atari bikoitietan eta Goribar auzoko 11n, 12an, 13a, 14an eta 16an: baita kale bietako argiteria publikoa ere. Kurtzekua kalean, berriz, 14 eta 15. atarietan moztuko dute. 09:30etik 12:00etara moztuko dute argia bebarru horietan, eta aurrez abisatu gabe abiaraziko dute berriz. Oñargiren aholkua da etxetresna elektronikoak deskonektatzea.

AUTLAN® EMD
Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Aissa Intxausti, joan den urtean Arrasateko gaztetxean egin zen kanporaketa saioan. IMANOL SORIANO

# Rapa eta inprobisazioa uztartuko dituzte 29an

Rapa eta inprobisazioa uztartuz euskal presoen etxeratzea eskatzen duen All In Da House freestyle txapelketako kanporaketa bat egingo dute gaztetxean 29an. Sei gazte lehiatuko dira, eta DJ baten musikarekin gainditu beharko dituzte 'batailak'

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

*All In Da House* freestyle txapelketako kanporaketa bat jokatuko da datorren astean, hilak 29, Oñatiko Antixena gaztetxean. Hiru kanporaketa eta finala ditu txapelketak –gaur, egubakoitza, jokatu da lehena, Gernikako Astra aretoan, eta 30ean Hendaian hirugarrena–, eta bigarren kanporaketa da Oñatin egingo dutena; finala Gasteizen izango da, urtarrilaren 25ean.

### Puntuazio bidez

Rapa, bat-batekotasuna, musika, euskara zein sormena biltzen dituen txapelketa da *All In Da House*. Oñatiko saioan sei lagunek hartuko dute parte, eta beste bat egongo da musika jartzen. Musika horri jarraituz inprobisatuko dute gero sei lehiakideek, rap estiloan. Saioan hiru epaile eta aurkezle bat ere egongo dira, eta azken horrek jarritako egoera, aipatutako hitza edo erakutsiko dien objektua izango da lehiakideendako gaia; bertso saio baten antzekotasuna du horretan freestyle txapelketa horrek. "Kanporaketako saio horrek *bataila* edo ariketa bat baino gehiago izango ditu, eta epaileen lana izango da bakoitzak ariketa bakoitzean egiten duen lana puntuatzea", diote antolakuntza taldekoek.

### Lagunarteko lehia

Sei gazte lehiatuko dira Oñatiko kanporaketan; haien artean, Paula Amilburu *Paula* aramaioarra eta Urko Arregi *Kortxelo* oñatiarra. Lehenbiziko aldia izango da *Kortxelo*-rendako: "Txapelketa izenarekin dator, baina lagunarteko saioa izango da, eta horrek eta Oñatin izateak animatuta ausartu naiz parte hartzera". Saioak jendea erakarriko duen susmoa ere badu: "Badago jendea rapa gustatzen zaiona; horrelako saio askorik ez da egoten, eta uste dut jendea joango dela, bai". Saioaren aurkezlea eta epaimahaia osatuko duten hiru lagunak ere oñatiarrak izango dira.

**PAULA AMILBURU 'PAULA' ETA URKO ARREGI 'KORTXELO' DIRA ARITUKO DIREN LEHIAKIDEETAKO BI**

Oñatiko kanporaketa azaroaren 29an izango da, gaztetxean. 21:00etan hasiko da eta sarrera borondatearen truke izango da. Amaitutakoan, baina, jarraitu egingo du festak gaztetxean, DJ Bolatxas oñatiarraren eskutik.

### Bederatzigarrena

Gasteizen du sorrera freestyle txapelketa horrek. 2016an egin zuten lehendabiziko aldiz, *Ekaitz In Da House* izenarekin, Ekaitz presoaren etxeratzea eskatzeko. Hura aske geratu ostean, *Ekaitz Is In Da House* izena hartu zuen, eta 2021a ezkero *All In Da House* izenarekin jarraitu dute antolatzen, euskal preso guztien etxeratzea aldarrikatzeko.



Aitor Biain Bidarte, musika banda zuzentzen emanaldi batean. GOIENA

## Denboraldiko lehen kontzertua du musika bandak domekan

Klasikoak diren hainbat pieza joko dituzte, baina beste modu batean; horietako bi, herriko txistulariekin

**O.E.G.** OÑATI

Oñatiko musika bandak aurtengo ikasturterako prestatu duen Zentzuekin Gozatzeko denboraldiko lehen kontzertua egingo du datorren domekan, hilak 24, 13:00etan, Zubikoako frontoian.

### Txistulariekin batera

Klasikoak Entzun du izena lehen emanaldi horrek, eta, Aitor Biain zuzendariak azaldu duenez, klasikoak joko dituzte, hainbat estilotan. Gainera, ohikoa izaten duten moduan, gonbidatuak izango dituzte kontzertuan: Aita Madina txistularien taldeko kideekin batera joko dituzte bi pieza. Horietako baten orkestrazioa, gainera, Antoni Ibarrondok egin zuela adierazi du Biainek. Txistulariekin egingo duen moduan, herriko beste talde batzuk ere izango dituzte alboan bandako musikariek ikasturte amaiera bitartean egingo dituzten emanaldietan.

Bestalde, gaur, egubakoitza, da Santa Zezilia Eguna. Kalejira egingo dute musika bandak eta banda gazteak hori ospatzeko, 20:30ean herriko kaleetan zehar.

## Xabier Zeberiok itxiko du Musikegunak zikloa, domekan

Xabier Zeberio musikariak *Pause* lana aurkeztuko du domeka iluntzean, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Bederatzi pieza berri jasotzen dituen bakarkako lana da Zeberioren azken hori. Oñatira, baina, lagunduta etorriko da: Iñar Sastre piano-joleak eta Itziar Garaluce artista bisualaren zuzeneko bideo sorkuntzek osatuko dute ikuskizuna.

Biolin jotzailea eta konpositorea da Xabier Zeberio tolosarra. Oskorri taldean urte askoan jardundakoa, baita Alos Quartet taldeko kidea ere. Bakarkako ibilbidea ere hasi du. Haren kontzertuak emango dio, hain zuzen ere, amaiera aurtengo Musikegunak zikloari.

## OHARRAK

### Autobusa finalerako

Abenduaren 14an da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. Bertso eskolak autobusa antolatu du Donostiarako. Txartelak salgai daude Txokolateixan, hamar eurotan.

### Sarrerak salgai

*Hemen ez du inork ordaintzen* antzezlana egingo du Dokek abenduaren 1ean Santa Anan. Sarrera: hamar euro.

### Diru bilketa

*Zapatekin arnas* ipuina da Potx eta Lotxen azken lana, eta *itsulapikoa.eus* atariaren bitartez eman daiteke laguntza. Durangoko Azokan aurkeztuko dute.

6. ALDIA

DANBAKA

MUSIKA LEHIAKETA

# DEL VAL
# KARENA
# HENKO
# TXERRIKUMEAK

Bergarako
Seminarixoa
Azaroak 29
21:30

**Chill out gunea**
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
**DJ NAVAJITA SUAREZ**

Sarrera arrunta **5 €**
*Goiena* aplikazioan alta emanda **2 €**
*Goiena* txartela erakutsita **0 €**

**4. kontzertua**
**ABENDUAK 13**
ONDARE
MAIDER MIMI
721-GOGOR GABILTZA
BANANA SHAKE
**Finala**
**URTARRILAK 17**

Bergarako Udala

GIPUZKOA
Kultura

SEIN

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Bizi Hadiko kideak, zapatuan, talde-argazkian. GOIENA

# Oztopoak gainditzera dator Bizi Hadi taldea

**KIROL EGOKITUA** Zapatuan aurkeztu zuten, Oñatin, kirol talde berri bat. Orain arteko pausoak Antxintxika talde barruan eman dituzte, eta hemendik aurrerako bidea Bizi Hadi izenarekin egingo dute. Hogei lagun inguru dira, eta zabalik dituzte ateak

**Xabier Urtzelai Atxa** OÑATI

Debagoienean kirol talde berri bat dago, eta kirol egokitura bideratuko dituzte esfortzuak, ehuneko ehunean. Zapatuan aurkeztu zuten Bizi Hadi izeneko proiektua, Oñatiko gaztelekuan, eta bertako presidente Aitor Rementeriak garbi egin zuen berba: "Desgaitasunak ditugun pertsonentzat, edonorentzat, ateak zabalik dituen taldea da, guztiok dugu-eta desgaitasunen bat. Baina, batez ere, desgaitasun fisiko edo psikikoak dituztenei laguntzera bideratutako taldea da".

## Oztopoak gainditzen

Talde horretako kideek ondo dakite euren egunerokoan zenbat oztopo gainditu behar dituzten eta kirol jarduerak ze onurak ekartzen dituen. Hor ere, baina, oztopoak gainditu behar izaten dituzte, zirkuituak ez dituztelako ondo egokitzen, ez dituztelako aintzat hartzen... Bada, oztopo horiek gutxitzen joateko eta kirolariei egunerokoan laguntzeko sortu da Bizi Hadi. Orain arte, Antxintxika Triatloi Taldearen egitura barruan egon dira, baina pauso bat aurrera ematea erabaki dute. "Gisa horretako egitura baten barruan funtzionatzeak baditu muga batzuk, eta, gainera, uste dugu talde inklusibo moduan sortuta, lan egitea ere errazagoa izan daitekeela, kirolari egokituei zuzendutako kudeaketa baten bitartez. Horregatik eman dugu jauzia, errazagoa da-eta borrokatzea talde osotasunean, sail bat izanda baino".

Bizi Hadi taldean baliabideak jartzen dituzte kirolarien eskura, materiala utzita, lasterketetan laguntza eskainita... Izan ere, proiektu berri horren bitartez inklusioa sustatu nahi dute, eta, batez ere, kirolaren bitartez osasunerako hobekuntzak lortu. Ikastetxeen bidez gaztetxoei kirolaren balioak erakustea eta ospitaleetan euren metodologia erabiltzeko aukera badagoela ikusaraztea ere badira asmoak. Egun, lau sail dituzte: igeriketa, txirrindularitza, atletismoa eta triatloia.

Kirolari eta laguntzaile artean hogei lagun inguru dira eta 123 bazkide dituzte: "Euren ekarpenek berme bat ematen digute urtero diru-sarrera bat edukitzeko eta proiektuan inbertitzeko, aulki bat erosteko...".

## Bizi Hadi taldeko kideen esanak:



**AINHOA CALLEJA** KIROLARIA ETA LAGUNTZAILEA

"Orain arte, laguntzaile jardun dut, eta kirolari hauen ondoan izugarri ikasi dut. Ezagutzen ez nuen mundu bat da, eta egunerokoan dituzten ehunka oztopo zelan gainditu ikasten duzu, eta ez bakarrik kirola egiteko orduan. Familia moduko bat da hau, ez gara kirola egitera bakarrik etortzen".



**AITOR REMENTERIA** PRESIDENTEA

"Gau egun, talde barruan lau kirol jarduera egiten ditugu, baina prest gaude etorkizunean sail gehiago sortzeko. Bestalde, ikastetxeen bidez gaztetxoei kirolaren balioak erakustea eta ospitaleetan gure metodologia erabiltzeko aukera badagoela ikusaraztea ere badira asmoak".



**IÑAKI IGARTUA** TXIRRINDULARIA

"Duela urte eta erdi inguru hasi nintzen txirrindularitza egokitua praktikatzen, eta talde honekin hasi nintzen; hastapenetan ere ondoan egon ziren. Askatasun sentsazioa ematen dit txirrindularitzak, osasunean laguntzen dit, baita motibazioan ere. Orain, taldea sortuta, beste izaera bat izango dugu".



**IÑAKI MUJIKA** HANDBIKEKO ATLETA

"Hiru urte daramatzat aulkian eta urtebete handbikean entrenatzen. Saskibaloiarekin hasi nintzen; padela ere probatu nuen, baina handbikearekin hasi nintzenean konturatu nintzen hau dela nire kirola. Orain arte, dena nire kabuz egiten nuen; orain, taldearen babesa dut. Eta babes garrantzitsua da".



Goienakide 2025
paretako egutegia
Debagoiendarron egutegi osatuena
Debagoieneko egun seinalatu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu lehenengoz, eta azaroaren 24an jasoko duzue Goienakideek etxean.




goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia
Egin zaitez Goienakide orain, eta jaso egutegia DOAN

# Mojategiko berdegunera itzultzeko ordua da

ERRUGBIA Lanak amaituta, ARTko senior mailako bi taldeek etxean jokatuko dute asteburuan: emakumezkoek durangarren kontra neurtuko dituzte indarrak, zapatuan (16:00); eta gizonezkoek 13:00etan jokatuko dute, Universitario Bilboren kontra

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Arrasateko taldeko kapitain Irene Dolara pozik dago, hainbat hilabetez Mojategiko zelaia zapaldu ezinda egon ostean bihar ostera ere etxean jokatuko dutelako. "Joan den astean hasi ginen gure zelaian entrenatzen, eta zelai berri bat estreinatzen ibiliko bagina bezala gaude. Egia da errugbiko berdegunea ez dutela ukitu, iazko udan jarri zuten berria, baina atletismo pistekin batera argiteria ere aldatu egin dute, eta igarri egiten da. Bereziki gure zelaira bueltatu ahal izan garelako gaude jokalariok pozik, hilabete hauek nahiko xelebreak izan direlako, denboraldiaurretik hasita. Futbol zelaian ibili gara entrenatzen, futbol taldekoekin berdegune hori partekatu behar izan dugu, eta nahiko estu ibili gara denok. Eta etxeko partidu guztiak Eibarren jokatu ditugu". Horregatik, Dolarak zaleak zapatuko norgehiagokara gonbidatu ditu: "Etor daitezela animatzera; eta ez hori bakarrik: neska gazteak taldera gerturatzeko animatu nahi ditut, zabalik ditugu-eta ateak".


ARTko neskak, iazko otsailean, etxeko partiduan. GOIENA

**"ZELAI BERRIA ESTREINATZERA JOANGO BAGINA BEZALA GAUDE: ARGITERIA BERRIA..."**


IRENE DOLARA
KAPITAINA

### Bigarren dago Durango

Biharko (16:00) kontrario Durango bigarren dago sailkapenean, eta etxeko talde AGT-ERT, berriz, bosgarren. "Iaz oso denboraldi ona egin zuten durangarrek, eta, talde gaztea duten arren, harrobiko neska asko dituzte. Egia da, baita ere, jokalari aldetik zapatu honetan kopuru polita izango dugula; izan ere, aurreko partidu batzuetan gure jokalarietako batzuk Euskal Ligako taldeaz jokatzera joan dira, eta gu larri samar ibili izan gara".

## SASKIBALOIA David Peña da MUko nesken entrenatzaile berria

Aste barruan prentsa ohar bidez jakinarazi du Ointxe!-ko emakumezkoen talde nagusiko entrenatzaile Carlos Diaz sevillarrak ez duela LF2ko Mondragon Unibertsitatea zuzentzen jarraituko, eta orain arte EBAko taldeko bigarren entrenatzaile izan den David Peñak ordezkatuko du. Carlos Diazek ligan zazpi partidutan zuzendu du MU.

## ESKUBALOIA Oñatiarren eta bergararren arteko derbia bihar

Gizonezkoen Gipuzkoako txapelketan debagoiendarren arteko derbia izango da zapatuan (17:45, Zubikoa), Fagor Professionalek Soraluce BKE hartuko du eta. Liga berean, Mugarri Ingou Arrasatek Donibaneren kantxan jokatuko du domekan (11:30). Emakumezkoetan, Construcciones Ugarte Aloña Mendik Legazpin jokatuko du bihar (17:45)

## FUTBOLA Bergarak eta Aloña Mendik etxean jokatuko dute

Hirugarren Mailako Aretxabaletak Urdulizen jokatuko du zapatuan (18:00), eta Ohorezko Erregional Mailan Bergara eta Aloña Mendi dira etxean jokatuko dutenak: Bergarak Deusto hartuko du zapatuan (16:30) eta Aloña Mendik Real Union domekan (16:30). Arrasatearrek Zumaian jokatuko dute zapatuan (16:00).

Goienakideen txokoa
AZAROKO SARIAK

Errigorako saskia
ERRIGORA
Parte hartzeko sariaren izena: errigora





ARRIKRUTZ oñatiko kobak
Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz




Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.




*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia




Bergarako Low Cost Deluxe laukoteak zabaldu zuen gaueko lehiakideen zerrenda.



Aretxabaletako Eten hirukote gaztea izan zen lehiatzen bigarrena.



Bergarako K-PO –Chadi Ayastui– musikariak dantzan jarri zuen aretoa.



Kontzertu azkarra egin zuen Arrasateko Rebel Noise boskoteak.

# Lau osagai berri lehian segitzeko

Erritmo ezberdineko rocka, musika urbanoa eta punk-rock bizia izan ziren Danbakako bigarren kontzertu gauean, egubakoitzean, Seminarixoan entzungai



AITZIBER ARANBURUZABALA

Lehen kontzertu gauarekin alderatuz, hotz samar hasi zen sentsazioa zegoen, seigarren Danbaka Musika Lehiaketaren bigarren kontzertu-sorta hasteko zela. DJ Chicabeat-ek –Karen Caceres–, baina, asmatu zuen Seminarixoko kanpoaldeko chill out gunera jendea gerturatzen, rock-and-roll, new wave eta punk estiloetako LPak baliatuta garai bateko musika-bidaia ederra proposatuta.

**Rocka lehenengo zatian**

Urduri igo zen Seminarixoko taularen gainera Bergarako Low Cost laukotea, baina poliki-poliki agertokia bereganatzen joan zen. Abeslariak mikroaren hankarekin egin zituen malabarismo bitxiekin eta metal eta hard-rock estilotik gertu zeuden doinuekin bete zuten ordu erdiko emanaldia, aurrean lagunak eta senideak zituztela. "Esperientzia ikaragarria izan da, mordo bat disfrutatzen ari gara. Hemen jotzea guretzako sari handia da", kontatu zuten agertokitik jaitsi orduko.

Rock doinuen segida egin zuen taularen gainean lekukoa hartu zuen Aretxabaletako Eten hirukote gazteak. Leizarra Musika Eskolan proposatutako konbo-talde batetik jaiotako hirukotea da eta nabari zen hiruren arteko konplizitatea, nahiz eta kameren presentziak eta eszenatokiaren tamaina handiak jarrera lotsatia izatea eragin zien. Hauxe esan zuen taldeko abeslari Araitz Lizarriturrik: "Gu ohituta gaudenerako, serio samarra da kontzertu-formatu hau, baina sekulakoa da aretoa, eta gozatu egin dugu guk ere".

**Urbanoa eta punk-rocka gero**

Lehenengo kontzertu gauean musika urbanoak eragindako sentsazioak gogora ekarri zituen K-PO –Chadi Ayastui– bergararrak taularen gainera igotzeaz bat. Etxean jokatzen zuen, eta bazekien hori, eta jakin zuen aukera hori aprobetxatzen. Lehenengo kantutik dantzarako gonbidapena egin zuen eta erantzun beroa jaso zuen publikoaren partetik, taularen eta publikoaren artean zegoen hutsunea betetzea lortuta. Aurrean zituen jarraitzaile fidelak eta alboan, taularen gainean, Bergarako musika urbanoaren komunitatea osatzen duten askotariko artistak. "Elkarlanean kantu asko sortu izan ditugu eta Danbakako kontzertua horren erakusleiho izan gura nuen", kontatu zuen saioa bukatuta.

Rebel Noise boskoteari egokitu zitzaion gau hartako azken lehiakide izatea. Kameren beldurra edo pisua sumatu zitzaien hasieran, baina segituan heldu zioten ohikoa duten punk-rock eskaintza azkarrari. Astean zehar gaixorik izan da taldeko abeslari Iturri, eta kontzertura horren kezkarekin joan zela aitortu zuen taularen gainetik jaitsitakoan. "Hobeto egin ahal nuen, baina pozik nago egin dugunarekin. Beste giro batera ohituta gaude; formatu hau formalagoa da, baina gustura egon gara".

**Aretotik pantailara**

Danbakaren ezaugarria da kontzertuetan askotariko musika estiloak batzea, eta horrek eragiten du publikoan ere nahasketa bitxia topatzea. Seminarixoko zuzeneko kontzertuetan egoteko aukerarik izan ez zuenak *Danbakast* bideopodcastean aurkituko ditu kontzertuak zein bestelako bideo gehiago.

**LOW COST DELUXE, ETEN, K-PO ETA REBEL NOISE TALDEAK IZAN ZIREN SEMINARIXOKO AGERTOKIAN**

**MUSIKAZALEAK, SENITARTEKOAK ETA MUSIKARIAK, ARETOKO PUBLIKOAN GIRO ONEAN BATUTA**


DJ Chicabeat –Karen Caceres–, chill out gunea girotzen.


Sanprubusa San Martin plazan izan zen, beste behin.


Emanaldiek aurrera egin ahala, publikoa ere gehitzen eta berotzen joan zen. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



**Low Cost Deluxe** | Bergara

Iaz argitaratu zuten *Hainbestean* EPan batutako kantuekin osatu zuen Bergarako Low Cost taldeak bere errepertorioaren zati nagusia, baina kantu berriak ere partekatu zituen gauaren hasiera izanik oraindik hotz samar zegoen publikoarekin.



**Eten** | Aretxabaleta

Bost kantu biltzen dituen diskoa du argitaratua Aretxabaletako hirukote gazteak, eta, horri tiraka eta azkeneko hilabeteetan sortutako kantuei ere tokia eginda bete zuen, urduritasunari aurre egiteko ahaleginean, egubakoitzeko emanaldiko haren zatia.



**K-PO** | Bergara

Donostiako HRD ekoizleak jarritako doinu urbanoen gainean emanaldi dantzagarria eta dibertigarria egin zuen K-PO bergararrak. Musika urbanoko senari eutsiz, Sotoalde taldeko bi kide izan zituen taularen gainean lagun, baita John Blind09 eta HRT ere.



**Rebel Noise** | Arrasate

Bi disko ditu Arrasateko Rebel Noise taldeak argitaratuta, eta bi bildumetako kantuak tartekatuta zukutu zituen zegozkion 30 minutuak. Aukeraketa horretan, nola ez, ez ziren falta izan aurrean zituzten zaleentzako ereserkia itxura duten abestiak.

## Aretoan jasotako iritziak

**KAREN CACERES**
DJ CHICABEAT

"Bergaran lehenekoz *pintxatzeko* aukera eman dit Danbakak; beraz, oso eskertuta nago. Halako ekimenak oso gustuko ditut, eta bereziki oso interesgarriak iruditzen zaizkit bertako musika taldeak laguntzen edo bultzatzen dituztenak".

**SARA ALONSO**
EPAIMAHAIKIDEA

"Bigarren gauean ikusi eta entzun duguna gustatu zait. Publikoa poliki-poliki berotzen joan da, eta polita da hori. Gustura ari naiz epaimahaikide lanetan, aberasgarria da bakoitzak ikusten duena besteekin partekatzea, ikuspegi eraikitzaileti k".

**IKER MARTINEZ DE ZUAZO**
PUBLIKOA

"Danbakaren lehenengo edizioan Amonal eta Potemkin taldeekin hartu nuen parte, eta oso oroitzapen politak ditut. Publiko moduan etortzea ere gustuko dut; beti da interesgarria talde berriak ezagutzea, eta, orokorrean, giro oso polita egoten da".

**MAITE USABIAGA**
BERGARAKO UDALA

"Sentsazio oso ederra dut ikusitakoarekin. Lehiaketa izanik, taldeak euren onena ematen ari dira, eta aretoa ere bai. Gozagarria da Seminarixoa hala ikustea, eta uste dut denak ari garela disfrutatzen: musikariak, antolatzaileak eta publikoa ere bai".

**HURRENGO KONTZERTUA**
Azaroak 29, egubakoitza, 21:30. Bergarako Seminarixoa.

- **Del Val**
- **Karena**
- **Henko**
- **Txerrikumeak**

## Publikoaren Sariaren sailkapena

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | **MALKO** | Oñati | **Botoen %17,3** |
| 2 | **SOTOALDE** | Bergara | **Botoen %14,2** |
| 3 | **KORDA ROTA** | Arrasate | **Botoen %12,2** |
| 4 | **K-PO** | Bergara | **Botoen %10,9** |
| 5 | **KARENA** | Antzuola eta Hernani | **Botoen %10** |
| 6 | **ETEN** | Aretxabaleta | **Botoen %8,4** |
| 7 | **REBEL NOISE** | Arrasate | **Botoen %5,2** |
| 8 | **TXERRIKUMEAK** | Aretxabaleta | **Botoen %4,9** |
| 9 | **HENKO** | Oñati | **Botoen %3,8** |
| 10 | **721-GOGOR GABILTZA** | Aretxabaleta | **Botoen %3,8** |
| 11 | **KTARSIA** | Bergara | **Botoen %3,3** |
| 12 | **BANANA SHAKE** | Arrasate | **Botoen %2,8** |
| 13 | **LOW COST DELUXE** | Bergara | **Botoen %2,6** |
| 14 | **ONDARE** | Arrasate | **Botoen %0,4** |
| 15 | **MAIDER MIMI** | Aretxabaleta | **Botoen %0,1** |
| 16 | **DEL VAL** | Arrasate | **Botoen %0,1** |

**BOTOA EMATEKO**
*Danbaka.eus* webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.

Danbakako kontzertu horren erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

# ZERBITZUAK

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 101. SALDU

**Arrasateko Garagartza auzoa.** Etxebizitza unifamiliarra saltzen da Arrasateko Garagartza auzoan. Interesatuak deitu mesedez arratsalde an (20:00etatik aurrera). Deitu 943 58 42 13 telefon o zenbakira.

#### 102. EROSI

**Etxea erosiko nuke.** Etxebizitza erostea nahi dut Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Berdin zait egoera. Momentuko ordainketa egin dezaket. 623 17 95 37

#### 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartuko genuke. Legezko agiriak ditugu eta lan-kontratu mugagabea. 611 34 50 25 edo 631 19 75 84

### 4. LANA

#### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta inguruak.** Neska euskaldun eta gaztea naiz. Umezain edo hantzeko lanak egingo nituzke. Astelehenetik igandera, arratsaldez, malgutasun osoa. 688 69 53 79 edo 676 13 06 64

**Arrasate.** Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki hoenta612 51 42 99.

**Arrasate.** Zaintza lanak egingo nituzke lanaldi erdian. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia. Telefonoa: 685 46 91 11

**Bergara eta inguruak.** Neska euskalduna naiz, haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako gradua eta goi mailako zikloak ditut. Esperientzia daukat haurrak zaintzen. Edozein galdera egiteko deitu edo idatzi lasai asko. Telefonoa: 634 42 85 11

**Debagoiena.** Asteburutan zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakume euskalduna. Esperientzia daukat. 650 67 16 91

**Debagoiena.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 36 85 80

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan. Bestelako lanak egiteko aukera. Malgutasun osoa dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 54 45 86 (Lise Romero)

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 03 95 68 (Blanca)

**Debagoiena.** Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonezkoa. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketan. Ordutegi aldetik malgutasuna daukat. Gidabaimena eta kotxea ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 19 50 43

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu dagoen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 96 78 69

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut, baita legezko agiriak ere. 611 75 39 92

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Deitu telefono honetara: 642 37 01 92.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Garbiketa lanak ere orduka egiteko prest nago. Deitu telefono honetara: 642 36 70 42

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiteko, pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu 644 19 11 28 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan. 613 58 95 70.

**Debagoiena.** Goizetan orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 96 78 69

**Debagoiena.** Etxez etxeko zaintzaile profesionala, esperientzia duena, karismatikoa eta arduratsua. Berehalako prestasuna asteburuetan, astegunetan edo orduka lan egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 27

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa ikastaroa egina dut. Deitu telefono honetara: 611 24 18 98.

**Debagoiena.** Gizona pertsona nagusiak zaindu edo hauek pasiatzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxeetan edo ospitaletan lan egingo nuke. 614 11 43 60

**Debagoiena.** Gizonezkoa garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta supermerkatuetan lan egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 617 16 68 44.

**Debagoiena.** Lan bila nabil ostalaritzan, kafetegietan, fabriketan edo adinekoen zaintzan. Hainbat ikastaro ditut ostalaritzan eta sukaldean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 31 93 76 (Raul)

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Hainbat lan egiteko gertu: adinekoak zaindu, garbiketa lanak, animaliak paseatu, eraikuntzan, iturgintzan, errementari lanetan edota soldatzaile gisa. Deitu telefono honetara: 625 90 55 45

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita txakurrak pasiatzera ateratzeko ere. Orduka lan egingo nuke. Deitu 672 96 46 49 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo hauek pasiatzeko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxeetan edo ospitaletan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 56 62

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestatasuna. Soziosanitario eta garbiketa tituluak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 47 39 37

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. Deitu telefono honetara: 747 48 32 90

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketan lan egingo nuke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Deitu telefono honetara: 623 35 99 03

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono honetara: 632 34 22 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta soziosanitario ikasketak ditut nire herrialdean. Erizaintzako ikasketak eginak ditut nire herrialdean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 56 62.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan edo bestelako lanetan aritzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 632 17 21 98

**Debagoiena.** Taberna, etxe edo lantegietan garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo beste lanetarako gertu dagoen emakumea. Etxean bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:624 83 95 19

**Debagoiena.** Zainketa lanetan, garbiketan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 604 28 78 39

**Debagoiena.** Zainketa lanetan, garbiketan, eraikuntzetan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 18 53 17

### 6. MOTORRA

#### 602. EROSI

**Land Rover Defenderra erosi.** Land rover Defenderra behar dut baserrirako, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin. Interesa baldin baduzu, deitu 623 17 95 37 telefono zenbakira.




## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena. eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Urdax Erostarbe Aramburu**
Azaroaren 28an, 7 urte. Zorionak, bihotza. Oso ondo pasako dugu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
**Malen Etxeberria Agirreurreta**
Azaroaren 26an, 8 urte. Zorionak, Malen! Ondo pasau zure eguna! Patxo haundi bat denon partetik!



OÑATI
**Oihan Odriozola Larrañaga**
Azaroaren 26an, 5 urte. Zorionak, Oihan! Ondo pasau zure egunian eta patxo pila bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Nora Axpe Pacios**
Azaroaren 23an, 8 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasa zure egunean! Patxo potoloak! Muaaaakkk!



BERGARA
**Izar Akemi Etxeberria Ramirez**
21an. Zorionak! 15 urte gure bizitzak pozten eta gure bizitzak zure inguruan orbitatzen. Ze azkar pasatzen den denpora. Maite zaitugu!



ARETXABALETA
**Garikoitz Blanco eta Xixili Olabe**
Azaroaren 21an, Urtebetetzea. 9 eta 81 urte. Zorionak bikote! Oso ondo zuen eguna! Milaka muxu etxekoon partetik!



OÑATI
**Miren Hernández Juan**
Azaroaren 19an, 8 urte. Zorionak, Miren! Ondo pasa zure zorion egunean!



OÑATI
**Aimar Ferreira**
Azaroaren 17an, 9 urte. Zorionak, politta! Patxo potolo potolo bat. Maite zaitugu!



BERGARA
**Maju Uriarte Sebal**
Azaroaren 15an, 9 urte. Zorionak, Maju! Ondo pasau eguna eta patxo pillo bat etxeko danon partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzen batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

OROIGARRIA

## Josefina Urbieta Oyarzabal

Aitziber Celaya Urbieta, eskolako lankidearen ama

2024ko azaroaren 21ean hil zen.

Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.

Luis Ezeiza

Eskoriatzan, 2024ko azaroaren 22n.

OROIGARRIA

## Javier Lopez Aldecoa



2024ko azaroaren 20an hil zen, 72 urte zituela.

Oroimenez, zure *Txipiron* kuadrilla.

Bergaran, 2024ko azaroaren 22an.

URTEURRENA

## Maria Arana Elkorobarrutia



2023ko azaroaren 19an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 24an, 11:00etan, Uribarriko Itxaropenaren Andra Mariaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2024ko azaroaren 22ann.

ESKER ONA

## Jesus Alday Elorza



2024ko azaroaren 17an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko azaroaren 22an.

ESKER ONA

## Markos Diaz de Gereñu Agirrebeitia



M. Josefa Eskibelen alarguna

2024ko azaroaren 10ean hil zen, 95 urte zituela.

*Zure begien distira eta*
*irrifar goxoa izango dugu gidari.*
*Beti izango zaitugu gogoan.*

—

Familiak esker onak eman nahi dizkizuegu momentu zail hauetan babesa eman diguzuen guztioi.

Eskoriatzan, 2024ko azaroaren 22an.

ESKER ONA

## Miren Ugarte Zugasti



2024ko azaroaren 15ean hil zen, 90 urte zituela.

*Amalurrak goxo har zaitzala.*

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko azaroaren 22an.

ESKER ONA

## Jose Luis Irazabal Aranzabal



Itziar Arrietaren alarguna

2024ko azaroaren 19an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko azaroaren 22an.

ESKER ONA

## Pedro Elorza Zuazubiscar



2024ko azaroan 19an hil zen, 80 urte zituela.

Bere emaztea: Maria Begoña Inza; seme-alabak: Lordi eta Iratxe Belaustegui, Aritz; anai-arrebak: Lurdes eta Juan Carlos Anitua; ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko azaroaren 22an.




## BERRI-ZAKUA



**51ko arrasatearren kintada**
Azaroaren 9an elkartu ziren 1951n jaiotako 29 arrasatear. Herrian egin zuten eguerdiko poteoa, eta Bergarako Tartufon bazkaldu zuten, "giro ederrean".

## HILDAKOAK

- **Fernando Azpiazu Elorza.** Aramaion, azaroaren 15ean. 77 urte.
- **Faustino Loiti Kortabarria.** Aramaion, azaroaren 15ean. 78 urte.
- **Jesus Aldai Elorza.** Aretxabaletan, azaroaren 18an. 79 urte.
- **Jose Mari Morras Garaitonandia.** Arrasaten, azaroaren 14an. 83 urte.
- **Juliana Olivenza Carrizo.** Arrasaten, azaroaren 19an. 70 urte.
- **Pedro Elorza Zuazubiscar.** Arrasaten, azaroaren 19an. 80 urte.
- **Jose Vicente Aliende Tobalina.** Arrasate, azaroaren 18an. 60 urte.
- **Miren Ugarte Zugasti.** Bergaran, azaroaren 15ean. 90 urte.
- **Javier Lopez Aldecoa.** Bergaran, azaroaren 20an. 72 urte.
- **Jose Luis Irazabal Aranzabal.** Elgetan, azaroaren 19an. 88 urte.
- **Carmen Blanco Ortiz de Mendivil.** Eskoriatzan, azaroaren 19an. 86 urte.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**ASTEBURUKO KIROL HITZORDUEN ERREPASOA**
Boulder topaketa, eskubaloiko derbia eta emakumezkoen errugbia izango ditu berbagai Xabi Urzelaik.
***'Harmailatik'*** *Astelehena, 20:00 eta 22:00*



**ANTZUOLARREN TXANDA**
Antzuolara joango da Aitor Agiriano, bailarako herrien arteko tribial pikearen galde-erantzunekin. Zenbat asmatuko dituzte?
***'Bixi ibili!'*** *Martitzena, 20:00 eta 22:00*



**'BERBAGAI' SAIOA**
Tokikom elkarteko Alaitz Artolazabal eta Joxe Rojas elkarrizketatuko ditu Goiatz Arana kazetariak.
***'Berbagai'*** *Eguaztena, 20:00 eta 22:00*



**MIKEL AIZPURUA EZAGUTZEN**
Azken zazpi denboraldiak Beasainen jokatu ostean, Mondrara itzuli da. Azken denboraldia izango duela kontatu dio Mireia Bikuñari.
***'Luzapena'*** *Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**'DANBAKAST' PODCASTA**
Musika jaialdien gainean berba egiteko batuko dira mahaiaren bueltan hainbat gonbidatu, Jokin Bereziartuak gidatuta.
***'Danbakast'*** *Eguena, 20:00 eta 22:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 22

**ESKORIATZA Santa Zezilia Eguna**
17:30ean, musika eskolakoen emanaldia; ostean, txokolate-jana; 19:00etan, Dantza Band emanaldia; eta 21:00etan, Larru Beltzak taldea Inkernun.
*Eskoriatzan.*

**ARRASATE Ziorla Fest**
Informazio osoa 13. orrian.
*Musakolan.*

**OÑATI 'Mendian gora' erakusketa: azken eguna**
Mendi hamabostaldiaren baitan.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ELGETA 'Gu ere kontalari' saioa**
Ipuinak, txisteak, antzerkia... umeek kontatuta.
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Alai Berri taldearen kalejira**
Santa Zeziliaren omenezkoa.
*Herriko kaleetan, 18:30ean.*

**BERGARA Movembergara: musika emanaldia**
Maddi eta Irene Ventin musikariak, eta bertsolariak.
*Venti Gastroitalia jatetxean, 18:30ean.*

**ANTZUOLA Santa Zezilia Eguneko kalejirak**
19:00etan, Alboradak txistulari taldea; eta 19:30ean, Beti Gorri txaranga.
*Herriko kaleetan.*

**BERGARA 'Go!azen' telesaila**
Lehenengo kapitulua. Debalde, edukiera bete arte.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**BERGARA UNEDen ikasturte hasiera**
Diplomak banatuko dituzte.
*Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Colorado' dokumentala**
Suam del Cerro Goñik izen bereko ibaian egindako kayak jaitsiera jasotzen duen lana. Ostean, hitzaldia, egilearekin.
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**ELGETA Biok bikotea**
Irekia.
*Ozkarbi elkartean, 19:30ean.*

**ARRASATE 'Que nadie se entere' liburuaren aurkezpena**
Belle Rose idazleak aurkezpen literarioa egingo du.
*Kajoi tabernan, 19:30ean.*

**ARRASATE 'El huésped del sevillano' zarzuela**
Sarrerak, hogei euro.
*Amaia antzokian, 20:00etan.*

**BERGARA Fermin Valencia kantautorea**
Azaroa Gaztainatan ekimenaren baitan.
*Txuringo tabernan, 20:00etan.*

**BERGARA Zikin, Tatxers eta Presidente Indio taldeak**
Sarrerak, zortzi euro.
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

**ANTZUOLA 'Azaroan arazoak' bertso txapelketa**
Herriko bertsolariekin.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 23

**ARRASATE A25eko ekintzak**
10:00etan, *Oh gu hemen!* dokumentala; eta 12:00etan, mural margotzea eta luntxa.
*Gaztetxean.*

**ARRASATE Ziorla Fest**
Informazio osoa 13. orrian.
*Musakola auzoan.*

**ARRASATE Mikel Lezeari omenaldia**
12:30ean, kontzertuak Irati tabernan; eta 22:00etan, gaztetxean.
*Leku horietan.*

**ESKORIATZA Telmo Jaia**
Informazio osoa 18. orrian.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan, 14:00etan.*

**OÑATI XVI. Trikiti Jaialdia**
Lizargarate Trikitizale elkarteak eskutik. Osteko afarirako sarrerak, agortuta.
*Santa Ana antzokian, 17:00etan.*

**ARRASATE Musika instrumentuak sortu eta batukada**
Gaztetxoendako.
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Ardo dastatzea**
Kroketa-pintxo bereziak egongo dira.
*Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Javier Liñeraren 'Lohi gorria' antzezlana**
Ekoma Teatro konpainiarekin. Sarrerak, bost euro.
*Arkupen, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'Manttalingo alaba' ikuskizuna**
Saturrarango espetxean diktadura frankistan preso egondako emakumeak omentzeko ikuskizuna, A25eko ekitaldien baitan.
*Kultura etxean,19:00etan.*

**ARRASATE 'El huésped del sevillano' zarzuela**
Sarrerak, hogei euro.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**BERGARA Sugaar Ensemble taldea**
Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## DOMEKA 24

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**
Izena emateko: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**BERGARA Txistulari Bandaren kalejira**
Santa Zeziliaren omenezkoa.
*Herriko kaleetan, 11:00etan.*

**OÑATI 'Altxorraren bila' jolasa**
Arantzazuko bide irisgarrian. Izena emateko: 943-78 28 94.
*Parketxean, 11:00etan.*

**ARAMAIO Bizente Goikoetxea abesbatzaren kontzertua**
Santa Zeziliaren omenezkoa.
*Parrokian, 12:00etan.*



MANTTALINGO ALABA

**ARAMAIO 'Manttalingo alaba' ikuskizuna**
Saturrarango espetxean diktadura frankistan preso egondako emakumeak omentzeko ikuskizuna, Mikel Etxabururen izen bereko liburuan oinarrituta. Azaroaren 25aren bueltan antolatutakoa.
*Bihar, zapatua, kultura etxean, 19:00etan.*

**BERGARA Musika Bandaren kontzertua**
Santa Zeziliaren omenezkoa.
*San Pedro parrokian, 12:30ean.*

**OÑATI 'Entzun klasikoak'**
Musika bandaren denboraldiko lehen kontzertua, Aita Madina txistulari taldearekin.
*Zubikoan, 13:00etan.*

**ARRASATE Ziorla Fest**
Informazio osoa 13. orrian.
*Musakola auzoan.*

**ARAMAIO 'Minimach' animazioa**
*Haziaraba in the mapping* jaialdiaren baitan.
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**ARRASATE Karaoke feminista**
Gaztetxoendako.
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Xabier Zeberioren emanaldia**
Musikegunen baitan. Sarrerak, zazpi euro.
*Santa Anan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Umorezko bakarrizketak**
Ander Malbadi, Asier_K eta Esti Curiel oholtzan.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'Our father, The Devil' pelikula**
Afrikaldiaren baitan.
*Kultura etxean,19:00etan.*

## ASTELEHENA 25

**ARRASATE '¿Hombre agresor, mujer víctima?' hitzaldia**
Gemma Varonak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Elkarretaratzeak**
Orduak, 3. orrialdean.
*Herrietan.*

## MARTITZENA 26

**ANTZUOLA 'Gipuzkoako armarria, gure historiaren ispilu' liburuaren aurkezpena**
Patxi Olabarriak aurkeztuko du.
*Olaran etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Euskara, generoa eta feminismoa' solasaldia**
Marta Luxanek eta Jone Miren Hernandezek egingo dute berba.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Kultura, oparotasuna eta demokrazia' hitzaldia**
Juan Ignacio Perezekin.
*Eskola Politeknikoan, 18:30ean.*

## EGUAZTENA 27

**BERGARA Txillidari buruzko hitzaldia**
Nausica Sanchezek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Indarkeria matxista identifikatzen al dugu gizonok?' hitzaldia**
Azaroaren 25aren harira.
*UNEDen, 17:30ean.*

**ELGETA 'Elikadura menopausian' ikastaroa**
Gaur egingo dute lehen saioa.
*Udaletxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Elikadura jarrera osasuntsuak' hitzaldia**
Mireia Centenok egingo du berba.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Patologia dualaren gaineko hitzaldia**
Enrique Saracho psikiatrak egingo du berba.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**BERGARA 'Euskal Herria underground' liburuaren aurkezpena**
Mikel Urkixo egilearekin.
*Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

**OÑATI Gaztaina-erre jana**
Txartelak tabernan egongo dira salgai, bi eurotan.
*Pake Lekun, 18:30ean.*

**ARRASATE Erdi Aroko olagizonei buruzko hitzaldia**
Imanol Vitoresek egingo du berba, Iragana Astintzen hitzaldi zikloan.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'La sustancia' filma**
Jatorrizko bertsioan, azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 28

**ARRASATE 'Hitzen ahairea' tailer musikatua**
Rafa Ruedarekin eta Gotzon Barandiaranekin. Izena: *aed@aedelkartea.eus.*
*Kulturaten, 18:00etan.*

**BERGARA 'Torturaren inpunitateari aurre egin beharraz' hitzaldia**
Agus Hernanek eta Iratxe Urizarrek egingo dute berba, Olaso Fundazioak gonbidatuta.
*Olaso dorrean, 19:00etan.*

## ZINEMA

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**Soy Nevenka**
Domeka eta astelehan: 19:30.

**Una familia monstruosa**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Gladiator II**
Egubakoitza: 22:00. Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka eta astelehena: 19:30.

**Elli y el equipo de monstruos**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

COLISEO

**Anora**
Zapatua: 19.30, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 19:30.

**Jurado nº2**
Zapatua: 17:00, 19:45. Domeka: 17:00.

**Azken erromantikoak**
Zapatua: 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**La infiltrada**
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30. Domeka: 12:00, 17:00, 19:30. Martitzena eta eguena: 17:00.

**Robot salvaje**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30. Domeka: 12:00, 18:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:15.

**Marco**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:30. Domeka: 12:00, 17:15, 19:30. Astelehenetik eguenera: 17:15.

**Escape**
Egubakoitza eta zapatua: 16.45, 22:30. Domeka: 17:00, 19:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Jurado nº2**
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 22:30. Domeka: 12:00, 16:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 19.45. Martitzena: 17:00.

**Gladiator II**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 21:45. Domeka: 16:30, 19:30. Astelehena, martitzena eta eguaztena: 16:45, 19:15. Eguena: 16:45, 19:30.

**Los ultimos romanticos**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:00. Domeka: 19:15. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Azken erromantikoak**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30. Domeka: 12:00. Astelehenetik eguenera: 19.45.

**Las chicas de la estacion**
Egubakoitza eta zapatua: 19.15, 22:30. Domeka: 16:15, 18:45. Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Raqa**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30, 22:35. Domeka: 12:00, 20:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Tiempo compartido**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45. Domeka: 12:00, 16:30. Astelehenetik eguenera: 16:45.

**Wicked**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 21:30. Domeka: 16.45, 19:45. Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 19:15. Martitzena: 16:30, 19:30.

**Harold y el lápiz mágico**
Domeka: 12:00.

**Ausartu**
Martitzena: 19:30.

KRITIKA

### Marco

**Zuz.:** Aitor Arregi eta Jon Garaño. **Aktoreak:** Eduard Fernandez, Nathalie Poza. **Iraupena:** 98 minutu.

★★★★★

## Sugestio ahalmena

**Antonio Zabala**

Moriarti taldeak Enric Marcoren istorioa kontatzen digu pelikula horretan. Marcok bizi izan ez zuen bizitza asmatu zuen. Komunikatzeko ahalmen handiko pertsona karismatikoa zen. Haren sugestio-ahalmenarekin kontatutako gezurrek egia ziruditen. Flossenburgeko kontzentrazio esparru baten egon zela esaten zuen, eta han jasandako hondamendia detailez eta uste osoz azaltzen zuen. Hark esandakoak sinetsi egin zituzten jendeak eta haren familiakoek, eta Marco holokaustoaren biktimen Espainiako elkartearen presidente izatera heldu zen. Egun batean, Benito Bermejo historialariak, ikerketak eginda, Marcok kontatutakoa gezurra zela deskubritu zuen. Marcoren bizitza gezurrez eta sekretuz beteta zegoen, eta gauza eta korapilo guztietatik ahal zuen moduan ateratzea lortzen zuen. Holokaustoaren gaiaz gain, haren familiakoek ez zekiten aurretik ezkonduta egon zela eta alaba bat zuela.

Arregik eta Garañok istorioa errespetuz eta modu txukunean kontatzen digute, baina ez dira heltzen euren beste lan batzuen mailara. Istorioa Marcok sortutako armiarma-sarean korapilatzen da eta hor bueltaka geratzen da. Lehengo eta oraingo familiari buruzko zerbait gehiago jakin nahiko genuke, eta istorioan elkarteko giroak denbora gehiena hartzen du. Bikaina da Eduard Fernandezen lana. Filma gustura ikusten den arren, lau samar geratzen da.

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## Gai zaila

Duela bi aste, *Puntua* aldizkariko gai nagusia arrazakeriaren hazkundea izan zen. Barruko orrietan X sare sozialetik ateratako esaldi batzuk agertzen ziren. Horien artean, hauxe: "Milaka eta milaka ekartzen dituzten etorkinak, eskulan merkea besterik ez dira. Langile-klasearen baldintzak ahalik eta gehien prekarizatzeko. Lumpenproletariado". Erreportajean mezu arrazista zela adierazten zen.

Azkenaldian, Kataluniako ezkerreko prentsan immigrazioari buruzko hainbat hausnarketa azaltzen ari dira. Batzuek esaten dute, adibidez, ez dela fenomeno guztiz naturala. Botere ekonomikoen aldetik interes berezia ikusten dute: soldata eskasak eskaintzen hasi, langabezian dauden pertsonek onartu ez eta kualifikazio baxuko lana etorkin ekonomikoek bete, etenik gabe. Gainera, esaten dute hasiera bat izan zuela: Aznarren garaia, Aznarrek estatuko monopolioak pribatizatu zituenean –bere lagunen artean–. Eta horiek errentagarriagoak egin behar ziren.

Are gehiago, Katalunian hainbatek gogoratzen du migrazio politika Madrilen erabakitzen dela. Hau da, arrazoi politikoa ere nabaritzen dute.

Ez da, ez, gai erraza.

BUKATZEKO

# Etxeetan da Goienakide egutegia, artea oinarri

Gaur bertan helduko zaie Goienakide guztiei etxera 2025eko egutegia. Komunitatearekin batera sortutako egutegiak askotariko informazioa izango du eskuragarri, eta hainbat diziplinatako artistak eta artelanak izango ditu ardatz

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA

Iazkoari jarraipena emanaz, aurten ere Goienakide egutegia oparituko du Goienak: "2025eko bailarako egutegi osatuena". Etxez etxe banatuko dute egutegia; ohiko *Puntua* aldizkariaren formatua jarraituko duen 40 orriko egutegi tematikoa, "komunitatearekin egindakoa", Monika Belastegi *Puntua* aldizkariko erredaktoreburuak azaldu duenez. Gainera, Belastegik iragarri du egutegiak banatzen diren egubakoitzean ez dela *Puntua* aldizkaririk banatuko.




### Artea eta artistak

Iaz, *Lanbideak* izan zen egutegiaren gaia, eta aurten arteak eta bailarako artistek izango dute tokia Goienakide egutegian, diziplina askotariko artistek, sortzen ari diren bitartean erretratatuak. Bi atal nagusi izango ditu 2025eko Goienakide egutegiak: lehenik eta behin, "egutegia bera" egongo dela dio hura koordinatzeaz arduratu den Oihana Elortzak, eta askotariko informazioa egongo da eskuragarri: "Hilabete bakoitzak artista baten argazkia du, baita informazio ugari ere: herrietako eta auzoetako jaiak eta hitzordu seinalatuak, nazioarteko egunak, Euskal Herriko jaiegunak, ilargi aldaketak, tenporak eta efemerideak, hain zuzen".






2025eko Goienakide egutegiaren hainbat orri. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Bestetik, Elortzak aurreratu du bailarako artistak ardatz hartuta argazki-erreportaje bat ere jasoko duela egutegiak: "*Puntua* aldizkaria oinarri izanik, atzera begira ere jarri gara, eta, argazki-erreportaje batean, dagoeneko hilda dauden bailarako zenbait artistaren artelanak erakutsi ditugu, haien senitartekoen eskutik". Egutegiaren azken orrian 2026ko egutegia eta editoriala daude.

Elortzak aprobetxatu gura izan du eskerrak emateko egutegia sortzen lagundu duten debagoiendar guztiei: "Jende askok hartu du parte, eta guztiei eskerrak ematea besterik ez daukagu. Ez dugu ezetzik jaso; kontua egunak eta orduak zehaztea izan da, bakoitzak baduelako bere agenda propioa, baina nork bere partetik asko jarri du. Oso gustura gelditu dira artistak eta herritarrak, baita gu ere".

### Eskerrak emateko

Goienakideentzat egindako egutegia da 2025ekoa; Belastegiren hitzetan, "opari bat; eskerrak emateko Goienakideei, Goienaren misioarekin konprometituta daudelako eta lagundu egiten digutelako, euskaratik, kazetaritza profesionala egiten. Guk ere mimo handiz egin dugun egutegi bat da, bailarako pertsona asko agertzen dira, eta espero dugu horrenbesteko mimoarekin egindako lan hori eurek ere gustuko izatea eta 2025ean zehar erabilgarria izatea", adierazi du Belastegik.

